Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa	2.616	3.063	6.923	126,0%
Zehaztu gabe / Sin especificar	20.092	7.765	5.195	-33,1%

Norako turistikoaren arabera bisitarien bilakaera, aurreko atalean azaldutako Lurralde Historikoen egoera berdinean aurkitzen da.

2012tik aurrera da norako turistikoak alderatu daitezkeen puntua.

2. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTAK

2014ean, Euskadik, 2.109.634 turisten sarrera erregistratzen du. Lehengo urtean baino 187.079 gehiago dira (%9,7). Nabarmenena turisten errekor historikora berri bat lortu dela da eta bi milioien muga gainditu dela. Orokorrean, atzerriko merkatu turistikoaren beherakada hasi zenetik, 2008 eta 2009an %16,5 bat uzkurtu zen 2007arekin alderatuz, azken bost urteetan indarberrituz, 2014an %58,4ko igoera bat jasanez, 2009ko gutxienekoaren gainetik.



Azken bost urteetan, krisi mundialak eragindako beherakadaren ondoren, Euskadin 777.661 turista berreskuratu dira, zifra hau kontuan hartzekoa da Herrialdearen berreskuratze ekonomikoaren erritmoaren harian.



2007a baina aurreragoko turisten gaineko informazioa, ezin da gaur egungo datuekin konparatu, aurreragokoak Euskadi norako nagusitzat zutenenak bakarrik baitira, eta gaur egungoak Euskadi etortzen diren turista guztienak dira, bai norako nagusi bezala bai bigarren mailako norako bezala dutenenak.

2.1.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2010 - 2014

Atzerriko turismoak Euskadin urtaroko izaera nabarmen bat dauka, uda sasoiko hilabeteen nagusitasunarekin, batez ere uztaila eta abuztua, baita ere udaberri eta udazkeneko hilabeteena ere, negukoen gainetik.

Izan ere, uztailak eta abuztuak, eskaera turistikoaren hirurena biltzen dute. Azken urteetan, abuztuak uztailak baina sarrera turistiko gehiago biltzen ditu, 2011ean ezik, abuztuko zifrek uztailekoak izan zirelarik.

Azken urtean, Euskadi bisitatu duten turisten errekor historikoa lortzeaz gain, urteko hilabete gehienetan errekor hau lortu da, 12tik 10 hilabetetan.

Urtarrilak bere kota historiko altuena lortzen du 93.487 turistekin, otsailak 94.152rekin, maiatzak 172.196 turistekin, ekainak 187.505rekin, uztailak 325.603rekin, abuztuak 383.047rekin, irailak 196.101rekin, urriak 159.864, azaroak 101.381rekin eta abenduak 124.550 turistekin.

Martxoak, Euskadi bisitatzen duten 123.076 turistekin ez du azken bost urteetako bere emaitzarik onena lortzen, 2013an gertatu zena, baina lehengo urtea gainditzen du. Apirilarekin berdin gertatzen da, 148.673 turistekin aurreko urteko hilabete berdina gainditzen du, baina ez du lortzen 2011ko datua gainditzea.

Martxoa da interurteko beherakada bat jasan duen hilabete bakarra, 3.986 turista gutxiago (%3,14)



Turisten interurteko hazkundeei begira, apirileko %20,3ko igoera nabarmendu behar da, nahiz eta historiako emaitzarik onena gainditu ez duen, zein 2011ean gertatu zen, 2013. Urtearekin alderatuz igoera bikain bat jasan du (25.047 turista gehiago). Hala ere, aipatu behar da martxoa eta apirileko interurteko hazkundeak Aste Santuko oporraldia dela medio kutsatuak gertatzen direla, urtearen arabera martxoan, apirilean edo egun batzuk bakoitzen suertatzen baita.

Aipagarria da baita ere uztailak jasandako igoera (%19,5), 2013aren aurrean 53.069 turista irabaziz, urtarrilarena %12,1eko hazkundearekin, 10.114 turisten gorakada suposatzen duena, ekainarena %11,5eko gorakadarekin 19.298 turista gehiago, abuztuarena %9,9ko hazkunde batekin eta 34.542 turista gehiagorekin eta otsailarena %9,8ko gorakada eta 8.431 turista gehiagorekin. Gainontzeko hilabeteak, martxoa kenduta, %2tik %8ra bitarte igo dira.

Balio absolutoetan, interurteko hazkunde handiena uztailan izan da 53.069 turista gehiagorekin, aurrerago aipatu bezala eta turista guztien, hau da, hazkunde positiboa duten hilabete guztietan irabazitako 191.065 turisten, %27,8 bat suposatzen du.

Estatuko eta Euskadiko turisten denbora banaketari buruz, ikusi daiteke, Estatuko turisten artean ez dagoela ia interurteko aldaketarik hilabeteetan zehar. Euskadiko turistek baino izaera homogeneoago bat erakusten dute.

Estatuko turisten pisuak hilabeteetan zehar, urtarrilan hasita, gorakako izaera bat erakusten du, uztaila eta abuztua berdintsuak dira, eta gero beherakako joera erakusten du abendurarte, hau beste desberdintasun bat delarik.

Uztaila eta abuztuko turisten izaera oso ezberdina da Euskadin eta Estatuan, Euskadin Estatuan baino urtarokotasun handiagoa dagoelarik, bi hilabete hauetan turista kontzentrazio handiagoa nabarmenduz.

Grafikan Euskadiko turisten datuak begiratzen urte desberdinen hilabete berdinetan dauden tontorrak antzeman daitezke, honek Estatuan baino izaera aldakorragoa nabarmentzen duelarik.



2.2.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, bizilekuaren arabera. 2014. urtea

Turisten hilabeteko bilakaera bizilekuaren arabera aztertzerako orduan, grafika batzuk aurkezten dira, bertan, herrialdeak antzeko tamainarengatik multzokatu direlarik, honela, beraien artean dauden desberdintasun handiak direla eta, eskala handi bat erabiltzea sahiestuz eta herrialde bakoitzaren jokaera ikusten erraztuz.



Frantzitik datozen turistak 1.113.857 dira, turista guztien %52,8a eta horregatik bananduta aztertzen dira. Gainontzeko herrialdeetatik datozenak askogatik gainditzen dituzte, urtarriletik abuztura gorakako joera bat daukate, nahiz eta maiatzan beherapen txiki bat eduki. Abuztua da Euskal Herrira turista frantziar gehien etorri den hilabetea, 232.639 turistarekin, turista frantsesen %20,9. Irailan beherakada haundi bat dago urria eta azaroan leuntzen dena, eta azkenik abenduan berriz gora doa, urtarrila, otsaila, martxoa, maiatza, urria eta azaroko balioak gaindituz.

Atal hontako bigarren grafikan 75.000 eta 157.000 turistako bolumena duten Europako Herrialdeen emaitzak aurkezten dira, eta Erresuma Batuan, Alemanian, Portugalen eta Europako Gainerako Herrialdeetan bizi diren turistena. Talde honek, Euskadiko turismoaren %24,4a irudikatzen du. Erresuma Batuak %7,1, Alemaniak %6,2, Portugalek %3,6 eta Europako Gainerako Herrialdeek %7,4. Hauen jokaer hilabetez hilabete aldatzen doa.

Erresuma Batuko turistek, urtarriletik ekainera hazkunde iraunkor bat erakusten dute, urtarrileko 4.790 turistetatik ekaineko 20.871ra. Uztailan nabarmenki jeisten dira 14.230 turistetaraino, abuztuan berriz igoaz 23.354etara, eta hemendik berriz jeisten joateko abenduko 9.003 turistetara iritsi arte.

Merkatu alemanak otsailan beherakada txiki bat aurkezten du 5.660 turistekin, urtarrileko 6.821ekin alderatuz, eta goraka jarraitzen du abuztuan 20.403 turista lortu arte. Hortik aurrera behera doa abenduan 7.909 turistetara iritsi arte.

Portugalen bizi diren turistak, grafika hontan aurkeztutako lau herrialdeen artean gutxieneko ekarpena egiten dutenak dira. Maiatza, uztaila eta abuztua dauzkate batik bat Euskadi bisitatzeko, uztaila izanik portugaldarren ekarpen handiena egiten duen hilabetea.



Gainerako Europako turistek urtean tontor esanguratsu bat maiatzan aurkezten dute, 18.044 turistekin, urtarrileko 4.602tik progresiboki lortuz, eta bigarren tontor bate ez dena ain esanguratsua abuztuan, urteko turista gehien lortzen diren hilabetea (22.267). Hilabete honetatik aurrera beherakada iraunkor bat jasaten dute azarorarte, abenduan pixka bat berreskuratzeko.

Aztertzen den hurrengo grafika, garrantzia gutxiago duten Europako beste herrialdeetako turistetan oinarritzen da, hau da, Italia, Belgika eta Holanda. Hauen bolumena, Belgikako 42 mila turistetatik Italiako 65 mila turistetara doa, Holandako 47 miletatik pasaz. Talde honek Euskadiko turisten %7,4 bat irudikatzen du.



Italiarren bidaiarako jokabidea, otsailan beherapen batekin hasten da, hemendik goraka egiten du apirilean tontor txiki batekin, abuztuan tontor hau bikoiztuz, ondoren irailan eta urrian beherakada handi bat izateko, azaroan leuntzen dena, eta abenduan zerbait berreskuratzen dena.

Belgikarrak urteko lehenengo bost hilabeteetan era sinusoidal batean jokatzen dute. Kota altuea uztailan dute 13.368 turistak lortuz, eta hemendik aurrera behera egiten hasten dira azarorarte abenduan joera aldatzeko. Aipatzekoa da uztaila eta abuztuan %50eko beherakada bat jasaten duen kolektibo bakarra dela.

Holandako turistek, lehenengo bost hilabeteetan belgarren merkatuak edukitako jokaera antzeko bat erakusten dute, baina gora beherak hilabetez hilabete txandakatuz. Kota altuena uztailan ematen da baita ere, baina abuztuan ia berdin mantentzen da 208 turistako beherakada txiki batekin. Azarorarte behera egiten dute eta urtea errekuperazio txiki batekin bukatzen dute.

Azken talde hau hurrunago dauden lurraldeetako turistek osatzen dute, adibidez, Iberoamerika (116 mila turistekin), Ipar Amerika (130 mila turistekin) eta Munduko Gainontzeko Herrialdeak (78 mila turistekin). Turista hauek Euskadiko turismoaren %15,4 irudikatzen dute, eta aurretik aztertutako herrialdeetako turisten modu oso ezberdinean jokatzen dute.

Iberoamerikarrek urtarrilan turista fluxu handi bat aurkezten dute (10.559), otsailan erdira jeisten direnak, eta hortik aurrera goraka egiten dutenak uztailean 12.875ra iritsi arte. Abuztuan berriz behera egiten dute 9.918 turistetaraino eta irailan tontor handiago bat daukate, 20.885 turistak lortuz, gero abendurarte jeisten joateko 3.839 turistetaraino. Irailan bere kota altuena duen merkatu bakarra da.



Iparamerikarrak urtarriletik goraka egiten hasten dira ekainean kota altuena lortu arte (13.292). Uztailan 8.048 turistetara jeisten dira eta abuztuan berriz gora doaz 12.045 turistetaraino. Irailan, urrian eta azaron beheraka egiten dute 2.410 etaraino eta abenduan 3.673 turistetara igotzen dira.

Azkenik, Munduko Gainontzeko Herrialdeetatik datozen turistek joera mailakatu bat daukate azarorarte eta abenduan 6.993 turistetara jeisten dira. Kota altuna maiatzan dute 17.789 turistekin.

Merkatu frantsesa kontuan hartu gabe, hilabetez hilabete turista gehien ekartzen dituean, ikus daiteke urtarrilan lortutako kota altuena Iberoamerikar merkatuarena dela, otsailekoa Gainerko Europarena, martxokoa Munduko Gainontzeko Herrialdeena, apirilekoa Alemaniarrena, maiatzekoa Gainerako Europarena, ekainekoa Erresuma Batuarena, uztailekoa Gainerako Europarena, abuztukoa Erresuma Batuarena, irailekoa Iberoamerikarrena, urrikoa Munduko Gainontzeko Herrialdeena, azarokoa Iberoamerikarrena eta abendukoa Erresuma Batuarena.

Orokorrean, antz ematen da, nahiz eta turismoa nahiko iraunkor mantentzen den udazkenean, udaberrian eta neguan, edozein dela ere turisten jatorrizko herrialdea, udara da turista gehien biltzen dituen sasoia.

2.3.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, bisitaren arrazoiaren arabera. 2014 . urtea

Turistek Euskal Herria bisitatzera bultzatzen dituzten arrazoiak, era aldakor batean jokatzen dute urteko hilabeteetan zehar.

Aisiaren arrazoia da atzerritar gehien Euskadira erakartzen dituen arrazoia, oporrak (%69,3). Arrazoi honek turisten artean daukan pisua hilabeteen arabera, otsaileko %56tik abuztuko %82,7ra doa. Balio absolutoetan aisiagatik datozen turisten kopurua otsaileko 52.757 etatik abuztuko 316.777 etara doaz. Arrazoi hau nabarmenki igotzen da udako hilabeteetan (ekaina, uztaila, abuztua eta iraila), guztira 814.096 turitarekin, aisiagatik datozen turisten %55,7 irudikatzen dutelarik, eta turista guztien %38,6.



Laneko arrazoiengatik etortzen diren turistek (%12) ez dute oso joera alderraia aurkezten, beren pisuetan aldaketa asko gabe. Hilabeteen joanean tartekatuz joaten da, beherakada logiko batekin udako hilabeteetan eta abenduan, langileen oporrak direla eta. Proportzio baxuena abuztuan gertatzen da, turisten %5,3 bat irudikatzen duelarik (20.461). Lanagatik turista gehien etortzen diren hilabetea uztaila da 34.366 bidaiarirekin eta gutxien datozen hilabetea azaroa da, 11.234 turistekin.

Ikasketen arrazoiak garrantzi gutxi dauka bidaiaren arrazoien artean (%2), arrazoi honek 8.000 turistak ez dituelarik inoiz gainditzen. Ekaina, uztaila eta abuztuan zehar Euskadira arrazoi honengatik datozen turisten %45,2a bateratzen da. Kontuan hartu behar da sasoi hontan “Udako Kurtsoak” egiten direla, hauek atzerriko ikaslegoa erakartzen dutelarik.

Euskal Herria arrazoi pertsonalengatik bisitatzeak, azaroko 9.405 turistetatik abuztuko 39.326 etara doa. Udako hilabeteak kenduta, arrazoi pertsonalengatik turista gehien datozten hilabeteak direnak, apirila eta abendua ere aipagarriak dira. Arrazoi hau Euskadi bisitatzen duten turisten artean garrantzian bigarrena da eta 259.816 turista lortzen ditu, turista guztien %12,3a.

Aurrekoetan ez bildutako arrazoiek (%4,3), abuztuan garrantzia lortzen dute 14.182 turistekin, uztailekoek jarraituz, 14.030 turistekin eta azkenik irailakoek 14.021 turistekin. Gainontzeko hilabeteak 2.744 eta 8.134 turisten artean daude.

2.4.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2014. urtea

Ostatu-gau bateko egonaldia egiten duten turistek, Euskadiko turisten %37,3 bat irudikatzen dute, 786.318 turistetara ailegatuz, garrantzian bigarren postuan daude, eta era berean lehenengo postuan daude urteko 6 hilabetetan (urtarrila, otsaila, martxoa, uztaila, urria eta abendua) eta bigarren postuan beste 6 hilabeteetan (apirila, maiatza, ekaina, abuztua, iraila eta azaroa), 2tik 3ra ostatu-gaueko egonaldiak egiten dituztenak dira gainditzen dituztenak. Euskadin 2tik 3ra ostatu-gau ematen dituzten kolektibo hau, handiena da 794.808 turistekin (%37,7). Ostatu-gau bakarreko egonaldiak nagustzen diren hilabete hauetan, 2tik 3rako ostatu-gauekoa daude bigarren postuan.



4tik 7ra bitarteko ostatu-gauak, urteko turisten %18,3a irudikatzen dute, eta gehien bat uztaila eta abuztuan ematen dira, 65.481 eta 76.534 turistarekin. Egonaldi hauen luzaerak abuztuan gora egin du %24,2 turistekin. 8tik 15era bitarteko ostatu-gauak Euskadiko turisten artean garrantzi gutxiago dute, turisten %4,4a soilik irudikatuz. Uztailan 10.361 turista eta abuztuan 30.527 turista, aurten 2013arekin alderatuz %64,1 bat igo direnak. Urteko gainontzeko hilabeteak 2.500 eta 6.700 turisten artean aurkitzen dira.

	GUZTIRA/ TOTAL	Urtarrila / Enero	Otsaila / Febrero	Martxoa / Marzo	Apirila / Abril	Maiatza / Mayo	Ekaina / Junio	Uztaila / Julio	Abuztua / Agosto	Iraila / Septiembre	Urria / Octubre	Azaroa / Noviembre	Abendua / Diciembre
GUZTIRA/TOTAL	**2.109.634**	**93.487**	**94.152**	**123.076**	**148.673**	**172.196**	**187.505**	**325.603**	**383.047**	**196.101**	**159.864**	**101.381**	**124.550**
Gau batean / Una noche	**786.318**	40.200	39.911	56.916	52.795	59.131	51.621	126.927	130.214	69.834	65.849	38.956	53.964
2 - 3 gau / Entre 2 y 3 noches	**794.808**	30.141	35.394	42.453	53.452	67.971	88.747	117.608	135.788	79.865	57.016	40.023	46.350
4 - 7 gau / Entre 4 y 7 noches	**385.835**	10.737	14.057	17.530	34.259	32.769	36.283	65.481	76.534	33.133	32.335	15.389	17.326
8 -15 gau / Entre 8 y 15 noches	**93.467**	5.822	2.507	4.195	5.875	4.474	6.723	10.361	30.527	10.446	3.374	5.187	3.976
16 - 30 gau / Entre 16 y 30 noches	**34.154**	5.977	1.290	1.302	1.513	5.269	1.884	3.681	8.184	1.991	919	837	1.306
30 gau baino gehiago / Más de 30 noches	**15.052**	610	993	679	779	2.581	2.247	1.544	1.800	832	371	987	1.627

16tik 30era bitarteko ostatu-gauak ematen dituzten turistak (hilabete baino gehiagokoak bezala), edozein norako turistikorentzat interesgarriak suertatzen dira, baina tamalez Euskadin oso kopuru txikia dira (34.154), turista guztien %1,6. Kolektibo honen etorrera handiena abuztuan ematen da 8.184 turistekin eta zorionez interurteko hazkundea %29,8koa da.

Hilabete baino gehiagoko egonaldia egiten duten turistek 15.052ko zifra bakarrik lortzen dute (osotasunaren %0,7). Ekarpen handiean maiatzan gertatzen da 2.581 turistekin, 2013an baino %84,2 gehiago.

Datu positiboena egonaldiaren iraupenaren arabera interurteko hazkundeak ematen digu, turisten osotasunean %9,7ko hazkunde batekin. Ostatu-gau bateko egonaldia egiten duten turisten %5,1, 2tik 3rako egonaldia egiten duten turisten %14,1, 4tik 7rako egonaldia egiten duten turisten %12,1, 8tik 15erako egonaldia egiten duten turisten %8,9, 16tik 30erako egonaldia egiten duten turisten %0,7 eta 30eko egonaldia egiten duten turisten %2,6. Turisten hazkundeak, ostatu-gau bat baino gehiagoko egonaldietan eragin handiagoa dauka, bereziki 2tik 3ra eta 4tik 7rakoetan.

2.5.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, erabilitako ostatu motaren arabera. 2014 . urtea

Euskal Herriko turisten artean ostatu mota erabiliena hotela da (%59,7), 1.258.690 turista eta %15,4ko interurteko hazkunde batekin bat etortzen dena. Urtarrilan eta abenduan ikus daitekeen bezala, ostatu mota honen garrantzia jeitsi egiten da, familia eta lagunen ostatu motaren onurarako. Gertakari hau Eguberriarekin erlazionatuta dago, egun hauetan familiakoak eta lagunak Euskadira etortzen baitira beren senideekin egoteko eta hauen etxeetan pasatzen dituzte gauak. Familia eta lagunen etxebizitzen erabilerak azken urtean %3,8 bat atzera egin du, 305.094 turistetara jeitsiz, turista guztien %14,5 suposatzen dutenak. Ostatu mota hau Euskadin atzerritarrek gehien erabiltzen duten bigarren ostatu mota da.



Uztailan eta abuztuan ere nabari da hoteletako turista proportzioan beherakada bat, baina kanpineko turisten eraginez da oraingoan. Eguraldi ona egiten duen hilabeteak direnez, turista gehiago dira ostatu mota hau aukeratzen dutenak, ostatu-gauen prezioari dagokionez bere abantaila lehiakorraz gain. 2014. urtean 214.252 turista dira kanpina gustokoen duten hirugarren ostatu mota bezala aukeratzen duten turistak, guztien %10,2, eta interurteko %2,1eko hazkunde txiki batekin.

Berezko etxebizitzak Euskadin oso onespen baxua dauka (%1,1). Ostatu mota hau, urte osoan zehar eguzki eta hondartza turismoa duten zonaldeetan nagusitzen da gehien bat, adibidez, Kanariar Uharteak, Balear Uharteak eta Mediterraneoko herriak.

Alokairuzko etxebizitzak, nahiz eta 2014ean %43,9 bat igo diren, turista multzo txiki batek bakarrik erabiltzen jarraitzen du (%5,1).

2.6.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, norako Lurralde Historikoaren arabera. 2014 . urtea

Euskadira etortzen diren turisten banaketa, hilabeteko, norako Lurralde Historikoaren arabera aztertzean, norakoaren erabakian iragankortasunaren eragina ikertzeko asmotan, ikus daiteke, martxoan, Arabako Lurraldeak bere proportzio altuena lortzen duela, %12,9 eta azaroan baxuena, %4,4 (4.466 turista izanik, balio absolutoentan ere baliorik baxuena). Uztaila da Araba turista gehien bisitatzen duten hilabetea, 34.210, eta interurteko %28,7ko hazkunde bat eduki dutenak, abuztuak jarraitzu 24.060 turistekin eta 2013arekin alderatuz %35eko galera batekin.

Gipuzkoan turisten kota altuena abuztuan gertatzen da, 215.006 turistekin, eta baxuena urtarrilan 44.095rekin. Bizkaian, abuztuan ematen da ere maximoa, 143.959 eta otsailan minimoa 39.200 turistekin.

Apirila izan da, urte osoan zehar, Bizkaiko turistek Gipuzkoakoen kopurua gainditu duten bakarra (67.688 62.798ren aurrean).

Interurteko hazkundeari begira, uztailan eta abuztuan, Gipuzkoako turistak %25,1 eta %23,5 izan dira hurrenez hurren. Bizkaian, hilabete hauetan, aldaketa positiboa izan da ere, baina proportzio baxuagoan (%11 eta %6,5).



Urteko lehenengo sei hilabeteetan, Gipuzkoako eta Bizkaiko turisten zenbakietan 7.300 baina gutxiagoko aldea dago. Uztailan eta abuztuan ordea, eta iraila eta urrian gutxiago, bi Lurraldeetako turisten arteko aldea handitzen doa, Gipuzkoaren nagusitasun batekin, uztailan 68 mila turista gehiagorekin, abuztuan 71 mila turista gehiagorekin eta iraila eta urrian 24 mila turista gehiagorekin. Azaroan alde hauek gutxitu egiten dira 5.733 turistetako alderaino, abenduan alde hau berriz ere handituz bukatzeko, 14.762 turista gehiagoreekin.



2.7.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, norako turistikoaren arabera. 2014. urtea

Norako turistikoetan sakonduz, Lurralde Historikoetari begiratu ordez, hiriburuei begiratzen bazaie, jokaera ezberdinak ikusten dira. Aurreko puntuan Bizkaiak Gipuzkoa apirilan bakarrik gainditzen bazuen, orain, Bilbo da Donostia/San Sebastian gainditzen duena uztaila, abuztua, iraila eta urrian ezik. Hala ere 4 hilabete hauetako aldea ain da nabarmena, non azkenean, urte osoa kontuan hartzean, Donostia/San Sebastianeko turista kopurua (719.959, turista guztien%34,1%), Bilbokoa baino handiago den (709.181, %33,6).



Arabar hiriburuak Arabako Lurralde Historikoko proportzio berdinak mantentzen ditu gehien bat, Arabako turista gehienek aukeratutako norakoa, Vitoria/Gasteiz hiria delako.

Norako guztietan abuztua da turista zenbaki handiena pilatzen dituen hilabetea, Vitoria/Gasteizen ezik, honek uztailan lortzen baitu bere maximoa, 32.596 turistekin. Bilbok 111.861 turista biltzen ditu. Donostia/San Sebastianek 141.140, Euskal kostaldeak 73.392 eta Barnealdeak 34.330. Arabar Errioxan egindako inkestek ez dute oinarri egonkor bat ematen hilabete gehienetan, fidagarritasuna nahikoa duen azterketa bat egiteko modukoa ez behintzat, gainera lehenago aipatu den bezala bidaiari hauek erakartzeko dagoen zailtasun handia dago.

Turista kopuru gutxien dauden hilabeteak norako bakoitzeko hauek dira: Vitoria/Gasteiz-entzat azaroa 3.879rekin, Bilborentzat urtarrila 30.697, Donostia/San Sebastian-entzat urtarrila 28.644rekin, Euskal Kostaldearentza azaroa 12.471rekin, Barnealdearentzat azaroa 6.024 turista atzerritarrekin.



2.8.- Euskadira etortzen diren turistak sarbidearen arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2010 -2014

Sarrera turistikoen bereizgarri nagusia, 2011ko errepide bidezko turisten berreskuraketa izan da aurreko urtearekin alderatuz, ia 350.000 turista lortuz (%37,1), 2012ko 22.000 turisten hazkundea gehituz (%1,8), 2013ko 134.000koa (%10,9) eta hau dena aurtengo 73.000 turistako hazkundeari gehituz (%5,4).

Azken urteetako gorakada honek, munduko krisi ekonomikoak eragindako merkatu turistikoaren uzkurdurari balazta jartzen dio eta Euskal ekonomi turistikoari bultzada bat ematen dio.

Aire bidez, sektorearen berreskuraketa beranduago iritsi da, zehazki 2012. urtean lehen aldiz lortutako emaitzak joera aldaketa bat dakarte, aurreko urteekin alderatuz, 2008ko balioak gainditu. 2011ean aire bidezko turistak, oraindik %6,3 bat uzkurtu ziren (ia 30 mila turista) 2010arekin alderatuz. 2012an, joeraren aldaketak 50.500eko turisten igoera bat ekarri zuen (%11,2), 2013an gertatutako 41.500 turistako (%8,3) hazkundeak jarraituz eta aurten da joera honen egiaztapena suposatzen duena, aire bidezko 114.243 turisten gehiagorekin aurreko urtean baino (%21,1).

Itsas bidea, aurten turisten %0,9a suposatzen duena, 2013arekin alderatuz %4,3 jeitsi da, nahiz eta 2010eko balioetatik oso urrun egon oraindik, 40.500 turista itsas bidetik sartzen ziren urtea.



Lehengo urtearen aldera, turisten gorakada, hiru bide ezberdinetako turistei zor zaiena, baina batez ere errepide bidezkoei, 2014ko hazkundea bi sarbide nagusiei zor zaie (errepidea eta aireportua), bereziki aire bideari, balio absolutoetan errepidea baino handiagoa dena (aire bidez 114 mila turistetako hazkundea, errepideko 74 mila turisten aurrean).



Azken urteetan bezala, sarbidearen araberako turisten pisuen erlazioa, errepidearen alde desorekatzen ari da. Errepide bidezko sarbidea bisita turistikoen %68,1ren arduraduna da.

Estatuan turistek erabiltzen dituzten sarbideak, Euskadikoen krontrakoak dira. Estatuan turisten %80,2a aire bidez etortzen da eta azken bost urteetan proportzio berdinean egiten dute, %77,2tik 2013an lortutako maximora (%80,6).Estatuan errepide bidezko sarbidea aukeratzen duten turisten portzentaiak ez du %20 a gainditzen, eta aurten konkretuki %18,5era jeisten da.

Itsasontzi bidezko sarbidea aukeratzen duten turisten pisua antzekoa da Euskadin eta Estatuan, bi kasuetan %3aren azpitik mantentzen delarik azken urteetan. Estatuan sarbide mota honek azken lau urteetan beherakoko joera bat darama, Euskadin ordea, 2013an igoera txiki bat aurkeztu du, azken urteetan eta aurten ez bezala.

2.9.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2010 -2014

Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren arabera, 11 estatutan bildu dira, aurten da azkeneko bost urteetan lehen aldiz denek gorakada bat jasan dutena. Harritzekoa da Estatuko turisten artean berdina gertatzea.

Euskadi bisitatzen duten turisten erdia baino gehiago merkatu frantsesak biltzen du, konkretuki %52,8, hau da, Euskadi bisitatzen duten 2 turistetatik bat Frantziako biztanlea da. Merkatu honen ibilbidea azken bost urteetan hazkunde jarraitu batena izan da, 2011ean hazkunde handi batekin ia bikoiztuz. 2014ean, interurteko hazkundea %3,9koa izan da.

Euskadin garrantzian bigarren merkatua Gainerako Europako merkatua da. Postu hau 2010 eta 2012 urteetan ere mantendu du. 2011ean merkatu alemaniarraren alde galdu zuen eta 2013an britaniarraren alde. Garrantzian bigarren merkatua izanda ere, lehenengoarekin aldea ikaragarria da (156.744 1.113.857 turisten aurrean, zazpirena). Merkatu honek ezin izan du 2010etik ibilbide jarraitu bat markatu, 2011ean izandako beherakada dela eta.



2014ean, rankingean hirugarren postua Erresuma Batuarentzat da, turisten %7,1 irudikatzen du. Merkatu honek Gainerako Europaren merkatuak jarraitzen duen ibilbide berdina marrazten du, 2011ean beherakada batekin. 2013an bere interurteko hazkunde handiena lortzen du, %22,4 eta azken urte hontan hazkunde hau mantentzen du %7 batekin. 2010 eta 2011 urteetan hirugarren postu hontan mantendu da, 2012an laugarrenera pasaz eta 2013an bigarrena lortuz.

Aurten garrantzian laugarren merkatua alemaniarrek lortzen dute 131.827 turistekin, turista guztien %6,2. Gorakako joera hau, 2012ko beherakadak moztu zuen, nahiz eta 2013 eta 2014ean berreskuratu den.

Aurtengo interurteko hazkundea %2,1ekoa izan da. Aurten bezala 2010 eta 2014ean merkatuen rankingean laugarren postua zuen eta 2011ean bigarren posturaino heldu zen, 2012an hirugarrenera jeitsi zelarik.



Merkatu europearrak, aurten, turisten %84a irudikatzen du (aurreko urtean baino 2 puntu gutxiago eta %7,2ko hazkunde batekin), Ipar Amerikarrak %3,7, %5,1eko hazkunde batekin, Iberoamerikarrak %5,5, %8,6ko interurteko hazkunde batekin eta Munduko gainontzeko herrialdeek %6,2, 2013rekin alderatuz %6,6ko hazkunde batekin.

Aurten eman dira hazkunde handienak, merkatu holandarrari %37,5 batekin eta belgikarrari %31,2 batekin dagozkionak.



Estatuan ez dago herrialderik urteetan zehar aldaketa handiak jasan dituena. Estatuko rankingeko lehenengo sei herrialdeek, azken bost urteetan ez dute beren egoera aldatu, merkatu frantsesak eta alemaniarrak ezik, azken urtean lekualdaketa bat egin dutenak, merkatu frantsesak hirugarren postua lortuz eta alemaniarra laugarren postura bidaliz.

Estatuko lehenengo merkatua britaniarra da, aurtengo turisten %23,2arekin. Bigarren postuan Gainerako Europako merkatua dago %19,3rekin. Hirugarren postuan, aipatu den bezala orain arte alemaniarra zena, baina aurten frantsesari bere postua utzi diona, %16,2 bat dauka, alemaniarra laugarren postura jeitsiz eta Estatuko turisten %%16,1a irudikatuz. Bostgarren postuan azken bost urteetan merkatu italiarra egon da, auten %5,7 batekin, eta seigarren postuan azken urteetan merkatu holandarra dago, turisten %4,3arekin. Sei merkatu hauek, Estatuko turisten %84a irudikatzen dute.

Gainontzeko bost merkatuak, nahiz eta azken urteetan antzeko proportzioak izan, beraien artean lekualdaketak egiten joan dira, Ipar Ameriketako turistek ezik, azkeneko postuan mantendu direnak, eta aurten Estatuko turisten %1,8a irudikatzen dutenak.

Ikusi ahal izan dugun bezala, Estatuan herrialde ezberdinetako turisten arteko aldeak ez dira oso handiak, Euskadin ez bezala, non merkatu frantsesak beste merkatuekiko daukan alde ikaragarria aurkitzen dugun.

2.10.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta sarbidearen arabera. 2014. urtea

Atzerriko eskaera turistikoaren errepide bidezko nagusitasuna, distantzia motz eta erdiko turismoaren (frantses eta portugaldar merkatuak) mendekotasunak markatua dago. Jatorri frantsesak eskaera guztiaren %52,8 zehazten du, 1.114.000 turista gutxi gorabehera. Merkatu hontatik, 1.089.028 turista frantses errepide bidez datoz, hau da merkatu frantsesaren %97,8 batekin, errepide bidez sartzen den turismoaren %75,9arekin eta Euskadiko turisten %48,4arekin bat egiten du.

Errepide bidez datozen turista frantsesen kolektibo hau, duen garrantzia ez ezik, azken urtean %3,2 bat hazi da.

Merkatu portugaldarrak, nahiz eta garrantzi gutxiagoko merkatua izan, 75.173 turista urtean, Euskadin sartzeko errepidearen erabilerarako joera handi bat aurkezten du.

Merkatu holandarra, aurrekoekin batera, turisten %56,5 lurreko bidearen erabileraren nagusitasunagatik bereizten da.

Aipagarria da, errepide bidez datozen holandarren multzoaren interurteko hazkundea, %22koa eta portugaldarren %16,5ekoa. Alemaniarrak eta munduko beste herrialdeetakoak dira, frantsesen eta portugaldarren atzetik, sarbide mota hau erabiltzen dutenak, alemaniarrak aurreko urtearekin alderatuz %12,6 bat hazi direlarik eta munduko beste herrialdetako turistak %18,4 igo dira. Errepide bidez Euskadira datorren turista portugaldar bakoitzeko, 16 frantsesek baino gehiagok egiten dute, Munduko Gainontzeko herrialdeetako turista bakoitzeko 20 frantsesek egiten dute eta turista alemaniar bakoitzeko (ranking-ean laugarrenak direnak), 25 frantsesek baina gehiagok.

Aitzitik, aire bidez, urrunagoko herrialdeetakoak nabarmentzen dira, eta Bilboko nazioarteko aireportuarekin puntuz puntuko konexioak dituzten herrialdetakoak. Lehenengo postuan, Europako gainerako herrialdeetako turistek osatzen duten kolektiboa aurkitzen da (117.524), ondoren Erresuma Batukoak (102.060) eta Iberoamerikarrak (94.391). Kolektibo hauek azken urtean, %27,1, %1,9 eta %83,4 hazi dira hurrenez hurren.



Aire bidezko interurteko hazkunde handiena jasan duen merkatua italiarra izan da, %86,2 turistekin.

Itsas bideko sarbideari buruz, sarbide hau aukeratzen duten 18.842 turistetatik, Erresuma Batuko turistak dira gehien bat sarbide mota hau erabiltzen dutenak, 2014an 12.222 bidaiari lortuaz (lehengo urtean baino %15,9 gutxiago), beste jatorriak sarbide mota honetan ez direlarik esanguratsuak. Egoera hau, Bilbao Portsmouth ibilbidea egiten duen, Brittany Ferries konpainiako ferriari zor zaio.

Beste kontinente batzuetatik errepide bidez sartutako turistak, bidai interkontinentala hegazkinez egin dutelako gertatzen da, eta gero Espainiako muga errepide bidez zeharkatu dute. Adibidez, amerikar bat, EEUU-tan hegazkin bat hartu duena Alemaniara, eta beste hegaldi bat Alemaniatik Biarritzera. Gero Biarritzetik Euskadira etorri dena kotxez edo autobusez, errepide bidezko sarbidea erabili duen turista amerikarra bezala sailkatuta agertuko litzateke.

2.11. Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta egonaldiaren iraupenaren arabera. 2014. urtea.

Euskadira etortzen dien turisten erdiak, frantsesak (%47,2), egun bakarreko egonaldiak egiten dituzte bakarrik (525.744), eta beste erdiak, heren batek, 2 edo 3 gauko egonaldiak egiten ditu (405.052), hau da, turista frantsesen %83,6ak mota honetako egonaldiak egiten ditu.

4 eta 7 egun arteko egonaldiak egiten dituzten frantsesak, %14,0 bat direnak (155.609), eta aste bateko egonaldia gainditzen dutenak 27.452 dira.

Frantsesen interurteko hazkundeak, egonaldiaen iraupenaren arabera, beherakada ia hautemanezin bat jasan du, %0,2 ostatu-gau bat egiten dutenen artean. Bitik hirura egiten dituztenak %6,9eko hazkunde bat jasan dute. 4tik 7ra bitartekoak modu aipagarri batean igotzen dira %21,2 era honetan, 8tik 15erakoek galtzen duten % 32,5a konpentsatuz. 16tik 30 ostatu-gau bitarte egiten dituzten turistak, 2012an %68,5ko hazkunde ikaragarri batekin harritu ondoren, 2013an %26,9 bat atzera egiten zuten eta orain, 2014an, %6,6 bat berreskuratzen dute. Hilabete bateko egonaldia gainditzen duten turistak (1.499) %3,6ko hazkunde txiki bat jasan dute.

Euskadiko turismoan turista frantsesek daukaten jokaera aztertu eta gero, daukaten garrantzia dela eta, aipatzekoak dira baita ere turista portugaldarrak, gainerako herrialdeetako turistek duten jokaera iraunkorretik aldentzen direnak.



Portugaleko turistak %70,5 batean gau bakarreko egonaldiak egiten dituzte (52.971 pertsona). Bitik hirura eta lautik zazpirako egonaldiak pisua galtzen dute gainontzeko herrialdeen jokaeraren antzera. Zortzitik hamabostera eta hilabetea baino gehiagoko egonaldiak, ia desagertu egiten dira, aldiz, 16tik 30era bitarteko egonaldiak, nabarmenki igotzen dira gainontzeko herrialdeen proportzioen aurrean.

	GUZTIRA/ TOTAL	Frantzia / Francia	Erresuma Batua / Reino Unido	Alemania / Alemania	Italia / Italia	Portugal / Portugal	Belgika / Bélgica	Holanda / Holanda	Europako gainerakoak / Resto de Europa	Iberoamerika / Iberoamérica	Ipar Amerika / América del Norte	Beste herrialde batzuk / Otros países
GUZTIRA/TOTAL	**2.109.634**	**1.113.857**	**150.154**	**131.827**	**65.812**	**75.173**	**42.920**	**47.710**	**156.744**	**116.837**	**78.329**	**130.271**
Gau batean / Una noche	**786.318**	525.744	36.226	32.380	11.470	52.971	11.326	10.840	30.732	20.959	18.951	34.718
2 - 3 gau / Entre 2 y 3 noches	**794.808**	405.052	54.076	43.603	31.566	11.928	14.981	17.114	59.608	58.248	41.805	56.825
4 - 7 gau / Entre 4 y 7 noches	**385.835**	155.609	43.369	36.262	17.439	5.906	12.059	13.247	41.955	20.162	13.106	26.722
8 -15 gau / Entre 8 y 15 noches	**93.467**	21.239	12.072	13.897	4.561	691	2.339	4.287	16.050	9.711	1.654	6.967
16 - 30 gau / Entre 16 y 30 noches	**34.154**	4.715	1.584	3.956	757	3.676	1.903	1.618	5.679	4.510	1.652	4.105
30 gau baino gehiago / Más de 30 noches	**15.052**	1.499	2.826	1.729	ee/ns	ee/ns	311	604	2.721	3.247	1.161	935

ee/ns eraginik ez / no significativo

Bestalde, 3.247 turista iberoamerikarrak aipagarriak dira eta 2.826 turista britaniarrak ere, eta 2.721 Gainerako Europako turistak, hilabete bat baino gehiagoko egonaldiak egiten dituztenak.

Bizileku ezberdinen arabera, egonaldi turistikoen iraupenari buruz emandako interurteko aldaketetan, aldaketa handiak jasan dituzten kolektiboak aurkitzen dira, bai hazten bai txikiagotzen, %50a baino gehiagoko protzentaietan.

%50etik gora hazi diren, ostatu-gau bat egiten duten turisten artean hauek aurkitzen dira: turista belgikarrak %67,5, holandarrak %61, iberoamerikarrak %212,7 eta Munduko beste Herrialdeetakoak %60,3.

2tik 3ra bitarteko ostatu-gau egiten dituzten turista bakarrak, aurten nabarmenki hazi direnak, iberoamerikarrak dira, %105,0ko hazkundearekin.

8tik 15era bitarteko ostatu gau egiten dituztenen artean, turista alemaniarrak aurkitzen dira %57,2ko hazkunde batekin, berriz ere iberoamerikarrak %124ko hazkunde batekin eta Ipar Ameriketako biztanleak, kasu hontan %56,8 beherakada bat jasan dutenak.

Erresuma Batuko biztanleek, 16tik 30 bitarteko ostatu-gauko egonaldietan, bere bolumena %55,5 batean jeitsi dute, Belgikako biztanleek ordea, %51,7 bat igo dute. Gainerako Europako biztanleek %56,9 eta modu ikusgarri batean holandarrak %%547,9 batean hazi dira.

Hilabete baino gehiagoko egonaldietan, britaniarrak %261,5 garrantzitsu batean igo dira, Gainerako Europakoak %79,2 batean eta Munduko gainontzeko Herrialdeakoak %56,1ean jeitsi dira.

2.12.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta erabilitako ostatu motaren arabera. 2014. urtea

Berriz ere, erabilitako ostatu motaren arabera, nahiz eta frantsesek aukeratutako ostatu mota batzuen banaketan pisu portzentuala txikia izan, balio absolutoetan, kasu guztietan, ostatu mota bakoitzeko turista gehien ekartzen dituztenak dira, beste merkatuekin alderatuz.

	GUZTIRA/ TOTAL	Frantzia / Francia	Erresuma Batua / Reino Unido	Alemania / Alemania	Italia / Italia	Portugal / Portugal	Belgika / Bélgica	Holanda / Holanda	Europako gainerakoak / Resto de Europa	Iberoamerika / Iberoamérica	Ipar Amerika / América del Norte	Beste herrialde batzuk / Otros países
GUZTIRA/TOTAL	**2.109.634**	**1.113.857**	**150.154**	**131.827**	**65.812**	**75.173**	**42.920**	**47.710**	**156.744**	**116.837**	**78.329**	**130.271**
Hotelak edo antzekoak/ Hoteles o similares	**1.258.690**	577.672	89.245	79.074	45.001	53.622	25.813	22.197	105.297	87.356	62.863	110.550
Ezaugarriko etxebizitza/ Vivienda en propiedad	**23.461**	10.314	2.047	1.486	256	1.370	1.439	676	3.300	906	394	1.272
Etxebizitza alokairuan/ Vivienda alquilada	**108.545**	41.127	13.836	8.314	2.900	4.142	1.455	4.334	13.959	8.189	5.480	4.810
Etxebizitza senideak, lagunak/ Alojamiento familiares, amigos	**305.094**	162.610	31.595	24.499	10.481	3.680	4.458	6.834	24.694	18.678	7.466	10.099
Kanpin/ Camping	**214.252**	155.861	7.358	13.327	5.084	8.252	6.889	11.673	4.751	182	295	581
Beste alojamendu batzuk/ Otros alojamientos	**199.593**	166.272	6.073	5.127	2.090	4.107	2.867	1.996	4.742	1.527	1.832	2.960

Horregatik, hoteletan edo antzekoetan ostatu hartzen duten frantsesen %45,9 a, 577.672 turista dira, garrantzian bigarrenak diren gainerako munduko turisten zenbakia baina bost aldiz gehiago, hauek 111.000 turistak gainditzen ez dituztelarik. Berezko etxebizitzak erabiltzen dituzten frantsesak %0,9 dira (10.314), hurrengoak hirukoiztuz, Gainerako Europakoak, 3.300 direnak. Alokairuzko etxebizitza, %3,7 batekin (41.127 turista), Gianerako Europakoak eta ingelesak hirukoizten dituelarik. Familia edo lagunen ostatu mota 162.610 frantsesek erabiltzen dute (%14,6), hurrengo merkatukoak baino 5 aldiz gehiago, Erresuma Batua. Kanpinetan ostatu hartzen duten frantsesak 155.861 dira (%14,0), hurrengoak baina 12 aldiz gehiago, alemaniarrak, 13.327 turista. Azkenik, beste ostatu motak erabiltzen dituzten frantsesak (166.272), %14,9, hurrengoak 27 aldiz baino gehiagotan gainditzen dituzte, britaniarrak, 6.073 turistekin.

Frantziako merkatutik datozen turisten interurteko aldaketa hotel eta antzekoen erabileran 2013tik hazi egin da %10,1 batean, alokairuzko etxebizitzarena %68,5 batean eta kanpinarena %2,1 batean. Berezko etxebizitzaren erabilera ostatu bezala, azken urtean %30,7 bat jeitsi da, familia edo lagunen etxebizitzena %12 bat erori da eta beste motako ostatuena era turista frantsesen artean %2,3 bat jeitsi da ere.



Frantzia ez den herrialdetan bizi diren gainontzeko turisten artean, hotela da baita ere ostatu mota nagusia, pisu desberdinekin, holandarren %46,5tik gainerako munduko herrialdeen%84,9raino. Beste kontinenteetako herrialdeetatik datozen turistak ez dute ez kanpina, ez berezko etxebizitza, ostatu mota bezala erabiltzen eta hotela proportzio handiagoan erabiltzen dute, familia eta lagunen etxebizitzak eta alokairuzko etxebizitzak jarraituz.

Erabilitako ostatu motaren arabera jokaera ezberdin bat erakusten duten turistak, holandarrak dira, hotela proportzio txikiagoan erabiltzen dutelarik kanpinaren alde nagusiki, familia eta lagunen etxebizitzen alde ere, eta alokairuzko etxebizitzen alde proportzio txikiago batean. Azken urte hauetan errepikatzen doan joera honek holandar merkatuaren jokabide berezia adierazten du.

Azken urtean igo diren bakarrak hotel eta antzekoetan ostatu hartzen duten turistak izan dira, beren jatorrizko herrialdea edozein izanda ere. Iberoamerikar merkatuak izan du aldaketa handiena ostatu mota hontan, %139,9 hazi delarik.

Berezko etxebizitza %195,5 batean igo da Munduko Beste herrialdeetako turisten artean, %111,1 Portugaldarren artean eta %101,3 Gainerako Europakoen artean. Beherakada handiean, Erresuma Batuko turistek jasan dute, %50,1.

Alokairuzko etxebizitza Gainerako Europako turisten artean %104,1 igo da, %86,9 Iberoamerikarren artean, %58,8 alemaniarren artean eta %34,4 Erresuma Batukoen artean. Ostatu mota hau kasu guztietan %20tik behera jeitsi da, Italiako, Portugaleko eta Munduko Beste Herrialdeetako turistetan.

Familia eta lagunen etxebizitzetan ostatu hartzea holandarren artean %67,3ko maximo bat igo da, eta Belgikarren artean beherakada handiena gertatu da %30,1ekin.

Kanpinaren erabilera Munduko Beste Herrialdeko turisten artean igo da gehien, %370,6 iparamerikarren artean %162,1 igo da eta belgikarren artean %52,3, eta beherakada handienak italiarrak %21,7rekin eta alemaniarrak %20,1ekin, jasan dituzte.

Azkenik, beste ostatu moten erabilera Iberoamerikarren artean %104 igo da, belgikarren artean %57,5 eta Ipar Amerikakoen artean %56,2. Beherakada handienak Erresuma Batukoetan, %33,8 eta Italiarretan, %23,2, gertatu dira.

2.13.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta bidaiaren antolaketaren arabera. 2014. urtea.

Pakete turistikoa normalean errepide bidez ez datozen turistek erabiltzen duten produktua da, horregatik, Euskadi bisitatzen duen merkatu frantsesean, 3.801 turistek bakarrik erabiltzen dute, dauden 1.113.587tik.

2013an Portugaldarrak ziren pakete turistikoa gehien erabiltzen zutenak, Gainerako Europakoak eta Munduko Beste Herrialdeetakoak jarraituz. Aurten, ordea, Iberoamerikako turistek irabazi diete 26.408 turistekin. Bigarren postuan merkatu portugaldarra dago 24.392 turistekin eta hirugarrenean Munduko Beste Herrialdeetakoa (15.424).



2.14.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta norako Lurralde Historikoaren arabera. 2014. urtea

Norako Lurralde Historikoa merkatuen arabera aldatu egiten dira. Euskaditik hurbilen dauden merkatu frantseseko turistak, Arabaraino barneratzen dira eta zenbaki aipagarriekin.

Arabara etortzen diren frantsesen %11,5a, turisten 114.087 suposatzen dute, Gipuzkoan gelditzen direnak 681.034 dira eta Bizkaian ostatu-gauren bat egiten dutenak 318.200.

Arabara garrantziarekin iristen den bigarren merkatua alemaniarra da, 14.966 turistekin, eta ingelesek oso gertutik jarraitzen diete 10.475 turistekin.



Frantziatik eta munduko beste herrialdeetatik datozen turistak, Gipuzkoa aukeratzen dute gehein bat. Erresuma Batua, Alemania, Italia, Portugal, Belgika, Holanda, gainerako Europa, Iberoamerika eta Ipar Amerikakoak ordea, Bizkaia nahiago dute.

2.15.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta norako turistikoaren arabera. 2014. urtea

Norako turistikoen sorta handitzean, ikusi daiteke, turista frantses gehienak Donostia/San Sebastian aukeratzen dutela norako nagusi bezala (390.237), Euskal Kostaldea osatzen duten herriek jarraituz (256.922), hauen artean, Hondarribia, Zarautz, Getaria eta Zumaiak etorkin gehienak dituztenak direlarik. Hirugarren postuan Bilbo dago 222.296 turistekin, eta gero Euskadiko barnealdeko herriak 135.012 turistekin. Vitoria/Gasteiz 102.451ekin kokatzen da eta azkenik Arabar Errioxakoak 5.453 turistekin.

Norako turistiko bakoitzeko turista bolumena ezagutzeak duen garrantzia dela eta, merkatu banaketako grafika bat aurkezten da, norako turistiko ezberdinetara datozen merkatu ezberdineko turisten balio absolutoekin. Grafika honetan, merkatu frantsesa ezabatu da, bere tamaina handiak ez baitzuen gainontzeko norakoen datuak zehazki ikusten uzten.





2.16.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2010 – 2014

2014ko turismoaren zati handiena, %69,3, aisian oinarritutako ereduekin sartzen da Euskadira (1.462.468 turista). Gainerakoak, lana eta arrazoi pertsonalen artean banatzen dira. Kinada nagusi hauetaz gain, Euskadira etortzeko motibazioak gutxi dira.



Merkatu turistikoaren berreskuraketa, oporraldietan eta aisian oinarritua dago gehien bat. Aurten lehengo urtean baino 149.092 turista gehiago etorri dira arrazoi hau dela medio, interurteko %11,4ko hazkunde bat eraginez.

Lanagatiko arrazoiak, Euskadira etortzen diren turisten %12, 20.438 turistetan igo dira, aurten joera aldatuz %8,8. Ikasketengatik egiten dutenak %2 dira 42.930 turistekin, aurreko urtean baino 15.015 gehiago, honek %53,8ko berreskuratze bat suposatzen duelarik. Arrazoi pertsonalak turisten %12,3k adierazten dituzte (259.816), 2013rekin alderatuz 2.975 jeitsi dira, %1,1. Azkenik, turisten %4,3ak, beste arrazoiengatik etortzen dira, eta hauek ere 5.509 bidaiaritan igo dira, aurreko urtean baino %6,4 gehiago.



Bai Estatuan bai Euskadin, arrazoiaren araberako eskaera turistikoak antzeko eredu bat mantentzen du, aisiaren arrazoia delarik nagusia. Euskadin aisiaren arrazoiak %69 gainditzen badu, Estatuan arrazoi hau garrantzitsuagoa da oraindik, bisita turistikoen %86 batekin.

Oporraldi edo aisiko arrazoi honek, azken urteetan Euskadin jokaera aldakor bat dauka, 2012ko beherakada kenduta, baina turisten balio absolutoei begira, urtero gorakako ibilbide bat dauka, Estatuan bezala, non arrazoi honengatik datozen turistak urtetik urtera gora egiten duten, nahiz eta aurten, banaketa terminoetan 2

dezima portzentuak galdu. Estatuak aisiaren arrazoierako joera izugarri bat erakusten du, eta hau eskaera turistiko konkretu batzuen islada baino ez da, hau da, eguzkia eta hondartzan oinarritutakoak, Euskal Herriaren kasuan indar gutxiago dutenak, bai azpiegitura faltagatik bai klimagatik.

Tradizionalki, Euskadira zetorren turismoaren artean salerosketen arrazoiak duen pisua garrantzitsua zen, eskaera turistikoaren zati garrantzitsu bat bideratuz. Gaur egun, nazioarteko krisi ekonomiko dela eta oraindik, honen pisua egonaldi turistikoen %12,0ean kokatzen da, aurreko eragiketa baino dezima bat gutxiago suposatzen duena, eta Estatuan daukan eraginaren bikoitza. Ezberdintasuna hau, euskal industriaren bizitasunaren eragina da alde batetik eta beste alde batetik, aisia, eguzkia eta hondartzako eskaera masiboko modelo faltagatik.

Bisita pertsonalen modeloekin antzekoa gertatzen da. Euskadik osasun aisiko eskaera bat dauka bizitasuna hartzen ari dena, eta ohiko bezeroak finkatzen dituena. Gainera, bere mugako egoerak eta mugimenduen joera iragazkor eta ia eskualdekoak, arrazoi pertsonalengatik etortzen diren fluxu turistikoak azaltzen ditu, Euskadin Espainian arrazoi honek duen pisua ia lau aldiz handiagoa delarik. Hala ere, salerosketen arrazoiarekin gertatzen den moduan, pisu erlatibo handi honek zer ikusia dauka aisi modelo masiboen faltarekin.

Euskadiko eskaera turistikoak ez bezala, Estatukoak azken urteetan, iraunkor mantendu du bere eskaeraren motibazio egitura.

2.17.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta sarbidearen arabera. 2014. urtea

Euskadira etortzen diren atzerriko turistak bidaiaren arrazoiarengatik eta sarbidearengatik aztertuz, antzeman daiteke turistek, ikasketen arrazoia kenduta, edozein dela arrazoia, nahiago dutela lur bidea norakora joateko era bezala.

Zehatzago aztertuz arrazoiak lana edo salerosketak direnean, aire bideak indar gehiago hartzen duela esan daiteke, lur bidearen erabileraren gehiengoaren aurrean, baina noski, gainditu gabe, 27.783 turistako aldea dutelarik (139.963 errepide bidez eta 112.090 aireportu bidez).

Ikasketaren arrazoiarengatik errepide bidez datozen turistak, aurten %39,7 bat igo dira, 21.333 turistara iritsiz. Aire bidez etortzen direnak, %70,6 baino gehiagoko gorakada bat jasan dute (errepidearen bikoitza ia), 21.417 turistetara iritsiz.

Aire bidean, arrazoi pertsonalak %28,0 bat igo dira aurreko urtearekin konparatuz, ia 77.500era iritsiz, hala ere, zenbaki hau errepidea erabiltzen dutenena baina askoz txikiagoa da, 182.000 turista oraindik ere errepidea erabiltzen baitute, %9,8 jeitsi diren arren.



Beste arrazoiengatik, arrazoi pertsonalengatik turistek daukaten jokaera oso antzerakoa da, baina sarbide desberdinen arteko ezberdintasunak handiagoak dira (65.679 errepide bidez eta 25.537 aire bidez), errepideak %15,2 galdu eta gero eta aire bideak %215,9 turista irabazi eta gero.

Itsas bidea erabiltzen duten turisten %90,3a, oporraldi eta aisiaren arrazoiengatik egiten dute, %2,9 jeitsiz. Aisiaren arrazoi honek interurteko %17,3ko hazkunde bat jasan du, aire bidezko turistetan, eta %9,4ko gorakada bat errepide bidezkoetan, hala ere, azken hauek, aire bidezkoek baina 608.881 turista gehiagoko saldoa mantenduz azken urteetan.

2.18.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta bizilekuaren arabera. 2014. urtea

Turistak bidaltzen dituzten merkatuetan arrazoi ezberdinak duten pisua aztertzeko, berriz ere, merkatu frantsesa banatzen da, ain handia izanik, beste merkatuen azterketa nahasten baitu.

Ikus daitekeen bezala, aisiaren arrazoiak turista frantsesen %68,9a biltzen du, interurteroko igoera %9,2koa delarik. Euskadi arrazoi pertsonalengatik 175.012 frantsesek bisitatzen dute, frantses guztien %15,7 a, aurten %10,5 bat jeitsiz. Hirugarren postuan lanaren arrazoia dago, frantsesen %9,4 ekartzen dituelarik, 2013rekin konparatuz %3,3 igo dena.



Ikasketen arrazoia, Euskal Herrira turista frantsesak ekartzen dtuen arrazoik baxuena da. %1,4 irudikatzen du eta bere interurteko aldaketa %59,6ko igoera batean dago.

Aurrekoetan ez bildutako gainerako arrazoiak %4,5 bat irudikatzen dute, inteurteko %18,1eko beherakada bat ekartzen dutelarik.

Merkatu guztien ezaugarri nagusia, aisiaren arrazoiaren bolumen handia da, beste arrazoiekin alderatuz, kasu batzuetan arrazoi pertsonalengatik eta lanaren arrazoiarengatik etortzen diren kolektibo garrantzitsu bat atzean dutelarik. Gainontzeko arrazoaik ez dira esanguratsuak inongo merkatuetan.

Erresuma batuko turisten %72,9ak, Euskadi aisia eta oporrengatik etortzen da eta %12,7 arrazoi pertsonalengatik eta %10,3 lanagatik. Lehenengoen interurteko hazkundea %6,1koa izan da, %17,5 bat arrazoi pertsonalena eta lanarena %4,7. Ikasketen arrazoiagatik, turista ingelesak %0,9 bat bakarrik irudikatzen dute, nahiz eta azken urtean %115,2 igo diren. Kolektibo hontako beste arrazoiak, turista britaniarren %3,1 irudikatzen dutenak, %13,5eko beherakada bat jasan dute.

Alemaniarrak arrazoi nagusien artean desberdintasunak gutxitzeko joera nabarmentzen dute, aisiagatik %61,4 a eta lanagatik %22,5a datozelarik. Aisia %2,9 bat igo da eta lanaren arrazoia, aldiz, %10,6 jeitsi da.

Merkatu portugaldarrak ere desberdintasunak gehiago gutxitzen ditu, aisiak turisten %60,1 irudikatzen duelarik eta lanak %25,5. Aldaketei begira, aisia %16 igotzen da eta lana %34,9 bat.



Aurreko merkatuak eta Gainerako Europakoak, Iberoamerikarrak, Ipar Amerikarrak eta Gainerako Munduak, turista gehienak ekartzen dituztenak dira. Gainerako Europakoen kasuan, aisiarenak %61,2 suposatzen dute eta lanarenak %23,5 eta kolektibo honetan gainera interurteko hazkundea positiboa izan da aisiarentzat (%8,3) eta lanarentzat (%25,3). Merkatu iberoamerikarrean, turisten %68,8ak aisiagatik bidaiatzen du eta %7,1ek lanagatik. Bi arrazoi hauetan interurteko hazkundea, aisiagatik (%92,2) eta lanagatik (%7,6) etortzen diren turisten hazkunde handiak definitzen du. Iparamerikarrak %77,1 aisiagatik egitea aitortzen du eta %5,1ek lanagatik. Bi kasuetan, interurteko hazkundea negatiboa izan da, aisia %2,2 batean jeitsiz eta lana %10,6. Munduko beste herrialdeetatik aisiagatik datozen turistak % 81,8 dira, eta lanagatik datozenak %11,8. Kasu honetan interurteko aldaketak positiboak dira (%4,0 eta %35,5 hurrenez hurren).

2.19.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta ostatu motaren arabera. 2014. urtea

Bidaiaren arrazoiaren eta ostatu motaren arteko erlazioak, arrazoi ezberdinekin lotutako jokaera bereizgarriak erakusten ditu.

Aisia eta oporrengatik etortzen diren turistak, erdiak baina gehiagok, hotela erabiltzen dute, kanpinak jarraituz, familia eta lagunena gero, eta pisu gutxiagorekin alokairuzko eta berezko etxebizitzak



Lanagatik bidaiatzen dutenek hotela aukeratzen dute orokorrean.

Ikasketengatik datozen turistak alokairuzko etxebizitzak aukeratzen dituzte, hotelak eta beste ostatu motak jarrian daudelarik. Ezberdintasuna honek, egonaldiaren iraupenarekin dauka zer ikusia. Egonaldi laburretan ikasleek hotela aukeratzen dute eta egonaldia gora doan ahala, ostatu mota alokairuzko etxebizitza izan ohi da.

Arrazoi pertsonalengatik etortzen direnen artean, familia eta lagunen etxeetan ostatu hartzea da erabiltzen den ostatu mota nagusiena. Kontuan hartu behar da, zerbitzu pertsonalen epigrafean familia eta lagunei bisitak barneratuta daudela. Bigarren aukera bezala hotelak aukeratzen dituzte eta hurrengoak beste ostatu motak dira.

Besteetan barneratuta ez dagoen arrazoiren bat adierazi duten turistek, ostatu mota bezala hotela aukeratzen dute, eta bigarren bezala besteetan barneratu gabeko beste ostatu motak aukeratzen dituzte, kanpinak jarraituz.

Beraz baieztatu daiteke, Euskadi bisitatzen duten atzerriko turistentzat, erlazio argi bat dagoela bidaiaren arrazoia eta erabilitako ostatu motaren artean.

2.20.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2010 - 2014

Atzerriko eskaera turistikoa 2014an egonaldi oso laburrek menderatzen dute, aurreko urteko proportzio berdinean ia. Ostatu-gau bateko turistak (%37,3) aurten 38.298 bidaiaritan igo dira. 2tik 3 bitarteko ostatu-gaukoak 98.155 etan igo dira ordea (%37,7), honela 2tik 3rako egonaldiek ostatu gau bateko egonaldiei irabaziz, 2009tik gertatzen ez zena. Bi egonaldi motek 136.453 turistako interurteko saldo positibo bat ekartzen dute. Aste beteko egonaldia egiten duten turistak (4tik 7 gaura) turisten %18,3 bat irudikatzen dute 42.335 turistako igoera batekin. Bestalde, aste bat baina gehiagoko egonaldia egiten duten turistek %6,8 irudikatzen dute, azken urtean 8.290 turistatan jeitsi direlarik.



1, 2 eta 3 gauko egonaldiak oso arruntak dira, asteburu pasako edo zubietakoak.

Ostatu-gau bateko egonaldiak aurreko urtearekin alderatuz %5,1 igo dira, eta azken bost urteetako ibilbideak gorakako joera bat erakusten du, 2012an gertatu zen %0,9ko beherakada txikia kenduta. 2 eta 3koak %14,1 igo dira, azken bost urteetan bezala, non urtero gora egiten joan den. Aste batekoak %12,3 igo dira, eta azken bost urteetan gorakako joera dute, bi astekoekin gertatzen den bezala, gorakako ibilbidea jarraitzen dutenak, aurten ere %8,9 igo direlarik. 16tik 30erakoaka aurten, %0,7 xume bat igo dira, 2013 jeitsi eta gero. Azkenik,

hilabete baino gehiagokoak berreskuratu egin dira aurreko urtetik %2,6 batean, 2012an beherakada bat jasan eta gero.



Turisten ostatu gauen egitura Euskadin, oso bestelakoa da Espainian atzerriko turistek erakusten dutenarekin alderatuz. Estatuan 4-7 bitarteko ostatu-gaukoak dira nagusiak, hiru egunetik gorako bisitak, azken bost urteetan, %80 suposatzen dutelarik, hauek Euskadin %26era ez dira iristen ordea.

Turisten egonaldiaren iraupenaren konparatiba egiten bada Euskadi eta Estatuaren artean, argi dago eredu turistiko oso ezberdinak dituztela. Euskal Erkidegoa gertuko inguruaren oso mendekoa da, sarbide azkarra, errepide bidezkoa, hirietako aisia, arrazoi kultural eta pertsonaletan oinarritutako eredua dauka, Espainiako eguzki eta hondartzaren bisitaria ez dagoelarik eta egonaldi behar ezberdinak eta sarbide ezberdinak dituelarik.

2014ko ostatu-gau bateko egonaldia egiten duten turistak oso pisu ezberdina dute Euskadin eta Estatuan (%37,3 eta %4,9 hurrenez hurren). 2 eta 3 gaukoak ere oso ezberdinak dira, %37,7 Euskadin eta %14,6 Estatuan. 4tik 7ra Euskadin %18,3 dira eta Estatuan %47,1, 8tik 15 ostatu-gaurako egonaldien pisua Euskadin %4,4koa da eta Estatuan %25,0. 16tik 30 gauerako zatian, Euskadin %1,6 bat daukagu eta Estatuan %5,9, eta hilabetea baino gehiagoko egonaldietan Euskadin %0,7 eta Estatuan %2,4.

2.21.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta sarbidearen arabera. 2014. urtea

Sarbidearen arabera, egonaldiaren iraupenak oso jokaera ezberdinak jarraitzen du, gorakoa batzuentzat eta beherakoa besteentzat.

Aire bidezko sarbideak lur bidezkoak baino egonaldi luzeagoak ekartzen ditu. Ostatu-gau bakarreko egonaldirik ia ez du sortzen, eta gehienak 2 eta 15 bitarteko ostatu-gauekoetan banatzen ditu. Bere bisita ohizkoenak 4 eta 7 bitarteko ostatu-gauen artean daude.

Bi aste baino gehiagoko egonaldiak, Euskadira etortzen diren atzerriko turisten %14,5 batek egiten ditu.

Bestalde, lur bidezko sarbideak patroi orokorrari egitura ematen dio, ostatu-gau bat eta hiru arteko egonaldiak nagusitzen dira, eta aste bat baino gehiagoko egonaldi gutxi sortzen dira. Konkretuki, errepide bidez datozen turisten artean ostatu-gau bat egiten dutenak 688.432 bidaiari dira, 2 eta 3 ostatu-gau bitartekoak 509.440

batzen dituzte, 4tik 7ra bitartekoak 191.661, 8tik 15era bitartekoak 32.340ra jeisten dira, 16tik 30era bitartekoak 12.387 dira soilik eta 30 ostatu-gau baina ez dira 1.800 turistetara iristen.



Aire bidez datozenak eta ostatu-gau bat egiten dutenak Euskadi bisitatzen duten turisten 89.065 dira, 2 eta 3 ostatu-gau bitartekoak maximoa lortzen dute 279.017 turistekin, 4tik 7ra bitartekoak 192.421 aire bidezko turistak gainditzu, 8tik 15era bitartekoak 59.884 turistetan jeisten dira, baina errepide bidezkoak %85 batean gainditzu. 16tik 30era bitartekoak ere errepide bidezkoak gainditzen dituzte 21.281 turistetan, %71 bat eta 30 ostatu-gau baina gehiagokoak errepide bidezkoak baino zazpi aldiz gehiago dituzte, 13.103 turistak lortuz.

Itsas bideko turistak, errepide bidezkoen jokaera antzeko bat erakusten dute (baina ia garrantzi gabeko balioekin), turisten kopurua, egonaldiaren alderantzizko proportzionala delarik, hau da, egonaldi luzeagoek, turista gutxiago ekartzen dituzte.

Itsas bideko 18.842 turistetatik, %46,8k ostatu-gau bat egiten dute eta 2tik 3ra %33,7k. %80,5 egonaldi laburrekoak.

2.22.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta ostatu motaren arabera. 2014. urtea

Egonaldi laburretan hotela da ostatu motarik erabiliena, 1 eta 3 ostatu-gau bitartekoak eta batezbestekoan 4tik 7ra bitarteko ostatu-gauekoak, (ostatu-gau batekin 452.694 turista, 2rekin 565.617 eta 4tik 7ra 205.231). Logikoa den bezala eta bere kostu altua dela eta beste ostatu moten aurrean, egonaldia luzatzen doan hala, turistek ostatu mota merkeagoak bilatzen dituzte.

4tik 7 bitarteko ostatu-gauetako egonaldietarako, hotelaren erabilera beheraka joaten hasi da, eta familia eta lagunen dohako ostatu motak eta berezko etxebizitzenak igotzen hasi dira. Hotela alokairuzko etxebizitzengatik ere aldatzen hasi dira batzuk. Hala ere beste ostatu mota hauek ez dute lortzen hotela berdintzea egonaldi mota honetan.

8tik 15 bitarteko ostatu-gau egiten dituzten turisten erdiak (%44,5) dohako ostatu moten hazkundea irudikatzen dute (berezkoak eta alokairuan), hotelen ostatu motaren beherapena eta alokairuzko etxebizitzen igoera.

Egonaldiaren iraupena gora doan einean, ostatu mota merkeagoetara lekualdaketa bat gertatzen da. 16tik 30 bitarteko egonaldietan hotelen erabilera %13etik bera aurkitzen da, famili eta lagunen etxebizitzaren erabilerari (%46,3), eta alokairuari (%26), lekua utziz.

Hilabete bat gainditzen duten egonaldietan, hotelen pisua %8,4raino jeitsi da, berezko etxebizitzak, egonaldi luzeko turisten %7,8k erabiltzen dutelarik. Alokairuzko etxebizitzen erabilera %57,4n igotzen da, eta familia eta lagunen etxebizitzena %23 batera jeisten da.



Ostatu-gau bateko egonaldietan, hotelen ostatu motan izan da interurteko aldaketa handiena egon den ostatu mota, turisten %11rekin, berezko etxebizitzetako %49 turisten beherakadaren aurrean. 2tik 3rako egonaldietan, alokairuzko etxebizitzak izan du hazkunde handiena (%50,7), eta beste ostatu motek beherakada handiena, %7,9 gutxiago. 4tik 7rako ostatu-gauetan etxebizitza pribatua nabarmentzen da berriz ere, %95,2ko hazkunde batekin, eta aurkako muturrean beste ostatu motak aurkitzen dira, %38,5eko atzerapen batekin. 8tik 15erako egonaldietan, hazkunde handiena beste ostatu motetan gertatzen da, %44,9, eta berezko etxebizitza %37,9 batean jeisten da. 16tik 30 ostatu-gauerako egonaldietan kanpina %115,2 bat igotzen da eta beste ostatu motak %55,4 jeisten dira. Hilabete baino gehiagoko egonaldietan alokairuzko etxebizitza da gehien igo dena, %45,5 eta familia eta lagunen etxebizitza %35,2 jeitsi da.

2.23.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2010 -2014

Azken urteetako joerari jarraituz, turistek hotela nahiago dute gehien bat. 2011ean ostatu mota honek hazkunde handi bat jasan zuen, 160.712 turistakoa, %21,2 bat 2010arekin alderatuz, 2013an, berriz nabarmenki igotzen da 154.333 turistarekin, da %16,5 batekin 2012arekin alderatuz eta aurten, 2014ean da hazkunde garrantzitsuena ematen den urtea, 168.236 turista gehiagorekin, 2013an baino %15,4 gehiago, 1.258.690tara iritsiz.



Alokairuzko eta berezko etxebizitzak ez dira Euskadiko turisten artean oso onartuak izaten, %5,1 eta %1,1 batekin hurrenez hurren. Egia da, modelo honetan dagoen eskaintzak ez duela bere hazkundea bultzatzen.

Garrantzian bigarren modeloa, familia eta lagunen etxebizitzen ostatu motena da, 2013an bezala, %3,8ko beherakada batekin.

Kanpina azken bost urteetan hazkunde jarraitu bat daukan ostatu mota da. Gutxinaka eta izugarrizko hazkunderik gabe, emaitza onak lortzen ari da, turistek erabilitako garrantzian hirugarren postua lortuz.

Oro har, Euskal Herriko eta Estatuko ostatu moten egituraren eskaera antzekoa da: hotelaren nagusitasuna eta leku handi bat familia eta lagunen etxebizitzen erabilerarentat. Desberdintasunen artean, Euskadiko eskaeran alokairuak duen pisu txikia, berezko etxebizitzaren aurrean eta askoz handiagoa kanpina eta beste ostatu motekin.



Azken urteetan bi inguruek ostatu motaren egitura nahiko egonkorra mantendu dute. Nahiz eta aldaketa asko ez izan, joera ebolutiboak gogokoen diren ostatu moten ezarpena dakar, batez ere hotelen azpiegituraren pisua, bi inguruetan.

2014. urte honetan, ostatu motaren banaketak Espainiara datozen atzerriko turisten artean, berezko etxebizitza, alokairuzko etxebizitzen, kanpinaren eta beste ostatu moten eskaeraren igoera bat ekartzen du, eta hotelaren eta familia eta lagunen etxebizitzen beherakada bat (nahiz eta aurten balio absolutoetan denak igo diren), eta hala ere, Euskadin, hotelak eta alokairuzko etxebizitzak ezik beste ostatu mota guztiek pisua galtzen dute (balio absolutoetan berezko etxebizitzak, familia eta lagunen etxebizitzak eta beste ostatu motak turistak galtzen dituzte).

2.24.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2010 –2014

Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren antolaketaren arabera, pakete turistiko gabe etortzen dira ia guztiak (%94,4).

Aurreko urtearekin konparatuz gertatutako eboluzioa, pakete turistikoa erabiltzen ez dutenen %8,9ko hazkunde bat isladatzen du eta erabiltzen dutenen %24,9a.

Teknologiaren erabileraren hazkundea, internetena adibidez, bidaien antolaketa pertsonalerako mesedegarria da, informazioa eta salneurri lehiakorragoak lortuz.



Antolaketaren interurteko aldaketa eazken bost urteetan iraunkor mantentzen da, pakete gabeko turistak %93,9 eta %95,1 artean mantentzen direlarik, eta pakete turistikoa antolaketa mota bezala erabiltzen duten turistak %4,9 eta %6,1 bitarte daudelarik.

Antolaketa motan egonkortasun hau Estatuko turistetan ere mantentzen da, baina Estatuan pakete turistikoa erabiltzen duten turisten proportzioa Euskadin baina handiagoa da. Pakete turistikoa erabiltzen ez duten Estatuko turisten antolaketa, azken bost urteetan %70,9tik %73,3ra aldatzen da, eta pakete turistikoa erabiltzen dutenak %26,7tik %29,1era doaz.



2.25.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren antolaketaren eta sarbidearen arabera. 2014. urtea

Bidaia antolatzeko moduak, sarbidearekin erlazioa dauka, errepide bidezko turistek pakete turistikoa ez baitute erabiltzen, pakete turistikoarekin, zerbitzu pribatuko autobusetan datozen turista gutxi batzuk kenduta.

Errepide bidez, pakete turistiko gabe bidaiatzen duten bidaiariak 1.403.061 dira, lehengo urtean baina %5,3 gehiago eta pakete turistikoarekin bidaiatzen dutenak 32.961 interurteko %8,5ko hazkunde batekin.

Aire bidez etortzen direnen artetik, 571.969 turistek pakete turistiko gabe egiten dute, interurteko %19,7ko hazkunde batekin, eta pakete turistikoarekin aurten 82.801tan igo dira, lehengo urtean baino %31,9 gehiagorekin, non %3,5 jeitsi zen, 2012arekin alderatuz.



Itsas bidean, 15.917 turistek ez dute pakete turistikoa erabiltzen eta 2.925k erabiltzen dute. Itsasontzian bidaiatzen dutenen artean, pakete gabe egiten dutenen beherakada %10,3koa da eta erabiltzen dutenena %51,8koa.

2.26.- Euskadira etortzen diren turistak, norako Lurralde Historikoaren arabera. Urteko bilakaera 2010-2014

2014ean Euskadira etorri diren turistak, Gipuzkoako Lurralde Historikoa aukeratzen dute gehien bat, %51eko kuota batera iritsiz ia. Oso gertu Bizkaia dago, %40 batekin eta distantzia handira Araba turisten %9 batekin.

2012 urtea baino aurreragoko urteetan, norakoa zehazten ez zuten turista kopuru handia zegoen, beraz ezinezkoa da urte horiekin alderaketa bat egitea, Lurraldea zehaztu ez dutenen kopurua handiegia baita.





Horregatik egin daiteken aldera konparaketa bakarra, 2012, 2013 eta 2014ko datuak biltzen ditu. Gipuzkoara etortzea erabakitzen duten turistak 2013an %13,2 igo dira, eta %12,5 aurten. Bizkaiko Lurralde Historikoan ostatu hartzea erabakitzen duten turistek bi azken urteetan gora egin dute, %5,6 2013an eta %9,3 2014ean. Arabar Lurraldeagatik erabakitzen direnak modu ezberdin batean aldatzen joan dira, 2013an %17,5 bat ioz eta 2014ean %1,0 jeitsiz.

2.27.- Euskadira etortzen diren turistak, norako Lurralde Historikoaren eta sarbidearen arabera. 2014. urtea

Ostatu-gauak Araban egiten dituzten turistak, errepide bidez etortzen dira gehien bat (139.328), interurteko %2,6ko beherakada batekin. Aire bidez egiten dutenak hiru aldiz eta erdi gutxiago dira (39.360) eta azken urtean %5,3 hazi direnak, eta itsas bidez egiten dutenak 1.374 turista dira, azken urtean %7,4 galdu dutelarik.

Gipuzkoara datozenen sarbideak, Arabara datozenen antzerako proportzioak mantentzen dituzte, baina balio kuantitatibo handiagoekin.



Errepide bidez 848.643 turista etortzen dira, aireportu bidez 227.357 eta itsasontziz 4.319. Lehenengo bi sarbideak %9,9 eta %25,0 hazi dira hurrenez hurren, eta itsasontzi bidez datozenak berriz, %30,2 jeitsi dira.

Bizkaiako Lurraldea bisitatzen dutenen sarbideak, beste bi Lurraldeen banaketa desberdina adierazten dute, bi sarbide nagusien artean ekitatiboagoa eta itsas bidean presentzi handiena daukana. Bizkaiko errepide bidezko turistek (446.994) aire bidezkoak gutxigatik gainditzen dituztelarik (387.834), eta nabarmenki itsasontzi bidez egiten dutenei (13.146). Interurteko aldaketak positiboak dira hiru sarbideetan, %0,5, %21,2 eta % 10,9 hurrenez hurren.

2.28.- Euskadira etortzen diren turistak, norako Lurralde Historikoaren eta bidaiaren arrazoiaren arabera. 2014. urtea.

Bidaiaren arrazoiak norako Lurralde Historikoarekin zer ikusia daukate.

Arabako turisten hiruren bat aisiagatik etortzen da (60.141), eta beste laurden bat (46.898), lanagatik, beste laurden bat baino gehiagok (50.962), arrazoi pertsonalengatik. Gainerako turistak (22.061) ikasketengatik eta beste arrazoigatik datozen turisten artean banatzen dira.



Gipuzkoara datozenen hiru laurden turistak (714.602), aisiagatik egiten du. Arrazoi pertsonalengatik egiten dutenak atzetik doaz %10,0 batekin eta 107.606 turistekin. Laneko arrazoiek 88.179 turistak lortzen dituzten

Bizkaian ere aisia da nagusi, (%68,6) 581.362 turistarekin, Gipuzkoan bezala. Ezberdintasun handiena lanagatik etortzen direnen multzoan dago, Bizkaian dauden 117.672 turistek Gipuzkoakak gainditzen dituzte. Arrazoi pertsonalengatik Bizkaiara 101.248 turista datozte.

Ikasketengatik datozen turisten %49,8a Bizkaiara datoz, 21.359 turista, Gipuzkoak jarraituz turisten %41,1 batekin, 17.629 turistekin eta gainontzeko 3.854 Araban.

Interurteko aldaketen gainean, aipatzekoa da aisiagatik datozen turisten kopurua Arabako Lurralde Historikoan %6,2 bat jeitsi dela, eta Gipuzkoan eta Bizkaian %14,7 eta %9,6 igo direla hurrenez hurren.

Lanaren arrazoia 2014ean, Hiru Lurraldeetan igo egin da (%9,9 Araban, %14,2 Gipuzkoan eta %4,7 Bizkaian).

Arrazoi pertsonalentzat Gipuzkoa izan da turistak igo diren Lurralde bakarra (%6,3), Arabako (%13,2) eta Bizkaiako (%1,4) beherakadaren aurrean.

Lanaren arrazoiarekin gertatzen den bezala, ikasketena ere hiru Lurraldeetan igo da (%120,9 Araban, %52,3 Gipuzkoan eta %48,4 Bizkaian).

Gipuzkoan igo ez den arrazoi bakarra, beste arrazoiak dira, %15,2ko galerarekin. Arrazoi hau Araban %24,1 igo da eta %64,8 Bizkaian.

2.29.- Euskadira etortzen diren turistak, norako Lurralde Historikoaren eta egonaldiaren iraupenaren arabera. 2014. urtea.

Ondoko grafikan eta aurreko ataletan ikusi daitekeen bezala, egonaldiaren iraupena ez dago norako Lurralde Historikoaren menpe, bidaiaren arrazoiekin zer ikusi handiagoa dauka ordea

Egiturarekiko, Bizkaia da hiru Lurraldeen artean ezberdinen, 2tik 3ra bitarteko ostatu-gau egiten dituzten turistak, gainontzeko egonaldietakoak baino gehiago direlarik.

Arabak eta Gipuzkoak, hildo bera jarraitzen dute, ostatu-gau gehiago, turista gutxiago, Bizkaian ordea, esan bezala, turista gehienak 2tik 3rako ostatu-gaueko egonaldiak egiten dituzte, 4tik 7rako egonaldietakoak gertutik jarraituz, eta ondoren beste egonaldi motak gutxiagotik gehiagora antolatuak.



	GUZTIRA/ TOTAL	Gau batean / Una noche	2 - 3 gau / Entre 2 y 3 noches	4 - 7 gau / Entre 4 y 7 noches	8 -15 gau / Entre 8 y 15 noches	16 - 30 gau / Entre 16 y 30 noches	30 gau baino gehiago / Más de 30 noches
GUZTIRA/TOTAL	**2.109.634**	**786.318**	**794.808**	**385.835**	**93.467**	**34.154**	**15.052**
Araba/Álava	**180.062**	89.189	49.213	29.753	7.470	2.963	1.474
Gipuzkoa	**1.080.319**	477.428	368.435	179.877	37.158	11.789	5.632
Bizkaia	**847.974**	219.529	376.272	175.986	48.840	19.402	7.946
Zehaztu gabe / Sin especificar	**1.279**	173	887	220			

Euskadi mailan, 2014ean egonaldi guztiak igo dira, baina Lurraldeetara begira, Arabako turistak %4,7 bat jeitsi dira 4tik 7 ostatu-gaurako egonaldietan, %0,3 8tik 15erakoetan, %43,6 16tik 30erakoetan eta %51,1 hilabete baino gehiagokoetan. Honek azken urtean Arabak egonaldi luzeetako turistak galdu dituela eta laburrekoak, 1etik 3rakoak irabazi dituela nabarmentzen du.

Gipuzkoako Lurraldean, turista kopurua jeitsi duten bakarrak 8tik 15erako ostatu-gauko egonaldiak dira, %1,5 bat jeitsiz. Aipatzekoa da Lurralde hontan, egonaldi luzeen gorakada (duten garrantzi ekonomikoa dela eta), non 16tik 30erako turistak %42,4 bat igo dire eta hilabete baina gehiagokoak %30,6. Bestalde, egonaldi motzek eta ertainek, proportzio txikiagoan hazi diren arren, balio absolutoetan turista kopuru handiagoa suposatzen dute (ostatu-gau bat baino gehiagoko %12,3 turista, 2tik 3rako %7,7 eta 4tik 7 ostatu-gau bitarteko %26,2).

Aurten, Bizkiak ostatu-gau bakarreko turistak (%5,2) eta 16tik 30erakoak (%4,8) galdu ditu. Garrantzia dauka ere 2tik 3ra ostatu-gaueko egonaldiak %22,3 igo direla eta 8tik 15erakoak %20,4.

2.30.- Euskadira etortzen diren turistak, norako Lurralde Historikoaren eta ostatu motaren arabera. 2014. urtea

Arabako Lurraldean, beste Lurralde Historikoetan bezala, hotelen erabilera nagusitzen da, turista guztien erdia gainditzu (98.226). Bosten batek, famili edo lagunekin ostatu hartzea aukeratzen du (36.547), eta gainontzeko laurdena, kanpina (11.029), alokairuzko etxebizitza (9.029), beste ostatu motetan (20.214) eta berezko etxebizitzaren artean banatzen da (5.016).

Gipuzkoako turistak Arabakoen antzerako banaketa bat dute, aldaketaren batekin, familia eta lagunen etxebizitzak (132.547 gaur egun), proportzio txikiagoan erabiltzen dira ordea, kanpinaren (146.149) onurarako. Gipuzkoan, hotela, 592.715 turistek erabiltzen dute



Bizkaian, hoteletan 567.618 turistek hartu dute ostatu, Gipuzkoan baino %4,4 bat gutxiago. Famili eta lagunen etxebizitzak, 135.542 turistekin, Lurraldean hontan Gipuzkoan baino gehiago erabiltzen dira (%2,2), berezko etxebizitzak bezala 11.660rekin, Gipuzkoan baino %71,9 gehiago.

Interurteko aldaketen gainean, hotelak erabilitako turistak, hiru Lurraldeetan igo egin dira azken urtean, %10,2 Araban, %18,6 Gipuzkoan eta %13,5 Bizkaian. Araban berezko etxebizitza %21,5ean igo da eta Gipuzkoan eta Bizkaian berriz, %32,6 eta %10 jeitsi egin da. Alokairuzko etxebizitzarekin hotelekin gertatzen den berdina gertatzen da, Araban %25,5 igotzen da, Gipuzkoan %72,4 eta Bizkaian %17,6 igo da. Familia eta lagunen etxebizitzak, hiru lurraldeetan jeisten dira, Araban %17,2, Gipuzkoan %0,1 eta Bizkaian %3,3. Kanpinarekin alderantziz gertatzen da, Euskadi guztian igotzen da, Araban %11,6, Gipuzkoan %1,9 eta Bizkaian %4,8 bat. Azkenik, beste ostatu moten erabilera Araban jeitsi egiten da %26,2 bat, Gipuzkoan pixka bat igotzen da , %1,8 eta Bizkaian ere gora egiten du %4,9.

2.31.- Euskadira etortzen diren turistak, norako Lurralde Historikoaren eta bidaiaren antolaketaren arabera. 2014. urtea

Bidaia antolatzeko modua ez dago norako Lurraldearekin lotuta, arrazoien ondorio bat da gehien bat, eta sarbidearekin ere badu zer ikusia



Gipuzkoan eta Araban sarbide nagusia errepidea denez, pakete turistikoaren erabilerak urriena azaltzen dute, %3,5ko proportzio baten azpitik (3.506 Araban eta 36.688 Gipuzkoan).

Bizkaian, aireportu bideak garrantzia handiagoa hartzen duenez, pakete turistikoa erabiltzen duten turista gehienak kokatzen dira (78.492).

Pakete turistikoaren erabilerak Araban, 34,4ko interurteko beherakada bat jasan du, Gipuzkoan ordea, %56,3 igo da eta Bizkaian %19,3.

Bidaiaren antolaketa pakete turistiko gabe, Araban 176.556 turistek egin dute, Gipuzkoan 1.043.631 turistek eta Bizkaian 769.482 turistek, interurteroko datuetan, hiru lurraldeetan igotzen, Araban hazkunde hau minimoa izan denaren berezitasunarekin (%0,0), Gipuzkoan %11,4 eta Bizkaian %8,3.

2.32.- Euskadira etortzen diren turistak, norako turistikoaren arabera. Urteko bilakaera 2010-2014

Lurralde Historikoaren azterketarekin, norako zonaldeak handitzean indar gehiagorekin egiten dena, 2012. urtea baino aurreragokoetan norako Lurraldearen ezjakintasuna zegoela eta, norako turistikoaren zonaldearen ezjakintasun handiago bat dago, beraz ezinezkoa da urte hauekin alderaketa bat egitea, norako turistikoa ezagutzen ez zutenen pisua nahiko handia baita.

Azken urteetan gertatu den bezala, nahiz eta Gipuzkoa Lurralde Historikoen artean norako nagusia izan, norako turistikoen aldetik datuak aztertzean, Bilbo da turistek aukeratutako norako nagusia, baina azken urtean joera honi buelta eman zaio eta Donostia-San Sebastian da Euskadin turista atzerritar gehien batzen dituen lurraldea, %34,1ekin, Bilbok oso gertutik jarraituz (%33,6).



Bilboko turisten interurteko hazkundea %12,9koa izan da, baina hazkunde hau ez da nahikoa izan Euskadiko zona turistiko nagusia izaten jarraitzeko, Donostia/San Sebastianeko turistak %17,6 bat hazi baitira, buruan kokatuz 10.778 turistako aldearekin (%0,5).

Vitoria/Gasteiz da Euskadiko hiriburu bakarra, Euskadiko turisten %7,7a bakarrik erakartzen dituena eta gainera aurten turisten %0,4 galdu dituena, 2013an bere emaitza onenak lortu eta gero.

Atzerriko turistek eskatzen duten hirugarren norako turistiko garrantzitsuena, Euskal Kostaldea osatzen duten Gipuzkoako eta Bizkaiko herriak dira (%15,3). Vitoria/Gasteiz norakoarekin gertatu den bezala, Euskal Kostaldea %2,7 turistetan jeitsi da, 2013 izan zuelarik emaitzik onena.

Euskadiko barnealdeko zonalde turistikoa aurten %4,2 bat igo da ia 182 mila turistetaraino, baina 2012an lortutako bere kota maximoa ez du gainditzea lortu, 192.000 turistekin.

Arabar Errioxako norako turistikoa, aurten azken urteetan lortutako emaitzak bikoiztu baditu ere, ezin da sakonki aztertu, zifra “irreal” bat baita (fidagarritasun gutxikoa), datuak jasotzeko metodologia dela eta.

Lurralde Historiekoen mailan, 2014ean badaude 1.279 turista norakoa ez dutenak zehazten, eta norakoetan sakontzen saiatzean, zenbakia 5.195 turistetara igotzen da, hauetatik 3.916 norako Lurralde Historikoa bai, baina udalherria zehazten ez duten turistak dira.

Lurralde Historikoen bilakaera aztertzen adierazi den bezala, Lurraldea zehaztu ez den kasuak, norako turistikoetaz hitz egitean nabarmenki hazitzen dira baita aurreko urteetan ere (turista guztietatik %1,2 2012an ez zuten norako zonaldea zehaztu, %12,6ak ez zuen egin 2011ean, %33,2 2010ean eta zorionez zenbaki hauek 2013ari dagokionez jeitsi egiten dira, norakoaren informazio falta %0,4era jeitsi zenean, eta aurten, 2014ean oraindik gehiago, %0,2raino).



Norakoak aztertuz eta behar diren ardura guztiak hartuz 2012an zehaztu gabeko kasuen erakusleen garrantzi handia dela eta), azken bost urteetan Arabako hiriburuak turisten artean garrantzia gutxi izan duela ikus daiteke, hala ere, urtetik urtera gorakako joera bat erakusten du, azken urtean aldiz, hazkunde hau gelditu egin da.

Bilbo zen azken urteetan atzerriko turisten norako gustokoena. 2011 eta 2012an izan zuten gorakada nabarmenaz gain (espezifikatutako kasuen beherakada dela eta izan daitekeena), 2013a ere urte on bat izan zen, %9,1eko igoera batekin eta 50.000 turista baino gehiagorekin. Aurten ere garrantzitsua izan da 80.833 turista gehiagorekin.

Donostia/San Sebastian-ek ere urte hauetan gorakako joera bat mantendu du, bigarren postuan kokatzen zuena, 2011an nabarmenduz gehien bat, %48,5eko gorakada batekin, 2012an %15,8 batekin eta 2013an 105.000 turistako igoera batekin (%20,6), aurten izanik lehenengo postua lortzen duen urtea 107.524 turistetan igoaz.

Euskal Kostaldea nahiago duten turisten jokaera, Vitoria/Gasteiz-ekoen joera berdina nabarmentzen dute, 2011ean %68,2 igoaz, 2012an %13,6, 2013an 10.000 turistako igoera txiki batekin (%6,6) eta aurten beherakada txiki bat 738 turistetakoa.

Barnealdeko norako turistikoaren zonaldeak, aurrekoek ez bezala jokatzen du, %129,4ko hazkunde handiagoarekin 2011ean eta %34,4 2012an. 2013 izan da jokaera honi bira eman zaion urtea, eta %8,9 bat jeisten da (15.000 turista gutxiago inguru) eta orain, 2014ean 7.304 turista berreskuratzen ditu.

Azkenik, Arabar Errioxako norako turistikoa dago, ia proportziorik gabekoa (arrazoiak azaldu dira), 2010ean %44ko beherakada bat izan zuen, eta azken lau urteetan berreskuratzen joan da ia %69arekin 2011ean, %0,8 batekin 2012an, %30,7 batekin 2013an eta %126 batekin 2014ean.

2.33.- Euskadira etortzen diren turistak, norako turistikoaren eta sarbidearen arabera. 2014. urtea

Norako turistikoentzat, sarbide nagusia errepidea da. Bilbo da hau aldatzen den norako bakarra, aire bidez turisten erdia sartzen delarik, hau delarik ere turisten erdiak lanagatik datozen hiria. Aurrerago esan den bezala, arrazoi hau zuzenki lotuta dago aire bidezko sarbidearekin eta hotelaren ostatu motarekin.



Itsas bidezko sarbideak Bilbora doazen turisten artean maximo bat lortu du (11.662), Donostia/San Sebastian-ek (3.378) eta Euskal Kostaldeak gero (2.284) jarraituz.

	GUZTIRA/ TOTAL	Errepidea/ Carretera	Aireportua/ Aeropuerto	Itsasontzia/ Barco
GUZTIRA/TOTAL	**2.109.634**	**1.436.022**	**654.770**	**18.842**
Vitoria / Gasteiz	**163.342**	126.439	35.823	1.080
Bilbao	**709.181**	339.458	358.100	11.622
Donostia / San Sebastián	**719.959**	509.513	207.068	3.378
Euskal Kostaldea / Costa Vasca	**323.057**	295.454	25.319	2.284
Barnea / Interior	**181.977**	157.489	24.349	ee/ns
Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa	**6.923**	5.659	979	284
Zehaztu gabe / Sin especificar	**5.195**	2.008	3.132	ee/ns

ee/ns eraginik ez / no significativo

Interurtero begiratuz, errepide bidezko ia norako guztiek gora egiten dute, (Bilbo un %4, Donostia/San Sebastian %13,9, Barnealdea %0,9 eta Arabar Errioxa %141,4), Vitoria/Gasteizko turistak ezik, %0,8 bat jeisten direnak, eta Euskal Kostaldekoak %1,5 bat jeisten direna ere. Aire bidez, Euskal kostaldeko turistak bakarrik jeisten dira, %15,6, eta Vitoria/Gasteizekoa %1,1 igotzen dira, Bilbokoak %22,7, Donostia/San Sebastianekoak %29, Barnealdekoak %31,7 eta Arabar Errioxakoak %65,5.

2.34.- Euskadira etortzen diren turistak, norako turistikoaren eta bisitaren arrazoiaren arabera. 2014. urtea

Norako bakoitzean dauden motibazioak aztertuz ikus daiteke, bakoitzeko jokaera desberdin bat dagoela.

Vitoria/Gasteizera datozenak, gehien bat aisiagatik egiten dute (53.385), arrazoi pertsonalengatik datozenak gertutik jarraituz (46.202) eta urrunago laneko arrazoiak (42.762), beste arrazoiak (17.317) eta ikasketak (3.676) daude.



Bere aldetik, Bilboko hirian, arrazoi nagusia aisia da 492.856 turistekin, lanaren arrazoiak jarraituz 104.099 turistekin. Hau da lanaren arrazoiarengatik datozen turista gehienak taldekatzen diren norakoa. Ikasketen arrazoiarekin (17.398) eta zerbitzu pertsonalekin (73.099) berdin gertatzen da. Bilbon beste arrazoiengatik 22.000 turista aurkitzen dira.

Aisiaren arrazoiarengatik datozen turisten gehiengoa Donostia/San Sebastianen biltzen dira (584.201) eta lanagatik zati garrantzitsu bat ere (56.219), arrazoi pertsonalengatik etortzen direnek jarraituz 51.713 turistekin, beste arrazoiek gero 16.636rekin eta azkenik ikasketen arrazoiagatik etortzen direnak daude 11.190 turistekin.

Euskal Kostaldeak aisiaren arraozoiarengatik etortzen diren turistak erakartzen ditu batik bat (246.926) eta beste arrazoiak norako guztietako zenbaki altuena biltzen du, 22.956. Arrazoi pertsonalengatik etortzen direnak 34.542 turista dira, lanagatik 14.786 eta ikasketengatik 3.846 turista.

Barnealdean 78.120 turista aisiagatik datos, 53.227 arrazoi pertsonalengatik, 32.959 lanagatik, 12.266 beste arrazoiengatik eta 5.406 ikasketengatik.

Arabar Errioxan gehienak aisiagatik datos, lana delarik bigarren arrazoi nagusiena.

2.35.- Euskadira etortzen diren turistak, norako turistikoaren eta egonaldiaren iraupenaren arabera. 2014. urtea

Vitoria/Gasteizen egindako egonaldien %77,5a, egonaldi laburrei dagokie (85.732 ostatu-gau batekoak, %2,1eko hazkundearekin eta 40.846 bi eta hiru bitartekoak, interurteko %1,1eko uzkurdura batekin). Egonaldia gora doan hala, turistak behera dijoaz, 4tik 7ra ostatu-gauko 25.440 turistatik hilabete baino gehiagoko 1.265etara. Egonaldi luzeenak, 16tik 30 ostatu-gau bitartekoak eta hilabete baina gehiagokoak, %48,2ko eta %56,4ko atzerapen handi bat jasan dute hurrenez hurren.

Bilbora doazen turistak, orokorrean, bi edo hiru gau pasatzen dituzte (324.385, %28,1eko hazkunde xume batekin), bigarren postuan ostatu-gau bat egiten duten 186.523 turistak daude (aurreko urtean baino %5,1 gutxiago) eta gero 4tik 7ra bitarte egiten dituzten 139.199 ak, %4,5eko hazkunde batekin. Egonaldi luzeagoak

asko jeisten dira, baina ez ain balio baxuekin. 8tik 15era bitarteko ostatu-gauetan 36.570 turista daude (2013an baino %51,1 gehiago), 16 eta 30 bitarte 16.494 daude (interurteko %4,5 gehiago) eta 6.008 hilabete baina gehiagokoak, %11,4ko hazkunde batekin. Bilbon da, gau bakarrekoak kenduta, beste gainontzeko geruzatan turista gehien biltzen diren norakoa.



Ostatu-gau bakarreko egonaldien gehiengoa Donostia/San Sebastianen ematen da, 268.226 turista baino gehiagorekin eta %20,7ko hazkunde batekin. 2tik 3rako ostatu-gauak Donostia/San Sebastianen 276.964 turista dituzte, interurteko %11,5eko hazkunde batekin. Gainontzeko geruzek Bilboren antzerako jokaera erakusten dute, baina turista gutxiagorekin (137.898 4 eta 7 bitarte, 25.776 8 eta 15 bitarte, 6.783 16 eta 30 bitarte eta 4.312 turista hilabetetik gora) eta guztiak hazkunde positiboekin %29,2, %3,7, %4,3 eta %16,1 hurrenez hurren.

Euskal Kostaldean ostatu-gau batekin 137.846 turista daude, 2 eta 3 bitartean 108.241, 4 eta 7 bitartean 54.111, 8 eta 15 bitartean 18.735, 16 eta 30 bitartean 3.493 eta hilabetetik gorakoan 630. Euskal Kostaldean interurteko aldaketa negatiboak izan dira, gonaldi geruza gehienetan turistak galdu dituzte, 2tik 3ra ostatu-gau bitarteko egonaldian ezik, hau ia berdin mantendu baita (%0,0), eta 8tik 16ra bitartekoetan %3,7 bat igo baitira.

Barnealdean ostatu-gau batekin 104.116 turista daude, 2 eta 3 bitartean 38.147, 4 eta 7 bitartean 27.568, 8 eta 15 bitartean 4.524, 16 eta 30 bitartean 4.786 eta hilabetetik gorakoan 2.837. 2013aren aurrean aldaketak positiboak izan dira gau bateko egonaldietarako (%3,9), 4tik 7ra bitartekoentzat (%37,2), 16tik 30 gauekoentzat (%47,1) eta hilabete baino gehiagokoentzat (%136,4), 2tik 3ra bitarteko ostatu-gauak aldiz aldaketa negatiboa izan dute, %11ko beherapenarekin eta 8tik 15erakoak ere %36,2ko beherapenarekin.

Arabar Errioxan, ostatu-gau batekin 2.350 turista daude, 2tik 3ra bitarteko ostatu-gaurekin 3.317 eta 4tik 7rakoekin 1.250. Gainontzeko egonaldietarako ez daude turisten daturik.

2.36.- Euskadira etortzen diren turistak, norako turistikoaren eta ostatu motaren arabera. 2014. urtea

Norako turistikoak ostatu motarekin alderatzean, jokaeran desberdintasun hauek ikusten dira:



Vitoria/Gasteizen turisten erdiak baino gehiagok hotela (88.169) eta famili edo lagunen etxebizitzak (31.469) erabiltzen ditu. Gainerako %26,8ak kanpina (11.017), beste ostatu motak (20.214) eta alokairuzko (8.009) edo berezko etxebizitzen artean (4.464) banatzen da.

Bilbon ostatu mota nagusiak, hotela, 513.140 turistek erabiltzen dute, %72,4 bat irudikatzen du ia, eta bigarren postuan familia edo lagunen etxebizitza aurkitzen dugu ere (102.921). Bi ostatu mota hauek Bilbora datozen turisten %86,9 bat suposatzen dute. Gainerako %13,1 a gainontzeko ostatu moten artean banatzen da, banatuta ez dutelarik %5 ere irudikatzen.

Donostia/San Sebastian ez da besteen oso ezberdina. Hotelak ez du Bilbon bezain garrantzi handia, %63,6 batean gelditzuz (458.195), baina familia eta lagunen etxebizitzak 2,4 puntu jeisten dira Bilboko pisuaren aldean, 87.108 turista irudikatuz. Gainontzeko ostatu motek %24,3 bat bateratzen dute, kanpinak garrantzi gehien duelarik 57.370 turistekin, alokairuzko etxebizitzak 53.439 turistekin, berezkoak 5.025rekin eta beste ostatu motak 58.823 turistekin.

Euskal Kostaldeak, aurreko norakoen jokaera ezberdina dauka ostatu motaren gainean. Nahiz eta, ostatu mota nagusia hotela izan (129.131rekin), gainontzeko ostatu motekin ezberdintasunak asko txikitu dira. Bigarren postuan kanpina (94.981) eta beste ostatu motak (52.252) daude, familia eta lagunen etxebizitzak gainditu dituztenak (36.013). Berezko etxebizitzetan osatatu hartzen duten Euskadiko turistak 2.414 dira, %1 baino gutixago, eta alokairuzkoetan 8.266 turista.

Azkenik, barnealdeko norakoan, hotela da nagusia (62.761), kasu honetan beste ostatu mota batzuk erabiltzen dituzten turistek jarraituz (46.452). Hirugarren postuan familia eta lagunen etxebizitzak daude (46.161) eta hiru ostatu mota nagusi hauek barnealdeko turisten %85,4a osatzen dute. Beste %14,6an, kanpinak %9a suposatzen du (16.594 turista).

Arabar Errioxa norakorako, hotela da turistek gehien erabiltzen dutena ostatu mota (5.094), Arabar Errioxako turista guztien %73,6 a (6.923).

2.37.- Euskadira etortzen diren turistak, norako turistikoaren eta bidaiaren antolaketaren arabera. 2014. urtea

Bidaiaren antolaketa norako turistikoaren arabera aztertuz, ikus daiteke pakete turistikoak oso garrantzi gutxi duela.

Pakete turistikoak, proportzio esanguratsu bat jasotzen duen norako turistiko nagusia Bilbo da, %10,9rekin, hau da, 77.135 turistekin.

Donostia/San Sebastianen %5eko pisua dauka, 36.325 dira pakete turistikoa erabili duten turistak.

Bi norako hauek, pakete turistikoa erabiltzen duten turisten %95,6 biltzen dute.



3. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEAK

Euskadik duen mugako izaerak eta konkretuki mugaren bi aldeen arteko erlazio eta harremanen eskualdeko jokaerak, txangozaleen aktibitate handi bat eragiten du. Honi turismo masibo bat ez dagoela gehitzen badiogu, adibidez eguzki eta hondartza bezalakoa, atzerriko bisiten %81,6a ostatu-gaurik gabekoa dela antz eman daiteke. Mugatik Donostia/San Sebastian-en gertutasunak, eta batez ere, muga honen inguruan dagoen gune urbano garrantzitsuak, funtsesko suertatzen dira erlazio komertzial, laneko eta aisikoetan, fluxu konstanteetan isladatuz.

Txangozale hauen jokaerak, aldagai ezberdinen aurrean, erakutsiko digu, badaudela gurutzatze batzuk ez dutenak interesik, txangozaleen guztizkoak ematen duten emaitza berdinak baitituzte.

Aldagaiak hauek dira: sarbidea, errepide bidezko txangozaleak %99,6 bat osatzen dutelarik, turisten jatorrizko herrialdea edo bizilekua, %94,7a txangozale frantsesak direlarik, eta Lurralde Historikoa, Gipuzkoa izanik norako nagusia (%97,6).



2014an Euskadira 9.359.298 txangozale inguru iritsi dira. Honek beherakada txiki bat suposatzen du, bolumenaren %2,5aurreko urtean lortutako bolumenarekin alderatuz.



Euskadira etorri diren atzerriko txangozaleak, ikerketa honen hasieratik, 1998an, hazkunde jarraitu bat jasan dute. 2007 eta 2008. urteetan beherakada txiki batzuk egon ziren, %3,1 eta %1,8 hurrenez hurren, ondorengo urteetan berreskuratuz. 2011. urtean %13,8ko gorakada nabarmen bat egon zen, 9.800.000 atzerriko turistetara iritsiaz ia eta azken bi urteetan atzerapen txiki bat eman da.

Atzerapen hau, turismoari begira, turisten zenbakian egon de hazkundearekin orekatzen da, eta esan daiteke urte bateko txangozaleak hurrengo urteko turista potentzialak direla. Hau da gainera Administraritzak eta sektore turistikoko profesionalek bilatzen dutena.

Txangozaleen kasuan, norako bakarra dagoenez, norako nagusia Euskadi edo norakoa Euskadi datuen aldaketak ez du eraginik, beraz seriea osoa mantentzen da, hausturarik gabe.

3.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleak hilabeteko. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2010–2014

Txangozaleen seriean hausturarik ez dagoenez, 1998tik hileroko eboluzioarekin grafika bat aurkeztu daiteke, bertan ikus dezakegu, hilabeteek urteetan zehar antzeko jokaera bat mantentzen dutela, urteroko turisten bolumenaren hazkunde eta beherakadarekin noski.



Udan bisitak izugarri igotzen dira, abuztuan batez ere, udaberrian eta udazkenean pixka bat gutxiago. Otsaila elkarrekintza gutxien daukan hilabetea da, urtetik urtera, maila gorenean dagoen hilabetearen ia heren batekin.

Urtaroko izaera honi aisiak eta salerosketa erlazioak laguntzen diote, eskualdeko hartu-emanekin, eta ez nazioartekoekin, gehien bat. Hala ere, urtaroko izaera hau txikiagoa da turisten kolektiboan baino.

Interurteko aldaketa txangozaleen artean ez da homogeneoa 2014 urtean zehar. Aldaketa positiboa da (hazkundea) otsailan, martxoan, apirilan, ekainan eta azaroan. Gainontzeko hilabeteetan (urtarrila, maiatza, uztaila, abuztua, iraila, urria eta abendua), txangozaleen zenbakia gutxitu egiten da.

Txangozale gehien galtzen dituen hilabetea uztaila da %13,2ko beherakada batekin, 163.130 txangozale gutxiago, abuztuko beherakadak jarraituz 148.101 txangozaleekin (%10,2).

Aitzitik, azaroa da gorakada handiena jasaten duen hilabetea, %8,2ko interurteko gorakada batekin (50.156 txangozale gehiago).

2014. urte honetan, martxoak, apirila, ekaina eta azaroak txangozaleen errekor historikoa lortzen dute.

Balio absolutoetan txangozaleen aldaketa urte honetako hilabeteetan zehar, otsaileko 564.089 sarreretatik abuztuko 1.302.986 sarreretara doaz, 738.987ko aldaketa.

Beherakada bat izan den hilabeteetan gertatutako txangozaleen galera 392.793koa da. Aldiz hazkundea egon den hilabeteetan irabazitakoak 155.104koak izan dira, beraz interurteko saldo negatibo total bat egon da 237.688 txangozaleetakoa.

Estatuko eta Euskadiko txangozaleen informazioa konparatuz, ikusi dezakegu udarako hilabeteetako jokaera antzekoa dela bietan, urte batzuetako abuztuan izan ezik, ezberdintasun handiagoa dagoen hilabetea dena, nahiz eta minimoa izan.



	Euskadi 2010	Euskadi 2011	Euskadi 2012	Euskadi 2013	Euskadi 2014	Estatua/ Estado 2010	Estatua/ Estado 2011	Estatua/ Estado 2012	Estatua/ Estado 2013	Estatua/ Estado 2014
GUZTIRA/TOTAL	**100,0%**	**100,0%**	**100,0%**	**100,0%**	**100,0%**	**100,0%**	**100,0%**	**100,0%**	**100,0%**	**100,0%**
Urtarrila / Enero	5,8%	6,7%	6,7%	6,6%	6,5%	6,7%	6,8%	6,7%	6,2%	6,1%
Otsaila / Febrero	5,8%	5,8%	5,9%	5,6%	6,0%	6,2%	6,4%	6,3%	5,9%	6,1%
Martxoa / Marzo	7,7%	6,5%	7,0%	7,3%	7,5%	7,6%	7,2%	7,3%	7,8%	7,2%
Apirila / Abril	7,1%	7,3%	7,4%	7,4%	8,1%	8,0%	8,2%	7,8%	8,0%	8,4%
Maiatza / Mayo	6,7%	7,4%	7,3%	7,9%	8,1%	7,5%	7,8%	7,6%	8,5%	7,9%
Ekaina / Junio	7,2%	7,5%	7,6%	7,8%	8,3%	7,9%	8,6%	7,8%	8,1%	8,0%
Uztaila / Julio	9,7%	11,9%	12,7%	12,9%	11,5%	11,1%	11,3%	11,3%	11,3%	10,7%
Abuztua / Agosto	16,9%	16,5%	15,4%	15,1%	13,9%	15,1%	14,6%	15,2%	15,2%	14,6%
Iraila / Septiembre	10,1%	7,8%	7,8%	8,0%	8,1%	8,9%	8,8%	9,3%	9,6%	9,0%
Urria / Octubre	8,4%	9,4%	7,6%	7,7%	7,8%	8,0%	7,8%	7,7%	7,2%	8,2%
Azaroa / Noviembre	6,7%	6,0%	6,8%	6,4%	7,1%	6,3%	6,0%	6,1%	5,7%	6,7%
Abendua / Diciembre	8,1%	7,1%	7,9%	7,2%	7,1%	6,8%	6,5%	6,8%	6,5%	7,0%

Gainontzeko hilabeteetan jokaera ia berdinak mantentzen dira, urteetan zehar desberdintasun gutxi batzuekin, bai Euskadin bai Estatuan. Ezberdintasun hauek ez dira oso esanguratsuak, eta egon ezkero Euskadin eta Estatuan ematen dira.

Abuztuan daude ezberdintasun handienak, 2010an Euskadin %16,9 eta Estatuan %15,1 sartzen zirenean eta 2011ean Euskadin %16,5 eta Estatuan %14,6.

Urrian 2011ean, Euskadik %9,4ko pisua du eta Estatuak %7,7 eta azkenik abenduak 2010ean Euskadin %8,1eko pisua du eta Estatuan %6,8koa.



3.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleak sarbidearen arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2010 –2014

Errepide bidezko txangozaleak dira txangozaletasun guztiaren jokaera markatzen dutenak, aire eta itsas bidezko sarrerak oso gutxi baitira.

Azken 5 urteetan, errepide bidezko txangozaleak gorakako joera bat adierazten dute, 2011rarte, non maximoa lortzen duten. 2011 urte honetetik aurrera jokaera beheraka aldatzen da, baina beherakada txiki



batzuekin, 23.588 txangozale, hau da %0,2, 2012an, 146.187 txangozale gutxiago (%1,5) 2013an eta 237.688 txangozale gutxiago 2014ean.

Azken bost urteetan, Euskadin errepide bidezko txangozaletasunak %99,5 a gainditzen du.

Estatuarekin konparatuz, ezberdintasunak handiak dira, Estatuan aire bidezko txangozaletasun handi bat dagoelako, salerosketen bidaiak direla eta gehien bat, eta baita ere itsasontzi bidez datozen txangozaleak dirala medio, hauek itsa-bidai handietan datozte Estatuko portu ezberdinetara, eta ez dute ostatu-gaurik egiten, argi orduak erabiltzen baitituzte bisitak egiteko eta gauak nabigatzeko.



Aurreratu den bezala, atzerriko txangozaletasuna Euskadin errepidezkoa da oro har

Azken urte honetan txangozaletasunaren pixuak Estatuan itsas bidez nabarmenki gora egin du azken urte hontan, 2013arekin alderatuz itsazontziz datozen txangozaleak %29 bat igo direlarik.

3.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleak bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2010 –2014

Aurreratu da baita ere, Euskadiko txangozaletasuna frantsesa dela batik bat, %93 a baino gehiagoko irudikapen batekin azken bosturtekoan, eta zehazki %94,7 batekin 2014an (8.865.378 txangozale frantses 9.359.298 Euskadiko txangozale guztien aurrean).

Frantsesen atzetik, 2014an, 159.378 txangozale portugaldarrak daude (%1,7) eta Gainerako Europakoak, 92.148 ondoren (%1ekin). Beste jatorri bat duten gainontzeko txangozaleak %1etik behera daude. Euskadin azken urteetan banaketa hauek joera berdina mantentzen dute.

Euskadin txangozaletasun frantsesa aurten %2,6 bat jeitsi da, portugaldarra %3,4 eta Gainerako Europakoa %3,2 bat.





Estatuaren jokaera, txangozaleen jatorriaren arabera, egonkorra da baita ere, baina jatorriko lurralde aniztasun handiagoarekin.

Merkatu frantsesa, Estatuan ere merkatu garrantzitsuena da ere, hala ere txangozaleen %60 ez du gainditzea lortzen.

Merkatu portugaldarra, Euskadin gertatzen den bezala, Estatuan bigarren postuan dago, bizilekuen rankinean, eta nahiko esanguratsua da, azken bost urteetan, %24,7 txangozale batezbesteko batekin. Logikoki Portugal, Estatuarekiko, mugako lurraldea dela eta.



Garrantzi gutxiagorekin, baina gainerako Europako txangozaleak Estatuan %4,9 batean daude (Euskadin bezala). Aire bidezko txangozaletasunaz gain, laneko egun bateko bidaiak egiteko aukera ematen duena, Gainerako Europan beste mugako herrialde bat barneratzen da, Andorra.

3.4.- Euskadira etortzen diren txangozaleak bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2010 –2014

Txangozale atzerritarrak Euskadi bisitatzera bultzatzen dituzten arrazoi nagusiak, lau teorikotan biltzen dira, hauek hiru bilakatzen direlarik.

Euskadiko txangozaleak mugitzen dituen arrazoi nagusia “erosketak” dira. 2008, 2009 eta zati batean 2010. urteetan arrazoi hau “Zerbitzu pertsonalen” arrazoiean barneratua zegoen. Datu hauek ematen dituzten estatistika eragiketen aldaketa metodologikoak, nahasketa bat eragin dute, batzuetan “erosketak” arrazoia “zerbitzu pertsonal”-en barruan zegoelako eta besteetan “beste arrazoiak”-en barruan. Horregatik, “arrazoi pertsonalak” 2010etik aurrera progresiboki beheraka doaz, eta “beste arrazoiak” goraka.

Bi arrazoi hauek bateratuz, 2010ean 5.652.782 txangozale ditugu, 2011ean 5.925.244, 2012an 6.605.572, 2013an 6.424.985 eta 2014ean 6.036.067 txangozale, honek interurteko hazkunde hauek dakartza, 2011ean %4,8, 2012an %11,5, 2013an %2,7ko beherakada eta 2014ean %6,1eko beherakada.

Aisia garrantzian bigarrena da, 2011ean %42,8ko gorakada handi batekin, 2012an %12,3ko beherakada batekin, 2013an %3,8 bat berreskuratuz eta azken urte hontan %10,3.

Lanagatik egiten den txangozaletasunak 2011ean lortzen du bere zifra onena 629.879 txangozalerekin eta hortik aurrera beherakada jarraitu bat hasten da, 2012an %5,9 txangozaleetan jeitsiz, 2013an %8,7 batean eta 2014ean %19,3 batean.



Estatuarekin konparatuz eta arrazoi pertsonalak eta beste arrazoiak erosketak biltzen dituen arrazoi bakar bat bezala aintzakotzat hartuaz, Euskadi eta Estatua bisitatzera txangozaleak bultzatzen dituzten arrazoien pisuak antzekoak direla ikus dezakegu.

Azken bost urteetan Estatuan aisiarengatik datozen txangozaleen pisuaren batezbestekoa, %28an dago, Euskadin baina zortzi puntu portzentual gorago, %27,2an dagoena. Lehenengo bi urteetan, 2010 eta 2011ean, Euskadi zen pisuaren arrazoiean Estatuaren gainetik zegoena, baina azken 3 urteetan, Estatuak alde txiki hauei bira eman die. Gehitutako "Erosketak" arrazoia, aldiz, azken bost urteetan, Euskadikoa Estatuko batezbestekoa baino 3,3 puntu gorago kokatzen da. Aitzitik, lanaren arrazoia Euskadin, Estatuan baino ia bi puntu beherago kokatzen da bosturteko honetan.



Ikasketen arrazoiak bai Euskadin bai Estatuan presentzi txikia dauka. Euskadin, ez da inoiz txangozaleen %0,4ko distribuziotik igotzen eta Estatuak azken bost urteetan ez du %0,5a gainditzen.

3.5.- Excursionistas con destino en Euskadi por frecuencia de la visita. Evolución anual 2010 - 2014



Txangozaleen bisiten maiztasunaren gainean, Estatukoekin alderaketa egitea ezinezkoa dela esan beharra dago, IETk ez baitu bere dokumentuetan aldagai honen informaziorik argitaratzen.

Aurreko urteetan, Euskadi bisitatzen zuten txangozale gehienen maiztasuna, hilabetean behin zen. 2012tik aurrera maiztasun hontan aldaketa bat gertatzen da, asteroko bisitek indarra hartzen dutelarik. Hala eta guztiz ere, datu hauen azterketa egiterako garaian kontuan hartu behar da, azken hiru urteetan 2 milioi txangozalek ez dutela bere bisiten maiztasuna adierazten, txangozaleen laurdenari dagokiona.

Gainontzeko %75a, Euskadira bere bisita hilabetean behin errepikatzen duten %39 txangozaleek, hiru hilabetero egiten duten %22,9k eta maiztasuan gutxiagorekin, urtean behin baina gutxiago, egiten duten %13ek osatzen dute.

Edozein maiztasun saileko txangozeleen balio hauek, berriz ere, frantziar mugaren garrantzia agerian uzten dute, txangozale asko mugatik gertu dauden herrietakoak direlarik, eta muga bere ohiko ingurunearen barruan dagoelarik. Hauen artean mugaz bestaldeko langileek garrantzia handia dute ere.

Alkohola, tabakoa eta gasolinaren salneurri baxuak, eta merkatal zentruen hurbiltasunak, mugatik gertu bizi diren frantziar askok, erosketak egiteko, muga sarritan igarotzea eragiten dute. Eragina dauka ere, garai batean Gipuzkoan, eta konkretuki Donostia/San Sebastian-en bertakoentzat etxebizitzek salneurri eskuraezin bat zutenez, Frantzian, sustatzaileek egindako urbanizazioetako etxebizitzen eskaintzetaz baliatu zirela, bere ohiko etxebizitzak Hendaya bezalako herrietan erosiz. Pertsona hauek, gehienetan bere bizitza Euskadin egiten jarraitzen dute, nahiz eta Frantzian bizi.



Bere egonaldien maiztasuna zehaztu ez duten txangozaleak kanpoan utzita, Euskadi bisitatzen dutenen erdiak hilabetero egiten dutela esan daiteke eta txangozaleen %17,5ak ez dute bere bisita urte oso batean errepikatzen.

3.6.- Euskadira etortzen diren txangozaleak bisitaren maiztasunaren eta arrazoiaren arabera. 2014. urtea

Bi aldagai hauen baterako azterketak, txangozaleen aurtengo jokaera zehazten laguntzen du.

Lanagatik datozen txangozaleen %31ak, eguneroko maiztasunarekin egiten dute (135.458). Egunero etortzen direnen %22,5ari dagokio, eta mugaz bestaldeko langiletzat hartzen dira.

Maiztasuna gora dijoan einean, aisiaren arrazoiagatik datozen txangozaleak gora doazela ikus daiteke lanaren arrazoiarengatik datozenak bera doaz eta “erosketak” arrazoiarenak ere, hala ere, pisu garrantzitsu bat izaten jarraitzen dute.

Astean behin datozenen artean, lanaren arrazoiak pisua galtzen duela ikus daiteke.



Bisitak jeisten diren neurrian, txangozaleak bere ohiko bizilekuan mugitzen den mugaz bestaldeko biztanle bat izateari uzten dio, benetazko txangozale bihurtzeko

3.7.- Euskadira etortzen diren txangozaleak norako Lurralde Historikoaren arabera. Urteko bilakaera 2010-2014

Azken urteetan, 2011rarte ez daude datuak txangozaletasunaren norakoari buruz, beraz, aztertu daitekeen informazio bakarra azken hiru urtetakoa da.



Txangozaleen gehiengoa datorren Lurralde Historikoa, Gipuzkoa da, %97,6 batekin, Frantziaren mugakide. Bizkaira %2,3 bat iristen dira eta Arabara %0,2.

Beraz, Euskadiko txangozaletasun tipoa errepidez Frantziatik Gipuzkoara datorren txangozaletasuna da.

2013an txangozale kopuruaren beherakada guztiak, %1,5ekoa izan dena, eta aurtengoa %2,5ekoa, hiru Lurraldeetan eragin negatiboa izan du. Araba %40,5 jeitsi zen 2013an eta 2014ean beherakada %4,1koa izan da (14.675 txangozale gutxiago), Gipuzkoa %0,7 jeitsi zen 2013an eta 2014ean gehiago jeitsi da, %2,3 (212.679 txangozale gutxiago) eta Bizkaia lehengo urtean %21,3 jeitsi zen eta aurten berriz ere %4,7 jeitsi da, hau da 10.335 txangozale galdu ditu.

3.8.- Euskadira etortzen diren txangozaleak norako turistikoaren arabera. Urteko bilakaera 2010-2014

Norakoa lurralde maila baino maila banatuago batean aztertzen denean, ikusi daiteke txangozale gehienak Euskal Kostaldera datozela. Hau, Irun, mugako herria, eta Hondarribia, ondoan dagoena, Euskal Kostaldean barneratuak daudelako gertatzen da, eta mugatik bestalde datozen txangozaleek asko bisitatzen dituzten herriak dira. Barnealdeko herriak bisitatzen dituzten txangozaleen %3,5ak, Oiartzun, Errenteria eta Usurbil bezalako herrietara datozenak dira, frantsesek askotan bisitatzen dituzten merkatal zentruak dauden herriak izanik.



Jakina da ere Euskadiko gastronomiak bisitarientzat suposatzen duen erakargarritasuna. Honek, merkatu frantsesa, edo hobeto esanda Ipar Euskalerrikoa, Irun, Hondarribia, Donosti/San Sebastian eta gertu dauden beste herrietara etortzea eragiten du, euskal sukaldaritza tipikoa dastatzera. Oso ezaguna da esate baterako, Hernani, Usurbil eta Astigarraga inguruko sagardotegietara datorren txangozale frantsesen ugaritasuna, nagusiki sagardotegi garaian (urtarrila, otsaila, martxoa eta apirileko zati bat) “Txotx”az gozatzeko antolatutako autobus bidaietan, eta Michelin Izarrak dituzten sukaldari ospetxuen jatetxeetara datozenak ahaztu gabe.

2013an bezala, norako guztietako interurteko aldaketa negatiboa da, Euskal Kostaldeko norakoa aukeratu duten txangozaleena ezik. Euskal Kostaldea aurten %1,2 batean igo da (78.832 txangozale gehiago). Vitoria/Gasteiz-ek %45,6 galtzen du (14.135 txangozale gutxiago), Bilbok %17,3 (27.329 gutxiago), Donostia/San Sebastian-ek %8,8 (196.750 gutxiago), Barnealdeak %19,2 (78.306 txangozale gutxiago).

3.9.- Euskadira etortzen diren txangozaleak norako turistikoaren eta bisitaren arrazoiaren arabera. 2014. urtea

Ikusi daitekeen bezala, arabar hiribura bisitatzen duten txangozaleak, arrazoi pertsonalengatik (9.411) (erosketak eta beste arrazoi batzuk) eta aisiagatik (4.079) egiten dute gehien bat, azken hau laneko arrazoiak oso gertutik jarraitzen duelarik (3.373).



Bilbon, aisiak garrantzia handia hartzen du ere (67.443), erosketek (36.173) eta lanak jarraituz (26.946).

Donostia/San Sebastian-en, aisiak garrantzi handia dauka (1.176.091), batez ere asteburuko txangozaleen artean. Frantsesak asteburuetan gastronomia eta gaueko aisiaz gozatzera pilaka datozte lehenago esan bezala, gaueko aisi honen ezaugarria tabernetan alkoholak duen prezio baxua da bere herrialdean dagoenarekin alderatuz. “Erosketak” arrazoia txangozaleen artean oso hedatua dago ere (752.113), Donostia/San Sebastian-en arrazoi hau, merkatal zentru handietan arroparen erosketekin eta boutique-tako jantzi erosketekin oso erlazionatua dagoelarik.

Euskal Kostaldean, Irun eta Hondarribia bezalako herriak erosketen arrazoiagatik datozen txangozaleen gehiengoa biltzen dute (gasolina, tabakoa, alkohola, etab.) (5.091.757), eta aisiagatik 1.560.294 txangozale datoz. Lanagatik datozenak dira norako turistiko hontan txangozale gehienak (181.559).

Barnealdean ere erosketen arrazoia nagusitzen da (146.614), baina kasu honetan merkatal zentru handietara eta kontsumo-ondasunetara zuzenduta daude. Norako hontan ere lanagatik datozen txangozaleak garrantzitsuak dira (119.798), Euskal Hiriburuen gainetik kokatuz.

4. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN (TURISTAK ETA TXANGOZALEAK) GASTUAK

Euskadin, txangozaleen gastuak oso eragin handia du bisitarien gastuan, bisitarien %81,6 irudikatzen dituztelarik, turistek berriz %18,4a. Gastu osoaz gain, eguneroko batezbesteko gastuek eta pertsonako batezbesteko gastuek, ez dituzte ezberdintasun handiak aurkeztuko. Txangozaleen kasuan, turistekin konparatuz asko direnak, bi gastu hauek berdinak dira, ostatu gaurik ez dagoelako.

4.1.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua (turistak eta txangozaleak). Urteko bilakaera 2010 – 2014

Aurten bisitarien kopurua %0,4 batean jeitsi da, hauen gastua aldiz, %12,7 igo da, ia bi milioi euroko gastu bolumenera iritsi arte (1.965.041.745 €) ia 225 milioiko hazkunde bat.



2010an bisitarien gastua %0,3 batean jeitsi zen, hortik salto handi bat egiten du 2011ean %23,8 igoaz, 2012an %1,5eko beherakada txiki bat jasan zuen, 2013an %4 bat igotzeko, azken bost urteetako turisten gastuaren kota maximoa lortuz. Badirudi, gorakada handi eta beherakada txikiak edukitzeko joera hau, hazkunde mailakatu batekin bat etortzen dela, bi urteko epeak behar dituelarik lortutako hazkunde hau finkatzeko.



Bisitarien eguneroko batezbesteko gastuak, gastu osoaren patroi berdina jarraitzen du, 2014ean azken bosturtekoko eguneroko batezbesteko gastu altuena lortuz.

Eguneroko batezbesteko gastuak ere 11,11 euroko gorakada bat jasan du aurreko urtearekin konparatuz, %10,6ko ekarpen bat suposatzen duelarik.

2010. urtean eguneroko batezbesteko gastua %4,7 batean jeitsi zen, 2011 %8,7 bat igo zen, 2012an %1,5 bat jeitsi zen berriz ere, 2013an %4,3 bat igo zen eta orain 2014ean aipatutako %10,6 igo da .

Pertsonako batezbesteko gastuak Euskadin azken urteetan, gastu totalak eta eguneroko batezbesteko gastuak bezala bezalako ibilbidea marrazten du.



20,24 euroko hazkunde garrantzitsu bat jasan du, hau da, %13,4.

2010ean, pertsonako batezbesteko gastuak %6,1 galdu zuen, 2011ean gora egin zuen %7,9 batean, 2012a %1,8 ko galera bat eduki zuen berriz ere, 2013an %3,7 bat igo zen eta 2014ean ere %13,4 bat igo da lehen aipatu bezala, honela, aurtengo pertsonako batezbesteko gastua azken urteetako balio altuenetan kokatzen da.

Lehenengo gastu datu hauek, globalik aztertuak, agerian jartzen dute jada, Euskadik atzerriko turismoarekiko dituen datu onak, munduko azken krisiak eragindako beherakadatik berreskuratu dena, Euskadiko ekonomia turistikoari kantitate bikainak ekarriz.

4.2.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa (turistak eta txangozaleak). 2014. urtea

Euskadi bisitatzen duten atzerriko bisitariek egindako gastu totala 1.965.041.745 eurokoa izan da 2014ean, gastuaren zazpi kontzepturen artean banatuak daude, ondoren deskribatzen direnak, handiagotik txikiagora sailkatuz.



Lehenengoa eta kuantitatiboena, txangoetan eta beste kontzeptuetan bateratu gabekoetan aurkitzen da. Txangoetan egiten den gastuak osotasunaren %27,6 bat suposatzen du eta 543 milioi euro baino gehiago ekartzen ditu, bai turista bai txangozaleetatik datozenak, eta azken urtean bere hazkundea %4,1ekoa izan da 21 milioi eta erdi gehiago suposatzen dituena.

Garrantzian bigarren kontzeptua joan-etorriko garraioan egindakoa da 482 milioi eurorekin (gastuaren %24,6), hauek ere turista eta txangozaleek ekarriak, eta interurteko %18,6ko hazkunde batekin, 75 milioi eta erdi euro baino gehiagorekin.

Hirugarren kontzeptu bezala, norako garraioko gastua dago. Gastu honek ia 268 milioi euro ekartzen ditu (gastu totalaren %13,6) eta aurreko urtearekin alderatuz auten bere balioa jeitsi duen kontzeptu bakarra da,

%5,1 batean, 14 milioi eta erdi euro gutxiago. Aurreko kontzeptuak bezala, turistek eta txangozaleek egindako gastuez osatua dago.

Garraioko gastuko azken bi kontzeptu hauek batera aztertuko balira, beste erakunde turistiko batzuetan egiten den bezala (IET barne), garrantzian lehenengo gastuaz hitz egiten egongo ginateke, 750 milioi euro baino gehiagorekin. Gastu hau bereizita mantendu nahi da, zeren norakoko garraio gastua bere osotasunean, zuzenki edo zeharka, norakoko ekonomian eragina duen gastu bat baita (Euskadi).

Laugarren kontzeptua Jatetxe, taberna eta kafetegietan egindako gastuari dagokio, eta 265 milioi eurotik gora kokatzen da (gastu totalaren %13,5), turistek eta txangozaleek gastatuak, eta interurteko %26,9ko hazkunde batekin, 56 milioi eurori dagokiona.

Bostgarren kontzeptua ostatuan egindako gastua da, eta 240 milioi eta erdi euroak lortzen ditu (gastu totalaren %12,2a), turistek soilik ekarria, txangozaleek ez baitute mota hontako gasturik egiten. 2014 gastu hau %22,7 igo da, 44 milioi eta erdi eurori dagokiona.

Seigarren kontzeptua pakete turistikoan egindako gastuari dagokio, turistek bakarrik egiten dutena eta aurten %51,7 hazi dena, honela, 2014ean pakete turistikoan ia 113 milioi euroko gastua egin delarik (gastu totalaren %5,7), 2013an baino 38 milioi eta erdi euro gehiago.

Azkeneko kontzeptua elikagaiena izango litzake, eta turistek ekartzen dute. Ia 53 milioi euroak lortzen dituzte (gastu totalaren %2,7) eta interurteko %5,5eko hazkunde bat jasan dute, ia 3 milioi euro gehiago.

4.3.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak, hilabeteko (turistak eta txangozaleak). Urteko bilakaera 2010 – 2014

Bisitariek egindako gastuak hilabeteka aztertuz, ikusi dezakegu urtarrilan gastu baxuena 2010ean izan zela, 67 milioi eurorekin eta altuena aurten, interurteko %7,1eko hazkunde batekin 94 milioi eta erdi eurorarte.

Otsailak, 2010an ere bere kota baxuena ia 80 milioirekin lortzen du, eta 2013an bere maximoa, 93 milioi eta erdi eurorekin eta aurten jeitsi egiten da %6,2 batean, 87,7 milioietan geldituz.

Berriz ere, 2010eko martxoak adierazten du minimoa 94,8 milioirekin eta 2013ko hilabete honek markatzen du maximoa, ia 120 milioirekin, 2014ean %9 jeisten da, 109,5 milioi gastatuz.



2010ko apirilan aurkitzen

dugu gastu baxuena 97,5 milioi eurorekin, eta altuena 2014ean, 126,3 milioirekin, interurteko %9,3ko hazkunde batekin.

Martxoa eta apirileko datuak, urtearen arabera, txandakatu egiten dira, Aste Santuaren eragina dela eta, urte batzuetan martxoan eta besteetan apirilean izaten baita.

Maiatza, urteen joanean oso hilabete ezegonkorra izan da. 2010ean gastu minimoa ematen da, 111 milioi euroreki, eta 2014ean maximoa, 179 milioirekin, 2013an baino %37,5 gehiago.

2010eko ekainan ematen da balio minimoa 116,3 milioirekin eta berriz ere 2014ean maximoa 202,1 milioi eurorekin, eta hilabete ezberdinetan emandako hazkunde handienarekin, %43,5.

Uztailean eman den gastu baxuena 2010ean izan zen 145 milioi eurorekin eta altuena 2014an da berriz ere, 250,5 milioirekin, aurreko urtean baino %12,5 gehiago.

Abuztuak 2010ean izan zuen gastu baxuena, 187,9 milioirekin eta 2014ean 319,6 milioiak lortu dira, hilabete bateko gastuaren errekor historikoa lortuz, 2013arekin alderatuz %23,1 igoaz.

Irailak bere minimoa 2010an dauka, 144 milioi eurorekin eta bere maximoa 2014ean 197 milioi eurorekin interurteko %6,1ko hazkunde baten ostean.

2010eko urrian gastu baxuena eman zen, 119,3 milioi euro izan ziren eta balio altuena 2014. urtean lortu da 157,1 milioi eurorekin, interurteko %10,4ko hazkunde bat.

2011ko azaroa 90,4 milioi eurorekin gelditu zen eta 2014ean izan da zifra altuena lortu den urtea, 120,7 milioi euroak. 2013an baino %21,1 gehiago.

Azkenik, urteko azken hilabetean 102,1 milioi euro gastatu ziren 2010ean, eta gastua altuena 2013an izan zen, 142 milioi eurorekin, 2014ean %14,7 jeitsi direnak ia 121,1 milioi eurotaraino.



Eguneko batezbesteko gastuari buruz, esan beharra dago, hilabete eta urteen arteko aldaketak nahiko txikiak direla, eta 78,04 euroko 2010ko abenduko batezbesteko baliotik, 2014ko iraileko 139,67 euroko maximora doazela.

Normalean eguneko batezbesteko gastu baxuena abuztuan ematen da, ostatu-gau gehien egiten diren hilabetea, honek bidaiaren eguneko batezbestekoa jeisten duelarik.

2013ko urtarrilan, eguneko batezbesteko gastu hau 94,3 eurokoa izan da eta %5,4eko hazkunde bat jasan du aurreko urtearekin konparatuz, eta 2014ko gasturik baxuena urtarrilan izan da baita ere, batezbesteko 93.04 euroko gastua eta

%1,1eko beherakada.

Aurtengo eguneko batezbesteko gastu altuena irailekoa izan da %4,9 batekin eta 139,67 euroko balio batekin.

Beherakada nabarmenena otsailan gertatu da %13,5 batekin.

Ekaina izan da hazkunde gehien bildu duen urteko hilabetea, %35,9 batekin, 135,96 eurotan kokatuz.

Grafikan ikus daitekeen bezala, pertsonako batezbesteko gastuak, eguneko batezbesteko gastuaren antzeko jokaera erakusten du, baina turistek ekarritako balio altuagoekin.



Batezbesteko gasturik altuena 2010ean izan zen, azaroan, 165,65 euro, maiatzeko 161,23 euroak jarraituz. 2011ean ere hilabete hontan lortu zen gasturik altuena, 183,92 euro. 2012an, maiatzako batezbesteko gastua berriz ere bigarren postuan gelditu zen, 170,08 eurorekin, iraileko 180,77 euroen atzetik. 2013an batezbesteko gasturik altuena irailan gertatzen da berriz ere, 194,37 euro, eta maiatza, emaitza onak lortzen zetorren hilabetea, 141,26 eurotaraino jeisten da. 2014ean gasturik altuenak ekainan aurkitzen dira 209,97 eurorekin, irailan 205,81 eurorekin eta maiatzan 192,13 eurorekin. Orokorrean, batezbesteko gastuaren emaitza onenak aurkitzen ditugun hilabeteak maiatza eta iraila dira, aurten ekaina batu delarik.

Azken bost urteetako pertsonako batezbesteko gasturik baxuena 2010eko abuztuan ematen da 112,44 eurorekin.

Pertsonako batezbesteko gastu honen interurteko aldaketa 2014ean positiboa izan da, 12 hilabeteetatik 9rentzat. Pertsonako gastuaren beherakada otsailen %11koa izan da, martxoan %9,4koa eta abenduan %11,7koa.

2014ko bisitarien pertsonako batezbesteko gastua, lehenago aipatu den bezala, 171,34 eurotan kokatzen da. Maiatzatik urrira doazen hilabeteetan batezbesteko gastutik gora kokatzen da, 192,13 €, 209,97 €, 178,66 €, 189,55 €, 205,81 € eta 177,35 €-ko balioekin hurrenez hurren. Gainontzeko hilabeteetan, martxoko 132,45 €-etatik azaroko 157,94 €-etara doa.

Aurtengo interurteko hazkunde handienak ekainan %37 igo delarik, maiatzan %36 eta abuztuan %31,4 ematen dira.

4.4.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), bidaiari motaren arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Bidaiari motaren arabera bisitarien gastu totala aztertzean, ikusi daiteke, turistek egindako gastua txangozaleek egindakoa baina altuagoa dela azken bost urteetan.



Turisten gastuak gorakako joera bat marrazten du, 2013an mila milioi baino gehiagoko erekorra lortu harte eta 2014ean mila berrehun milioiak gainditzuz, aurreko urtean baino %16,4 gehiago.

Txangozaleen gastu osoak gorakako joera bat erakusten zuen, turisten gastuarekin alderatuz, 2011rarte, non bi gastuak 13 milioi euroko diferentzia bat azaltzen zuten. Momentu hontatik aurrera txangozaleen gastuak behera egiten du azken bi urteetan ia 700 milioi eurotaraino, berriz ere turisten gastutik bereizten, 300 milioi eurotakoa dena.

2014ean, txangozaletasunaren gastu totala, %7,7 batean berreskuratzen da, 55 milioi euro gutxi gorabehera. Turisten gastuarekin daukan aldea 450 milioi eurotan igo da, turisten gastuan egon den hazkunde handiagoa dela eta.



Eguneko batezbesteko gastuak gastu osoaren jokaera berdina erakusten du. Turisten eguneroko gastua %7,5 igoaz eta azken urteetako balio altuenak lortuaz, 158,85 euro eguneko.

Txangozaleen eguneko batezbesteko gastuaren %10,4ko gorakada, kasu honetan pertsonako batezbesteko gastuaren berdina delarik, ostatu-gaurik ez egiteagatik, gastu osoaren hazkundea baino proportzio handiago bat erakusten du.

Bere balioa 81,03 eurotaraino igo da, baina oraindik 2011ko bere emaitza onenetara iritsi gabe, baina gainontzeko urteetako kantitateak gainditzuz.

Euskadin txangozaleek eguneko turistek gastatzen duten diruaren erdia gastatzen dute.

Pertsonako batezbesteko gastuaren gainean, aurtengo turista eta txangozaleen arteko ezberdintasuna izugarria da, turistek bidaiako, pertsonako 572 euro gastatzen dituzten bitartean, 2013an baino %6,1 gehiago, txangozaleek 81 bakarrik gastatzen dituzte.



Turisten pertsonako batezbesteko gastuak, eguneko batezbesteko gastuen joera berdina erakusten dute.

Txangozaleen pertsonako batezbesteko gastua turistena baino 7 aldiz baxuagoa da. Honek argi uzten du, Euskadi bezalako norako batean, txangozale hauek turista bihurtzeak duen garrantzia, eta bide batez diru sarrera turistiko handiagoak lortu.

4.5.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), sarbidearen arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak, sarbidearen arabera, ezberdintasun handiak ditu. Gastu gehien egiten duten bisitariak errepide bidez datozenak dira. Logikoki, txangozaleek turisten aurrean daukaten garrantzia dela medio. Txangozaleak pilo bat izateaz gain, errepidez etortzeagatik bereizten dira. 2010. urtean errepide bidez sartzen diren bisitarien gastu totala aire bidez egiten dutenenaren bikoitza da. 2011ean diferentzia hau larriagotu egiten da, hirukoiztera iritsiz ia, 2012an aldiz behera doa, bikoiztera iritsiz berriz ere baina hirukoiztetik urrun, 2013an aldea txikiagotu egiten da, nahiz eta oraindik bikoiztera iristen den eta 2014ean aldea gehiago txikitzen da, aire bidezko eta errepide bidezkoen gastuarengan. Errepide bidez datozen bisitarien gastu totala, 2014ean %5,9 igo da (67 milioi euro).



Aire bidez sartzen diren turisten gastua marrazten duen lerroa, lerro zuzen eta lau batekin hasten da, oso makurdura txiki batekin, beherakoa, 2012an berriz ere gora doan arte, %14,2ko hazkunde batekin, 2013an jarraitzen du %8,8 batekin eta 2014ean hazkunde aszkoz ere argiago batekin, %26,1ekoa , ia 123 milioi gehiago.

Itsas bidea, bisitari gutxik erabiltzen dute, 2010etik sarbide honen gastuaren balioak behera doazelarik, 15 milioi euro baino gutxiagora jeitsiz 2012an. 2013an jokaera hau autsiz, %17,1 igoaz eta 17 milioi euroak gainditiuz eta orain, 2014ean, aire bidezkoaren proportzio berdinean igotzen da, %26,1 batekin, 21 milioi eta erdi eurotara iritsiz.

Aire bidezko bisitarien eguneko batezbesteko gastuak balio altuenak lortu dituzte 2010, 2011 eta 2012. urtean, 2011ean gora egin zuen 2010arekin alderatuz eta 2012 berriz, behera. 2013an 2012koarekin konparatuz 43 zentimo igo zen. Aurten, batezbesteko gasturik altuena izateari utzi dio, itsas bideko batezbesteko gastuari lekua utziz. Aurten aire bidezko batezbesteko gastua hobetu egin da, %14 igo da.



Itas bideko bisitarien eguneko batezbesteko gastua lehenengo 3 urteetan 110 eta 130 euroetatik zebilen, 2013an 175 eurotara igo zen, aire bidezko gastuaren gainetik kokatuz eta 2014ean gastu handiena izaten jarraitzen du, %38,2ko hazkunde batekin.

Eguneko batezbesteko gastu baxuenak errepide bidez datozen bisitariek dauzkate, txangozaleak direnak gehien bat. Aurten %6,1eko igoera bat izan du, sarbide guztien artean baxuena.

Pertsonako batezbesteko gastua aztertzean, aire bidezko bisitariek itsas bidezkoen gastua bikoizten dute urtero 2013an ezik, baina errepide bidez datozenek baino ia 10 aldiz gehiago dute.



Errepide bidez datozen bisitarien pertsonako batezbesteko gastua 2014ean %7,7 bat igotzen da, aire bidezkoena %4,2 eta itsasontziz egiten dutenena ordea %15 jeisten da.

4.6.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014



Bizilekuaren arabera gastu totala aztertzean, bi grafika sortu dira, bat Frantzian bizilekua dutenekin eta bestea gainontzeko herrialdeetako gastuekin. Banaketa honen arrazoia, beste herrialde hauen aldaketa eta proportzioak antz eman ahal izateko egiten da, frantsesek duten pisua ain handia da, hauen gastuak ikusteko grafikaren eskala egokitzea oso zaila dela, beste herrialdeen gastuak ikusi nahi baditugu. Txangozaleen gastua, gehienak frantsesak direnak, turisten gastuarekin batera, hauek ere frantsesak direlarik gehiengoan, bigarren herrialdearekin ezberdintasunak ain handiak dituzte, ezin direla eskala berdinean erakutsi. Adibidez 2014ean frantsesen gastu totala 1.002 milioi eurokoa izan zen eta gainerako beste 10 herrialdeak 27 eta 192 milioien artean daude.

Bisitari frantsesen gastu totala, aurten %7,2 igo da. Merkatu hau ekarpen handiena egiten duena da, eta askogatik, Euskadiko ekonomia turistikora. 2014. urtean bisitari frantsesen merkatuaren gastu osoaren kota altuena lortu zen, alde batetik 2011ean lortutako marka onena puskatuz eta bestetik mila milio euroko muga hautsiz.

Gainontzeko herrialdeen gainean, ikusi dezakegu, gastu total handiena daukaten herrialdeak Euskaditik urrunen daudenak direla. Joan etorriko garraioaren balioak gastu honen zati bat azaltzen du, urrunen dauden herrialde hauetan handiagoa delako. Gainerako Europakoek aurten 150 milioi eta erdi gastatu dituzte, iberoamerikarrek 192 milioi eta erdi, iparamerikarrek ia 111 milioi eta zehaztu gabeko munduko beste herrialdeek 156 milioi. Gertuago dauden herrialdeen artean Erresuma Batua da aipagarriena, 110 milioirekin, gero Alemania 95 milioi eta erdirekin. Gainerako herrialdeek ez dute gastu aipagarririk egiten.

Interurteko gastu hazkunde handiena Iberoamerikako bisitariek jasan dute %81,4 batekin, frantsesen atzetik gastu gehien lortzea ekarri duena. Erresuma Batuko biztanleak ere proportzio altuetan igo dira, %24,2 batean, azken bost urteetan alemaniarren gastua gainditu.

2014ean gainontzeko merkatu guztiak bere gastua igo dute. Munduko beste herrialdeetako bisitarien gastua da gutxien igo dena, %1,8.



Merkatu frantseseko bisitariek daukate eguneko batezbesteko gastuenik baxuena, Euskaditik gertuen daudenak eta txangozale gehienak aurki ditzazkegun merkatua, turisten gastuak baino gutxiago egiten dituztenak. Aurten, 6,47 euro igo dira, %8,1 bat, bere eguneko batezbesteko gastua 86,46 eurotan finkatuz. Frantsesen eguneko batezbesteko gastua, gainontzeko herrialdeen aurrean, urtero gastu txikiena da.

Bestalde, eguneko batezbesteko gastuenik altuena, iparamerikatako bisitariek daukate, 296,91 eurokoa, eta 2013rekin alderatuz %17,7eko gorakada batekin.

Munduko beste herrialdeetako bisitariak ere eguneko batezbesteko bigarren gastu altuena daukate, 268,18 euro, %12,1 gorakada handi baten ostean. Iberoamerikarren eguneko batezbesteko gastua, hirugarren postuan kokatzen dena, azken urtean gehien igo dena da, %48,1, 262,94 euro, 85,39 euro handituz, eta lehengo urtean ere gehien igo zena izan zen, honela, azken bi urteetan (2013 eta 2014) 11,86 eurotan igo da, 2012ko 151,08 euroen aurrean.

Azken bost urteetatik, aurten, eguneko batezbesteko gasturik handiena lortu duen jatorrizko merkatua frantziarra izan da, 86,46 eurorekin, britaniarra 145,69 eurorekin, italiarra 159,86 eurorekin, portugaldarra 108,65 eurorekin, iberoamerikarra lehen aipatutako 262,94 eurorekin eta aipatutako iparamerikarra ere, 296,91 euroko errekorrarekin.

Aurten bere gastu handiena lortu ez duten merkatuak, alemaniarra, 139,42 eurorekin 2012an, belgikarra, 134,50 eurorekin 2011ean, holandarra 129,01 euro 2010ean, Gainerako Europakoa 171,10 eurorekin 2013an (gainera azken urtean bere gastua jeitsi duen merkatu bakarra da, %13,2) eta azkenik Munduko beste herrialdeetakoa 2012an 275,84 eurorekin, dira.

Jatorri ezberdineko bisitarien eguneko batezbesteko gastuen balioan alde handiena, frantsesen eta iparamerikarren artean dago, 210,45.

Eguneko batez besteko gastua / Gasto Medio Diario



Pertsonako batezbesteko gastuak, bisitarien bizilekuaren arabera, Euskadin, txangozale frantziarren eragin handia du, horregatik bisitari hauen gastua merkatu guztien artean baxuena da. 2014ean, frantsesek,100,40 euroko eguneko batezbesteko gastu bat daukate. Frantsesen eguneko batezbesteko gastuaren maximoa azken bosturtekoan, interurteko %9,3ko aldaketa batekin.

Batez besteko gastua pertsonakoa / Gasto Medio por Persona



Gainontzeko herrialdeek gastu handiagoak dituzte garraio gastuak gehitzean besteak beste, eta ostatu-gauen aparteko izanik, eguneko batezbesteko gastuen kasuan, ostatu-gauen arabera gastu hau baretu egiten delarik. Geroz eta ostatu-gau gehiago eguneko batezbesteko gastu baxuagoa.

Logikoki, urrunagotik datozen bisitariek daukate eguneko batezbesteko gasturik altuena. Horregatik iberoamerikarrena da baliorik altuena 1.529,24 euro pertsonako izanik. Gastu hau 5 urteetan altuena izan da eta %4,9ko hazkunde bat jasan du. Iparamerikarrek ere 2014an gehien gastatzen duten bigarrenak dira, 1.305,39 euro pertsonako, lehengo urtean baino %5,9 gutxiago. Munduko beste herrialdeek osatzen duten merkatuak ere pertsonako batezbesteko gastu altua mantentzen du, 991,69 euro, %8,6ko beherakada batekin. Azken bi merkatu hauek pertsonako batezbesteko gastua jeitsi duten bakarrak dira, jatorri ezberdinetako bisitari guztien artean.

Gertuen dauden merkatuen barruan, beste gastu maila batean, Erresuma Batua aurkitzen da 575,12 eurorekin, italiarra 554,63 eurorekin eta alemaniarra 536,16 eurorekin. Portugal, pertsonako 179,82 euroko gastuan kokatzen da.

4.7.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Gastu totalaren %49,6, oporrak eta aisiaren arrozoiari dagokie (ia mila milioi euro), aurten bere kota altuena lortuaz %14,5 batekin. Zerbitzu pertsonaletan eta beste arrazoiengatik egindako gastuak batuaz, “erosketak” arrazoiarekin sortzen den nahasketa dela eta, arrazoiengatik egindako rankinean bigarren postuan daude, %36,4eko gastu bat lortuz (715 milioi euro), bere ibilbideko emaitzarik onena. Ondoko grafikan ikusi daitekeen bezala, 2010etik aurrera zerbitzu pertsonalak jeisten doaz (marra morea), beste arrazoien marra igotzen den proportzio berean (laranja), bi joerak orekatuz.



Hirugarren gastua aurten lanaren arrazoiengatik sortutakoa da (%11,0), %9,8ko gorakada bat jasan duena, eta azken postuan ikasketen arrazoia dago %3,0 bat irudikatzen duena, interurteko %84,3ko igoera batekin.

Eguneko batezbesteko gastu handiena salerosketengatik datozen bidaiariei dagokie, 151,74 euro eguneko, aurreko urtean baino %21 gehiago. Bigarren gastu altuena aisiagatik datozenei dagokie, 130,33 euro, eta %4,9ko hazkunde bat. Zerbitzu pertsonalen estadioa %7,8 bat hazi da 81,94 euroetaraino, zehaztu gabeko eguneko gastuekin konpentsatuz, 98,04 euro eguneko.

Ikasketengatik batezbesteko gastuak, eguneko 130,04 eurotako zifrak eragiten ditu, interurteko %44,4ko gorakada batekin.

Salerosketen arrazoiagatik datozen bidaiariek eguneko gastu handia daukate, batezbestekoa baino %30,9 bat altuagoa. Aisiagatik datozenek %12,5 bat, ikasketengatik datozenak %12,2 eta gainontzeko arrazoiak (zerbitzu pertsonalak eta besteak) batezbestekoaren azpitik daude, hau 115,90 €-koa delarik.

Ikasketengatik datozenen bisiten iraupenak, beste edozein bisitari motena baino askoz ere handiagoak direnak, beste edozein kolektibok izan dezakeen pertsonako batezbesteko gastu total handiago bat zehazten dute. Datu honen garrantzia ikusi ahal izateko, kontuan hartu behar dira bai bidaiari mota hauen sarrerak bai eguneko batezbesteko gastuak. Datu hauek ikusita esan daiteke eragiten duten gastu totala ez dela esanguratsuegia.

Gastua bolumen esanguratsu bat eragiten duten bisitarien artean dauden arrazoien artean, aipatzekoa da , Euskadira lana eta salerosketengatik etortzen diren bidaiarien pertsonako batezbesteko gastua. 312,10 eurorekin, bai aisiagatik (225,27 euros) bai arrazoi pertsonalengatik eta beste arrazoiengatik (187,05 eta 101,09 euro hurrenez hurren) etortzen direnak gainditiuz.





Pertsonako batezbesteko gastuaren interurteko aldaketak arrazoi guztietan gora doaz. Aisiagatik egiten den batezbesteko gastua %3,5 bat igotzen da, lanagatik egiten denarena %23,2,ikasketena %76,3, zerbitzu pertsonalena %41,7 eta beste arrazoiena %13.

2014ean pertsonako batezbesteko gastua, azken bost urteetako altuena da arrazoi guztietan, beste arrazoien estadioan ezik, 2011ean bere maximoa lortu zuena 125,77 eurorekin.

4.8.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), norako Lurralde Historikoaren arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Bisitarien gastu totala Gipuzkoako Lurralde Historikoan aurkitzen da bilduta orokorrean, berrehun milioi euroak gaindituz eta gastuen %65a bilduz.

Bizkaia ez da Gipuzkoan eragindako gastuaren erdira ere iristen, eta Arabak gastu totalaren %4 bat bakarrik jasotzen du.

Gipuzkoako gastua ain handia izatearen arrazoia, txangozale ia guztien gastua eta turista erdien gastua jasotzean datza.



Interurteko alderaketa EAEko bi lurraldeentzat positiboa da. Arabako bisitarien gastua %2,6 batean jeitsi da, Gipuzkoa bisitatzen dutenena %12,6 batean igo da eta Bizkaia bisitatzen dutenena %16,1 igo da. Balio absolutoetan, Arabako gastua 2 millioi euro baino gehiagotan jeitsi da, Gipuzkoan 142 milioi eurotan igo da eta Bizkaian ere gastua 85 milioi eurotan igo da.

2014an, Gipuzkoako eta Bizkaiako bisitarien gastuaren bolumenek errekor historikoak lortu dituzte, Arabak lehengo urtean lortu zuelarik 81 milioi eurorekin.

Gipuzkoako bisitarien eguneko batezbesteko gastua 101,91 eurokoa da. Aipatu den bezala, gastua hau baxuenetakoa da gehiengo bat txangozaleak direlako (81,03 €-ko batezbesteko bat gastatzen dutenak), eta turista frantsesen gastuak, 115,08 € euroko batezbesteko bat dutenak.

Arabako bisitarien eguneko batezbesteko gastua, Arabako turisten eguneko batezbesteko gastuaren berdina da ia, 126,57 euro, beraz argi geratzen da gastu honetan dagoen txangozeleen gabezia.

Bizkaiko bisitariak dira eguneko gastu handiena dutenak, turista asko daudelako. 159,62 euroko gastu honek, Gipuzkoa bisitatzen dutenena baino %56,6 bateko batezbesteko gastu handiagoa suposatzen du, eta Araba bisitatzen dutenena baino %27,5 bat handiagoa.



Arabako bisitarien eguneko batezbesteko gastua aurten %18,7 igo da eta hala ere 2010ean lortutako batezbesteko gastua ez du gainditzen, 128,89 euro. Gipuzkoan lehengo urtearekin konparatuz %10,2 igo da, Araban bezala, 2010eko datuak gainditu gabe, 154,80 €-koak izan zirenak. Bizkaiko batezbesteko gastua, ostera, Lurralde guztietan gutxien igo dena da (%9,3), baina 2014ean azken bost urteetako kota altuena lortu du.



Pertsonako batezbesteko gastuan da Lurraldeen artean ezberdintasunak gehien nabaritzen diren gastua..

Gipuzkoan ostatu-gaurik egiten ez duten pertsona asko daudenez, pertsonako batezbesteko gastua, pertsonako eguneko batezbesteko gastutik (171,34 €) nabarmenki aldentzen da eta gainontzeko bi Lurraldeetako eguneko pertsonako batezbesteko gastuetatik batik bat.

Pertsonako batezbesteko gastua Araban %5,5 bat igo da, 20,97 eurori dagokiona, Gipuzkoan %13,6 bat igo da (14,92 euro) eta Bizkaian %9,4 igo da, 2013an baino 49,76 euro gehiago.

4.9.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), norako turistikoaren arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Bisitarien gastu total nabarmenena Euskal Kostaldea norako bezala dutenen artean ematen da. Hauen artean Irun eta Hondarribira erosketak egiteko muga pasatzen duten txangozaleak daude.

Bigarren postuan Donostia/San Sebastian egongo litzake, txangozaleak eta turistak elkartzen direlarik.

Bilbora bisitarien zati handi bat dator, batez ere turistak, norako turistikoen hirugarren postuan jartzen dutenak.



Euskadiko barnealdeko bisitarien gastu totalak, Gipuzkoako merkatal zentruetara erosketak egitera datozen txangozaleek eta Bizkaia eta Vitoria/Gasteizera datozen turista gutxi batzuk osatzen dute, gastuen %3 bat baino zerbait gehiago dutelarik.

Aurreko urtearekin konparatuz jeitsi den gastu total bakarra, Vitoria/Gasteizeko gastua izan da, %5eko atzerapen batekin. Arabar hiriburura datozen bisitariek eragindako gasturik handiena lehengo urtekoa izan zen, ia 74 milioi eurorekin.

Gehien hazi direnak Donostia/San Sebastianekoak eta Bilbokoak dira, interurteko %19,8 eta %19,1 hazkunde batekin, hurrenez hurren. Norako turistiko hauetan, aurtengo gastu totalak azken bost urteetako handienak dira.

Euskal Kostaldearen gastu totala ere aurten izan da azken bost urteetako handiena eta 2013arekin konparatuz %6,2 bat igo da. Barnealdean, gastu totala interurteko %8,6 batean igo da, baina bere datu onena 2012koa izan zen, 111 milioi euro baina pixka bat gehiagorekin.



Bizkaiko hiriburura datozen bisitarien eguneko batezbesteko gastua, norako turistiko guztien artean handiena da interurteko %5,6ko hazkunde batekin. Bigarren postuan Donostia/San Sebastian-eko bisitarien eguneko batezbesteko gastua dago, izandako %15,9ko hazkundeari esker, eta Vitoria/Gasteiz-era etortzen diren bisitarien

gastua oso gertu dago, Arabako Lurralde Historikoko gastu antzenko batekin eta interurteko %16,7ko gorakadarekin, Arabako bisitari gehienak hiriburura doazela irudikatuz.

Donostia/San Sebastian-eko bisitariak Gipuzkoarekin alderatuz, eguneko batezbesteko gastua igo egiten dute, Gipuzkoako txangozale gehienak Euskal Kostaldera doazelako, eguneko batezbesteko gasturik baxuena dutenak direlarik, %7,2ko igoera bat jasanez. Barnealdeko bisitariek ere, txangozaleen eguneko batezbesteko gastu tipiko bat erakusten dute, azken urtean %1,3 bat igoaz.

Euskadiko zona turistikoetan emandako batezbesteko gastu onenak, 2010ean Vitoria/Gasteizen gertatu ziren, aurten baino 3,07 euro gehiagorekin. Bilbok 2010ean 8,49 €-tan gainditu zuen gaur egungo batezbesteko gastua eta Donostia /San Sebastianen berdin gertatu zen, 2010ean gaur egun baino 33,39 € gehiago lortu ziren. Euskal Kostaldearentzat urtea aldatu egiten da, 2011ean gaur egun baino 11,99 € gehiago lortuz eta azkenik Barnealdearentzat urte onena 2010a izan zen berriz ere, gaur egun baino 48,05 € gehiagorekin.



Bisitarien eguneko batezbesteko gastuak orain arte ikusitakoa baieztatzen du, Vitoria/Gasteiz eta batez ere Bilbok, ostatu-gauak egiten dituzten turisten gastu tipikoak irudikatuz, 389,18 eta 641,13 eurokoak hurrenez hurren

Bilbo bisitatzen dutenen pertsonako gastua, hegazkina sarbide modura erabiltzen duten turistengatik igotzen da.

Euskal Kostaldeko bisitariak dira gutxien gastatzen dutenak, Barnealdekoek jarraituz. Euskal Kostaldea ez bezala, beste norakoak pertsonako gastua nabarmenki igo dute turista gehiago dituztelako proportzionalki.

Pertsonako batezbesteko gastuaren interurteko eboluzioa, norako turistiko guztientzat egokia izan da, 2014 hontan denetan gastua igo egin baita.

Vitoria/Gasteiz eta Bilbon, aurtengo pertsonako batezbesteko gastua azken urteetako altuena izan da. 2014ean Vitoria/Gasteiz %2,8 batean igo da eta Bilbo %11,5 batean. Donostia /San Sebastianen pertsonako batezbesteko gastua %23,7 bat igo da, Euskal Kostaldean % 5,2 eta Barnealdean %23,7.

5. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTEN GASTUAK

5.1.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Euskadira etortzen diren atzerriko turisten gastuak interurteko %16,4eko hazkunde bat jasan du, 1.206 milioi eta erdi eurotara iritsiz. Azken bost urteetan gastua igotzen joan da. Lau urtetan gastua %68,9 batean igo da, Euskadiko ekonomia turistikoarentzat sekulako datua, berriz ere krisia eta gero sektorearen berreskuratzea irudikatzen duena.



2011ean 141 milioi baina zerbait gehiago igo zen, 2012an hazkundea txikiagoa izan zen, 55 milioi eta erdikoa, 2013an berriz bikoizten da, 124 milioi eta erdiko hazkundearekin eta azken urte hontan, urte guztietan egon den hazkunde handiena eman da, gastu totala 170 milioietan haziz. Guztira, lau urte hauetan, pilatutako hazkundea 491 milioi euro baino gehiagokoa izan da.

Aurten, turisten eguneko batezbesteko gastuak (158,85 €) 11,09 euro irabazi ditu aurreko urtearekin alderatuz, %7,5.

2013an hazkundea 16 eurokoa izan zen 2012arekin alderatuz (%12,1).

2012an turisten batezbesteko gastuak geldialdi bat jasan zuen, %0,1 bat jeitsi baitzen 2011arekin konparatuz. 19 zentimo galdu zituen.



2011ean 6,96 eurotan igo zen batezbesteko gastua 2010koarekin alderatuz, %5eko hazkunde bat irudikatuz.



Turisten pertsonako eguneko batezbestekoa 571,95 eurotan kokatzen da, aurreko urteko gastuaren %6,1 gainetik.

Turistako batezbesteko gastuak, eguneko batezbesteko gastuaren jokabide antzeko bat aurkezten du, alde bakarra, honek 2011ean jasan zuela geldialdia eta ez 2012an eguneko batezbesteko gastuak bezala.

2011ean, beherakada %0,5ekoa izan zen (2,38 euro gutxiago, 2012an %2,6 igo zen (13,29 euro), 2013an %3,3koa izan zen hazkundea (17 euro) eta aurten igoera 32,90 eurokoa izan da. Orokorrean, 2010etik 2014era 60,82 eurotan hazi da saldoa.

5.2.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoaren banaketa. 2014. Urtea

Turistek joan-etorriko garraioan egiten dute gastu gehiena, 465 milioi euro baino gehiagorekin, aurreko urtean baino %16,9 bat gehiago. Ekarpen honen gehiengoa aire bidez datoztelako ematen da, itsas bidekoa baina garestiago delako eta baita berezko ibilgailuaren erabilera baino.

Honi, norakoan garraioan egindako gastua gehitu ezkero (56 milioi eta erdi, 2013ean baino %9,6 gehiago), garraioan egindako gastu totala 521 milioi baino gehiago izango litzateke (guztiaren %43,2).

Ostatuan egindako gastua ere oso garrantzitsua da, (240 milioi eta erdi euro baino gehiago) lehengo urtean baino %22,7 gehiago.



Neurri txikiago batean, taberna eta kafetegietan egindako gastuak daude (160 milioi euro %9,8ko hazkunde batekin), txango eta besteetan (118 milioi eta erdi eta %1,6ko interurteko berakada bat), pakete turistikoa erabiltzen dituztenen ekarpenak (ia 113 milioi euro eta %51,7ko hazkunde bat) eta azkenik elikagaietan egiten diren gastuak (ia 53 milioi euro eta %5,5ko hazkunde bat).

5.3.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, hilabeteko. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Hilabete desbedinetan, turisten gastuak, jokaera antzeko bat mantentzen du, ohiko aldaketekin.



Aurten, hilabete gehienetan azken urteetako kota altuenak lortu dira, otsailan eta abenduan izan ezik, 2010ean eta 2013an, hilabete hauetan egon zen gastua handiagoa izan baitzen.

2014ko urtarrilan, turisten gastu totalaren interurteko hazkundea %18,5ekoa izan da, hau da, 8.583.780 euro. Otsailan hazkundea %0,5ekoa izan da (238.560 euro), martxoan %1,8 (1.203.458 euro gehiago), apirilan %11,1 (7.387.383 euro), maiatzan %53,4 (42.464.229 euro), hilabete hau izan delarik gastua gehien igo duena azken urtean gainerako hilabeteekin alderatuz.

Ekainak ere hazkunde handia jasaten du, %44,7koa, 2013an baino 39.035.620 euro gehiago. Uztailean hazkundea %16,4koa izan zen (23.238.493 euro gehiago), abuztua %9,5eko hazkunde batekin (15.708.671 euro), iraila %10,2 (12.731.928 euro), urria %10,3 (9.053.590 euro), azaroa %36,6ko hazkunde garrantzitsu batekin (18.224.492 euro) eta azkenik abendua, urte guztian zehar interurteko aldaketa negatiboa duen hilabete bakarra, %10,3 bat galdu du, hau da, 2013an baino 7.610.374 euro gutxiago.

Udako sasoiak (ekaina, uztaila, abuztua eta iraila), Euskadiko turisten gastu osoaren erdia (%50,5) bateratzen du (609.697.897 euro).

Turisten batezbesteko gastuak urte guztietan hilabeteetan zehar gastu aldakor bat aukezten du, tontor ezberdinak markatuz, bai kota altuetan bai baxuetan.

Hilabeteei begira gastu totalaren azterketan, ikus daiteke, interurteko aldaketa hilabete guztientzat positiboa dela abenduarentzat ezik, hala ere, turisten batezbesteko gastuan, aldaketa negatiboa da 12etako 5 hilabeteentzat.



Aurtengo urtarrilan, eguneko batezbesteko gastua 136,00 euritakoa da, aurreko urtean baino %11 gutxiago. Kota altuena 2011ean lortu zuen, eguneko batezbesteko 157,95eko gastu batekin, aurten baino 21,95 euro gehiago.

Otsailan batezbesteko gastua 145,56 eurokoa da %13,3 bat jeitsi ondoren. Bere balio altuena lehengo urtekoa izan zen 167,94 euroko gastu batekin, aurten baino 22,28 euro gehiago.

Martxoak interurteko %10,8ko hazkunde positiboa lortzen du, 177,27 eurotan kokatuz, azken bost urteetako batezbesteko gastu altuena markatuz.

Apirila gutxiago jeisten da, %1,3, 145,66ko batezbesteko gastu bat markatuz. Bere batezbesteko gastu onena lehengo urtean izan zen, 147,52 eurorekin, 1,86 euroko aldea.

Maiatzan aurtengo batezbesteko gastua azken urteetako altuena da, %22,2ko hazkunde batekin 2013arekin alderatuz, 163,02 eurotaraino iritsiz (29,67 euro gehiago).

Ekaina da hazkunde handiena daukan urteko hilabetea, %33,6 batekin, eta aurreko hilabetean bezala aurten markatzen du gasturik altuena 177,72 eurorekin, 2013an baino 44,72 euro gehiago.

Uztailak ere azken urteetako batezbesteko gasturik altuena lortzen du, 156,56 euro, %17ko hazkunde batekin (22,70 euro).

Abuztua da batezbesteko gastua jeisten duen hilabeteetako bat, egonaldiaren ostatu-gauen igoera dela eta, eta 2014ean 116,65 eurotara jeisten da, azken bost urteetako emaitzarik txarrenetakoa eta aurreko urtean baino %7,7 gutxiagorekin (9,71 euro gutxiago).

Irailak izan duen emaitzarik onena ere aurten izan da (212,59 euro) %6,2ko hazkunde batekin, 2013an baino, hau da bere marka onena baino, 12,33 euro gehiagorekin

Urrian berdin gertatzen da, %13,2ko hazkunde batekin, bere batezbesteko gasturik altuena markatzen du, 215,94 euro, 2013an baino 25,19 euro gehiago eta gainera emaitza onena duen urteko hilabetea izanik.

Azaroan, %16,8ko hazkunde batekin, 193,03 euroak lortu dira, aurreko urtean baino 27,73 euro gehiago eta azken urteetako gastu altuenarekin.

Abendua, bere gastu totala jeisten zuena, bere batezbesteko gastua %7,2n igotzen du eta aurten bere kota maximoa lortzen du 141,15 eurorekin, lehengo urtean baino 9,51 euro gehiago.



Turisten batezbesteko gastua urteko hilabete ezberdinetan, aurten, maiatza, ekaina, iraila eta urrian jartzen da buruan.

Aurtengo urtarrilean, pertsonako batezbesteko gastuan %5,7ko igoera bat egon da. Otsailak %8,5 bat jeisten da, 490,21 €-tan gelditu. Martxoa gora doa 545,58 €-ko, %5,1, hazkunde batekin eta apirila behera 496,88 €-ko beherakada batekin, interurteko %7,6ko beherakadarekin. Maiatzak eta ekainak, 708,62 eta 674,33 eurorekin %42,2 eta %29,8ko gorakada esanguratsu bat jasaten dute, hurrenez hurren. Uztaila berriz behera doa 506,38 €-taraino, %2,6ko beherakada batekin. Abuztuak 2013an galdutakoaz gain %0,3 bat galtzen du, Iraila eta urria %5 eta %3,9 bat igotzen dira hurrenez hurren. 2014ko azken bi hilabeteek era ezberdinean jokatzen dute aurreko urtearekin konparatuz, azaroak gorakako joera batekin jarraitzen duen bitartean, %27,6 batean gora eginez, 671,40 €-ko batezbesteko gastu batekin, abenduak %12,2 galtzen du eta 540,81 €-ko gastua du.

5.4.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, sarbidearen arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Sarbideari begiratuz, aire bidea da gastu total gehienak ematen diren sarbide mota. Gastu hauek beherakada iraunkor batetik zetozen eta 2012an beherakako joera hau hautsi egin da %14ko hazkunde handi batekin, 2013an finkatu egiten dena %8,8ko igoera batekin eta orain, 2014ean, modu ikaragarri batean igotzen denean, %26,4 irabaziz, ia 153 milioi euro.

Errepideak ibilbide ezberdina erakutsi du, 2011ean jauzi handi bat egiteko (%70), 2012 a %2ko beherakada batekin jarraitu, 2013an %20,6ko hazkunde handi batekin segi eta 2014ean gutxiago haziz, %4,3.



Itsas bidea erabiltzen duten turisten gastu totala 2012raino beheraka egiten dator. 2013an %16,5 bat berreskuratzen du, 13 milioi eta erdi euroak gaindituz eta 2014ean %10,3 atzeraka egiten du.

Aireportu bidez datozen turisten artean, eguneroko batezbesteko gastua handiagoa da. Logikoki, sarbide hau erabiltzen dutenen eguneroko batezbesteko gastuak txartelen kostua jasan behar du, ostatu-gauen arabera hau gehiago edo gutxiago disolbatuz. Aurten eguneko gastua %14,3 batean igo da.



Errepide bidez datozen turisten eguneroko batezbesteko gastuak, 2010etik 2012ra 95 eurotatik 106 eurotara igo da eta 2013an da bere kota altuena lortzen duen urtea %22,9ko hazkunde batekin, 25 euro gehiago gutxi gora behera eta 2014ean bere eguneko batezbesteko gatua jeisten du %2,4 batean, 3,17 euro gutxiago.

Itsas bidetik datozen turisten eguneroko batezbesteko gastu 2011rarte erortzen joan da. 2012an galera honen zati bat berreskuratu duelarik, %28,1, eguneroko batezbesteko gastua errepidetik datozenenaren gainetik kokatuz, eta 2013an berriz ere %34,1 bat berreskuratzen du, errepide bidezko eguneko batezbesteko gastua gaindituz eta aireportukora gerturatuz. 2013ko hobekuntza hau 2014ean errepikatu egiten da, errepide bidezko turisten eguneko batezbesteko gastutik gehiago aldenduz, eta aireportu bidezkoen eguneko gastura gerturatuz, 10 euroko alderarte.

Turisten pertsonako batezbesteko gastuek, eguneroko batezbesteko gastuaren patroi berdina jarraitzen dute, garraio mota ezberdinen artean balio urrunagoekin.



Aire bidezko turisten pertsonako batezbesteko gastuak gorakako joera bat erakusten du. Gaur egun interurteko igoera %4,3koa da.

Errepidean aurten pertsonako batezbesteko gastua %1,1 bat jeitsi da, eta itsas bidekoa %6,3 bat jeitsi da ere.

Bide ezberdinak erabiltzen dituzten turisten pertsonako batezbesteko gastuen ezberdinatasuna handia da. Errepideken 322 euroetatik, itsasontzi datozenen 649 eurotara, eta aire bidez datozen turisten 1.118 eurotara doaz.

Errepidez sartzen diren turisten pertsonako batezbesteko gastuak, hegazkinez sartzen diren turisten pertsonako gastuaren %28,8 bat suposatzen dute, eta itsas bidez etortzen diren turisten pertsonak gastuak, hegazkinez egiten dutenenaren %58a suposatzen du.

5.5.- Euskadira etortzen diren turisten gastua,k bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Euskadiko ekonomiarentzat merkatu turistiko onuragarriena frantsesa da, eta aurten gastuaren interurteko %6,5eko igoera bat jasan du. Frantziatik datozen turistek Euskadiko merkatu turistikoaren %26 bat irudikatzen dute. Merkatu frantsesaren gastu totalak, azken bost urteetan, bi igoera nabarmen jasan ditu. Garrantzitsuena 2011ean gertatu zen, no gastuak, 2010arekin konparatuz, %83ko igoera bat jasan zuen, eta bigarrena 2013an izan zen, 2012arekin konparatuz, gastua %25,1 igo zenean. Gorakada jarraiean doan merkatu hau, lau urtetan, urteko gastu orokorra 178 milioi eta erdi eurotan igo du.



Bigarren postuan iberoamerikarren merkatuaren gastu totala aurkitzen da, gastu totalaren %15,7 batekin eta aurten %83,1 bat hazi delarik 2013aren aurrean, 190 milioi euroko ekarpen batekin.

Hirugarren maila batean gainerako Munduko beste Herrialdeetako biztanleak daude, 147,6 milioko gastu batekin, eta %1,5eko hazkunde bat, ondoren Gainerako Europako biztanleak 137,4 milioi euroko gastuarekin eta %21,1eko hazkundea eta azkenik iparamerikarrak 107 miliorekin eta 2013arekin alderatuz %0,4ko hazkunde batekin.

Gertuen dauden Europako herrialdeetatik, Frantziaren atzetik Erresuma Batua dago, 102,6 miliorekin eta %22,8ko hazkunde batekin. Gero Alemania dago, 90 milioierekin, eta %3,6eko hazkunde batekin.

Gastu totalen azkeneko geruzan italiarrak daude 39 milioi eurorekin eta interurteko %20,4ko hazkunde batekin, Portugaldarren gastuak jarraitzen diolarik, 28 milioi eta erdi eurorekin eta %1eko igoera txiki batekin. Turista holandarren gastua aurten %33,8 igo da 27,2 milioi euroak lortuz eta azken postuan merkatu belgikarrraren gastua dago, 23,9 milioi eurorekin eta 2013arekin alderatuz %11,3ko hazkunde batekin.

Esanguratsua da, 2014ean, turisten gastu totala igo egin dela Euskadik dituen merkatu igorle guztietan.

Azken bost urteetan merkatu guztien hauen gastu total handiena 2014ean izan da: frantsesa, alemaniarra, britaniarra, italiarra, belgikarra, Gainerako Europarra, iberoamerikarra, iparamerikarra eta Munduko Beste Herrialdeetakoa. Merkatu portugaldarrak 2012an lortu zuen gasturik handiena, 49,8 milioi euro eta holandarrak 2011ean, 31,8 milioi euro.

Eguneko batezbesteko gastu globala, 158,85 euro dira, eta merkatu turistikoak diferentzia handiak erakusten dituzte honen gainean. Eguneko batezbesteko gastu altuena duen multzoa, iparamerikarrek osatzen dutena da, 291,95 euro egunekorekin. Bigarren postuan munduko beste herrialdeetako merkatua dago (265,91 €), gero iberoamerikarra 262,73 eurorekin, ondoren italiarrak 160,11 eurorekin, Gainerako Europakoak 149,04 eurorekin, ingelesak 142,99 €, alemaniarrak 130,60 €, portugaldarrak 124,46 euro, belgikarrak 123,15 euro, holandarrak 116,93 euro eta frantsesak 115,08 euro egunekorekin.



Bizi diren herrialdearen arabera turistek eta beren eguneko batezbesteko gastuek erakusten dituzten jokaerak oso ezberdinak dira. 2010etik gorakako joera bat erakusten duten merkatu bakarrak, ingelesa eta iparamerikarra dira.

2014ko eguneko batezbesteko gastuaren interurteko aldaketaren gainean, positiboa izan dela esan daiteke merkatu hauentzat: iberoamerikarra, %49 bat hazi dena, italiarra, %24,8, iparamerikarra %16,2, Munduko beste herrialdeena %13,7, portugaldarra %11,7, alemaniarra %3,1, ingelesa %2,8, holandarra %2,2 eta frantsesa %1,1. Gainerako Europarentzat ordea, negatiboa izan da, %12,2ko beherakada batekin, eta baita Belgikarentzat, %10,1eko galera bat eduki duena.

Pertsonako batezbesteko gastuaren ezberdintasunak merkatu ezberdinen artean, Euskadin egindako egonaldiaren luzaerarekin zer ikusia dute. Errepide bidez sartzen errazena den merkatuak, frantsesak, pertsonako batezbesteko gastua baxuago bat aurkezten du.

Urrunago daudenak, merkatu hauen ohiko bisiten egonaldien luzera dela eta, pertsonako gastu handienak eragiten dituztenak dira.

Iparamerikako merkatuak pertsonako batezbesteko 1.367 euroko gastu batekin, munduko beste herrialdeetakoak 1.133eurorekin, gainerako Europa 876 eurorekin eta batez ere, iberoamerikarra 1.626 eurorekin, pertsonako batezbesteko gastutik asko aldentzen dira, azken hau 572eurokoa delarik

Gainontzeko merkatu nagusiei dagokienez, pertsonako gastua batezbestekoa baino azkoz altuagoa da, ingelesen (684 euro) eta alemaniarren (683 euro), pixka bat altuagoa italiarren artean (592 euro), zerbait baxuagoa ordea, holandarren (570 euro) eta belgikarren (557 euro) artean, eta pertsonako batezbesteko gastua baino askoz baxuagoa portugaldarren (379 euro) eta frantsesen kasuan (281 euro).



Pertsonako batezbesteko gastuak ingelesen artean izan du hazkunde handiena azken urtean, %14,8, italiarrek jarraituz (%7,6), ondoren fratsesek (%2,5), gero alemaniarrek (%1,5) eta azkenik Gainerako Europakoek (%1,4).

Belgirrek pertsonako batezbesteko gastua %15,2 batean jeitsi dute, portugaldarrek %12,6 batean, iparamerikarrek %5,4 batean, Munduko gainontzekoek %4,8 batean, holandarrek %2,7 batean eta iberoamerikarrek %1,4 batean.

Pertsonako batezbesteko gastuak Gainerako Europako Herrialdeetan bizi diren turistentzat, azken bost urteetan gorakako joera bat mantendu du.

5.6.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Aisiak eta salerosketek Euskadiko atzerritar gastu turistikoaren %81,3 eragiten dute.

793 milioi euro eragin dituzte gutxi gora-behera eta totalaren %65,7 bat, aisia eta oporrak, txanpon sarrera turistikoaren arrazoi nagusia bilakatzen dira. Aurten arrazoi hau %11,9 bat hazi da azken bost urteetan. Lanarengatik datozen turisten gastuen kopuruak (187,4 milioi), interurteko %14,8ko aldaketa positibo bat aukezten du.



Arrazoi pertsonalengatik datozen turisten gastua %5,9 bat igo da, aurreko urtearekin konparatuz, 114,4 milioietara iritsiz. Beste arrazoi batzuengatik egindako gastuak bere diru ekarpenak igoera ikaragarri bat jasan du, bere ekarpen monetarioak bikoiztuz (%110,4), 53,9 milioi eurotaraino.



Aisia eta oporren arrazoiagatik egindako eguneko batezbesteko gastuak, lanaren arrazoiarekin, lehengo postua txandakatzen zetorren, baina 2014ean hirugarren postura atzeratua izan da beste arrazoiengatik datozen turisten eguneko batazbeteko gastuak izan duen hazkunde ikaragarria dela eta, %58,3 bat, 128,43 €-ko gastu batetik, 203,29 €-ra pasa dena (74,86 € gehiago).

Bigarren postuan lanaren arrazoiak daude 190,99 €-rekin eta %19,4 hazkunde bat.

Hirugarren postuan aisia, interurteko %3,2 irabazi batekin eta 171,77 eurorekin.

Gainontzeko arrazoiak hauen azpitik kokatzen dira, baita eguneko batezbesteko gastuaren azpitik, 158,85 eurokoa dena. Ikasketen arrazoiak aurten lortzen du bere kota altuena, interurteko %41,9ko hazkunde batekin eta 132,26 eguneko eurorekin. Arrazoi pertsonalek ere aurten joera aldakor bat erakusten dute, 2014ean %1,2ko beherakada batekin eta eguneko 88,31 euroko gastuarekin.

Ikasleek eragindako pertsonako batezbesteko gastu altuak (1.346,46 euro), egonaldia luzeak direla eta, ezin da beste motibazio tipologiekin konparatu. Hala ere, ez dauka eragin handirik sortutako gastu totalaren bolumenean, eguneko gastu txikia eta turisten kopuru txikia dela eta.



Gastu totala eragiten duten arrazoi garrantzitsuenen artean, salerosketak 741,58 euroko gastuarekin, pertsonako gastu gehien erakusten dutenak dira, aisiagatik datozen turisten pertsonako gastua baino 199 euro gehiagokoa da (542,30 euro). Arrazoi pertsonalengatik datozenen pertsonako gastuak (440 euro) aisiarekin batera, batezbestekoaren azpitik kokatzen direnak dira, hau 571,95 eurokoa izanik. Beste arrazoiek urte guztietako zifrarik onena lortu dute aurten, 587,80 euro, lehengo urteko gastua bikoiztuz (%97,7).

Gainontzeko arrazoien azken urteko aldaketari dagokionez, kasu guztietan positiboa izan da, 2013arekiko pertsonako gastua haziz. Aisiagatik %0,4 igo da, lanagatik %5,5, ikasketengatik %23,7 eta zerbitzu pertsonalengatik %7,1.

5.7.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014



Gehien gastatzen duten turistak 2 eta 3 ostatu-gau bitarte egiten dituztenak dira, 450 milioi eurorekin, eta gastu osoaren %37,3 bat suposatzen dutelarik, %28,3ko hazkunde bat irudikatuz. Egonaldi hauek dituzten turisten gastuak, azken bost urteotan, ia bikoiztu egin dira.

Ostatu-gau bakarreko egonaldia egiten duten turistek gastu osoaren %18,6 bat suposatzen dute, 224 milioi eta erdi euro baino gehiagorekin eta interurteko %3,1eko hazkunde batekin. Bere joera gorakakoa izan da, 2012an egon zen geldialdi bat kenduta, 3 milioi eta erdi galdu ziren urtea. Bi tarte hauek batuaz, egonaldi motzek (bat, bi eta hiru ostatu-gau), Euskadiko turisten gastuaren %55,9 a biltzen dutela ikusi daiteke (674 milioi eta erdi euro).

4tik 7ra bitarteko egonaldiek gastuaren %23,2 bat eragiten dute, 280 milioi euro eta %11,2ko hazkunde batekin. Aste bateko egonaldiko turista hauen gastua 2010etik progresiboki igotzen dator.

8tik 15era bitarteko egonaldiak egiten dituzten turistek gastuaren %9 a suposatzen dute, 109 milioirekin, eta interurteko %23,4ko hazkunde batekin. Kolektibo hontako gastuek, gorakako joera bat zeramatzaten, lehengo urtean izandako %6,7ko beherakada txikia kenduta 2012arekin alderatuz, 2014ean soberan berreskuratu dena.

15 egun eta hilabete arteko ostatu-gauak egiten dituzten turistek, 68 milioi euroko gastu bat eragiten dute, interurteko %8,9ko hazkunde batekin. Turista mota honen gastuak, jokaera aldarkor bat erakutsi du azken bost urteetan, gorakada eta beherakada jarraituekin. 2012an lortu zuen gasturik altuena gaur egun baino 11 milioi euro baino gehiagorekin.

Azkenik, egonaldi luzeenak egiten dituzten turistek bere gastua %15,5ean igo dute, 75 milioi eta erdi euro pilatuz, gastu turistiko guztiaren %6,3 a irudikatzen duena. Azken urteetan bere jokaera aldakorra izan da, 2011an lortu zuelarik bere emaitzarik onena, 105,1 milioi euroko gastuarekin.



Ikusi daitekeen bezala, turisten eguneko batezbesteko gastua, egonaldiaren luzerakiko alderantziz proportzionala da. Ostatu-gau gehiagora, eguneko gastu gutxiago.

Egonaldi laburrentzat (3 ostatu-gaurartekoak), batezbesteko gastua, eguneko batezbesteko gastuaren gainetik kokatzen da, hau 158,85 eurokoa baita eta 4tik gorako ostatu-gaueko egonaldientzat eta goragokoentzat batezbesteko honen azpitik kokatzen da.

Eguneko batezbesteko gastuak, turisten egonaldien arabera, ez du inongo egonaldi motetan jokaera bitxirik erakusten. Kasu guztietan gorakada eta beherakada txikiak aurkezten ditu, eta urte batzuetan eta besteetan era ezberdinean.

Eguneko batezbesteko gastuaren interurteko igoera handiena egonaldi luzeetan gertatu da, hilabete baina gehiagokoak, %19,7ko hazkunde batekin, jarraian 8tik 15erakoak daude %12,2 batekin. 2tik 3rako egonaldiak egiten dituzten turistek, bere batezbesteko gastua %11,9 batean igo dute eta 16tik 30 ostatu-gauerako egonaldien kasuan hazkundea %6,6koa izan da.

Bestalde, ostatu-gau bakarreko eta 4tik 7ra bitarteko ostatu-gaueko egonaldiak egiten dituzten turisten batazbesteko gastuak, %1,8 eta %1,9ko beherakada bat irudikatu dute.

Turisten pertsonako batezbesteko gastua, egonaldiaren iraupenarekiko zuzenki proportzionala da. Ostatu-gau gutxiagora, pertsonako gastu baxuagoa.

Pertsonako gastua, hilabete baino gehiagoko egonaldiak egiten dituztenen 5.012 eurotatik, gau bakar batekoa egiten duten turisten 286 euroetara doa.

Ostatu-gauen arabera bereizitako turistek egiten dituzten pertsonako gastuak, hiru multzo ezberdintzen dituzte. Alde batetik ostatu-gau asko egiten dituztenak (7 gau baino gehiago) oso gastu handia egiten dutenak, pertsonako 1.000 euroetatik gora, beste alde batetik ostatu-gau ertainak, 4tik 7ra, 2014ko batezbestekoaren pixka bat gainetik daudenak, hau 571,95 eurokoa izanik, eta azkenik ostatu-gau gutxikoak, 4 gau baino gutxiago, batezbestekoaren azpitik kokatzen direnak.



Egonaldi motzak egiten dituzten turisten artean ostatu-gau bakar bat egiten dutenak, 285,97 euroko pertsonako batezbesteko gastu bat daukate eta 2013arekin alderatuz %1,9 bat jeitsi dira, eta 2tik 3rako ostatu-gauekoak, 565,60 euroko pertsonako batezbesteko gastu bat daukate eta %12,4 igo dira, daude.

Egonaldi ertainak, 4tik 7ra bitarteko ostatu-gau, egiten dituzten turisten pertsonako batezbesteko gastua 725,84 eurokoa da, interurteko %1eko atzerapen batekin.

Egonaldi luzeen artean, estrato gehiagotan zatitzen direnak, 8tik 15era bitartekoen pertsonako gastuak daude, 1.165,43 eurorekin eta %13,3ko hazkunde batekin, 16tik 30era ostatu-gau ematen dituztenen batezbesteko gastuak 1.984,70 eurorekin eta interurteko %8,1eko hazkunde batekin eta hilabete baino gehiagoko ostatu-gauak egiten dituztenen gastuak 5.011,92 eurorekin eta %12,6ko hazkundearekin.

5.8.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Ostatu tipologi ezberdinen artean, hotelek eragiten dute gastu turistikoaren gehiengoa. 758 milioi euro dira, turistek eragindako gastuaren %62,9 suposatzen duelarik. Ikusi daitekeen bezala, bere hazkundea iraunkorra izan da eta tamaina handikoa. Azken urte hontan %19,6 bat igo da, 2013an baino 124,4 milioi gehiago.



Famili edo lagunen etxebizitzan ostatu hartzea bigarren postuan dago, gastu turistikoaren %13,7 batekin, nahiz eta aurten %1,1eko igoera bat izan duen. Alokairuzko etxebizitzan ostatu hartzeak gastuaren %12,3 bat lortzen du, interurteko %38,4eko hazkunde garrantzitsu batekin.

Kanpina hautatzen duten turisten gastuak, gastu osoaren %6,2 irudikatzen du, %10,6 bat igo dira, 75 milioi euroak gaindituz. Gainerako ostatu motak aukeratzn dituzten turisten gastuak, gastu osoaren %3,4 a irudikatzen dutenak, %3,5 bat jeitsi dira, eta berezko etxebizitzak erabiltzen dituztenen gastuak gastu totalaren %1,6 bat irudikatzen dutenak, aurten %11,9 jeitsi dira, 19,3 milioi eurotaraino.

Pertsonako eguneko batezbesteko gasturik altuena, hotelei dagokie, beste guztiek eragindakoaren oso gainetik. Eguneko 230,98 euro dira, kanpineko 131,42 euro edo alokairuzko etxebizitzetako 112,72 euro, edo zehaztu gabeko beste ostatu motetako 110,53 euroetatik oso gainetik. Dohako ostatu motak erabiltzen dituzten turisten eguneko gastuek, famili eta lagunenak adibidez edo berezkoak direnak, ez dituzte 91 euroak ez 81 euroak lortzen hurrenez hurren.



Batezbestekoaren gainetik dagoen gastu bakarra hotelena da (158,85 €).

Egonaldien batezbesteko iraupen handiena, alokairuzko etxebizitzen kasuan, gainontzeko tipologien oso gainetik dagoen pertsonako batezbesteko gastu bat eragiten du, berezko etxebizitzak barneratuz, batezbesteko baxuagoa duelarik ere bai.



Hotelaren pertsonako gastua (602,52 euro) eta familia eta lagunen ostatua (540,67 euro), atzerriko turismoaren pertsonako batezbesteko gastutik gertu kokatzen dira, lehenengoa gainetik eta bigarrena azpitik. Kanpina eta beste ostatu motak pertsonako gastu gutxiago dakartzate, 351 euroetatik behera.

Alokairuzko etxebizitzaren pertsonako gastuak gorakako joera bat aurkezten zuen, 2013an ordea, joera hau hausten da, interurteko %21,5ko beherakada batekin eta 2014 jarraitzen duen %3,9ko beherakadarekin. Familia eta lagunen etxebizitzen gastuak %5eko hazkunde bat izan du. Hotelak 2013arekin alderatuz, ia berdin gelditzen dira, baina %3,6 bat gehiagorekin.

Kanpina erabiltzen dutenen pertsonako gastua %8,3 igotzen da, berezko etxebizitza %1,9 batekin mantendu egiten da eta beste ostatu motena %2,1 erortzen da, 2013arekin alderatuz.

5.9.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Pakete turistikoa erabiltzen ez duten turisten gastua, turisten gastu osoaren %88,4 batekoa da.

Pakete turistikoa erabiltzen ez dutenen taldea aurten %13,6 igo da, eta erabiltzen dutenenena %44,4. Aipagarria da pakete turistikoaren erabilerak izan duen aurrerapena. Bi kasuetan joera positiboa da, gorakakoa, baina pakete turistikoa erabiltzen dutenen kasuan maldatsuagoa.

Balio absolutoetan, pakete turistikoa erabiltzen ez dutenek berreskuratutako gastua 127 milioi eta erdi eurokoa da, erabili duten turisten ia 43 milioien aurrean.





Pakete turistikoa erabiltzen ez dutenen turisten artean, egonaldiko eguneko 148 euroko gastua lortzen da, pakete turistikoa erabiltzen duten turisten oso azpitik, egunero 384 euroko gastua dutelarik.

Ez dugu ahaztu behar, pakete turistikoa erabiltzen ez duten turista gehienak, errepide bidez datozenak direla, garraio gastu baxuagoekin, erabiltzen dutenek, hegazkina edo itsasontzia erabiltzen baitituzte.

Paketea erabiltzen duten turisten eguneko batezbesteko gastua goraka doa urtero, eta azken bietan indar handiagoz. 2014ean, %22,7ko hazkunde bat lortu du. Azken bost urteetan gastu handienaren eta txikienaren arteko aldea, kolektibo hontan, 178,15 eurokoa da

Pakete turistiko gabe datozen turisten eguneko batezbesteko gastuen, maximoaren eta minimoaren arteko aldea txikiago da, konkretuki, 26,71 eurokoa. 2012an kolektibo honek 2 eurotik beherako galera bat izan zuen eta gainontzeko urteetan igo egin da, gehien bat 2013an, non %12,2ko hazkunde bat lortu zuen eta orain, 2014ean, non %5,3koa lortu duen.

Pakete turistikoa erabiltzen duten turisten pertsonako gastua, lehengo urtearekin konparatuz %15,6 bat igo da, eta ez duten turistena erabiltzen %4,2 igo da. Pakete turistikoa erabiltzen ez dutenen pertsonako gastuak, erabiltzen dutenen gastuaren erdia baino gutxiagokoa da.

Bestalde, pakete turistikoa erabiltzen dutenen gastuaren bilakaerak, azken bost urteetan gorakako joera bat erakusten du, azkenik aurten balio altuena lortzeraino.

Pakete turistikoa erabiltzen ez dutenek pertsonako gastua murriztu dute 2012. urterarte da gastu hau berreskuratzen hasten ondorengo urteetan.



5.10.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, norako Lurralde Historikoaren arabera. 2014. urtea

Euskadik bisitatzen duten turisten gastu osoaren ia erdia baina gehiago Bizkaiko Lurralde Historikoan biltzen da, gatu turistikoaren %48,6a irudikatuz eta ia 586 milioi eta erdi euroak lortuz.

Bigarren norako garrantzitsuena gastuaren ikuspuntutik Gipuzkoa da, gastuaren %44,9 batekin eta ia 542 milioirekin.

Azkenik, Arabako Lurralde Historikoko gastua dago, turisten gastu osoaren %6,4 bat bakarrik eragiten duelarik, 77 milioi eta erdi eurorekin.

Turisten gastu osoaren interurteko eboluzioa, Lurralde Historikoaren arabera, emaitza onak aurkezten ditu norako nagusietan, Bizkaiko %15,5eko gastutik, Gipuzkoako turisten gastuaren %20,3eko hazkunderarte. Arabako lurraldea gastu gutxien daukana izanik eta turista gutxien ere bai, gastu totala %1,1ean bakarrik igo du.



Bizkaia eta Gipuzkoa bisitatzen duten turisten eguneko batezbesteko gastua da batezbestekoaren gainetik dagoen bakarra, 158,85 euro eguneko, Bizkaiko turisten kasuan 2,39 euro baino gutxiagotan gainditzen eta Gipuzkoakoen kasuan ia 3,27 eurotan.

Bizkaian da lanagatik datozen turista gehienak biltzen diren lurraldea, hauek hotela gehein erabiltzen dutenak dira eta aire bidez datozenak ere, gastu osoaren hazkundean eragin handia duten faktoreak, baita eguneko batezbesteko gastuan eta pertsonako batezbesteko gastuan ere.

Arabako eguneko batezbesteko gastua batezbestekoaren azpitik kokatzen da, hau baino 32,28 euro gutxiagotan, nahiz eta aurten bere gastua %21,5 igo duen.

Euskadiko turisten pertsonako batezbesteko gastua 571,95 eurokoa da, eta Bizkaira ostatu-gauren bate matera datozenen batezbesteko gatuak bakarrik gainditzen du.

Arabako pertsonako gastua %2,1ean igo da (9,01 euro gehiago) aurreko urteari begira, Gipuzkoako gastua %6,9 bat igo da, 32,52 eurori dagokiona eta Bizkaiko pertsonako gastua %5,7 bat igo da, aurreko urtean baino 37,55 euro gehiago.





5.11.- Euskadira etortzen diren turisten gastuak, norako turistikoaren arabera. 2014. urtea

Euskadira etortzen diren turisten gastuak, norako turistikoaren arabera, Lurralde Historikoetan egiten den gastuarekin erlazio zuzena dauka.

Aurreko atalean Bizkaia zen gastu gehien aurkezten zuena, eta oraingoan bere hiriburua, Bilbo, da turista gehien erakartzen dituen puntua lurraldearen barruan.

Gipuzkoan ematen zen gastua, orain hiriburua (Donostia/San Sebastian) eta Euskal Kostaldearen artean banatzen da, Hondarribia, Zarautz, Zumaia, Getaria, etab. bezalako herrietan.

Arabara doazen turisten gastua, ia bere osotasunean Vitoria/Gasteizera joaten direnena da.



Euskadiko barnealdea bisitatzen duten turisten %5,6a, Gipuzkoara eta Bizkaiara lanarengatik nagusiki etortzen diren turistek osatzen dute.



Eguneko batezbesteko gasturik altuena, Donostia/San Sebastian-era datozen turisten artean ematen da. 5,60 euroko alde batekin, bigarren postuan Bilbora datozenen eguneko gastua dago. Donostia/San Sebastian-era datozen turisten gastua aurten %7,5 bat igo da, Bilbo bisitatzen dutenen gastua aldiz, %4,7 igo da.

Vitoria/Gasteizko turistek eguneko 125 euro gastatzen dituzte, %19,6ko hazkunde batekin, eta Euskal Kostaldekoek eguneko 105,65 euroko gastua egiten dute, 2013tik %2 bat igo direlarik. Barnealdeko turistek eguneko 101,71 euroko batabesteko gastua daukate eta aurten behera egin dute %6,5 batean.

Eguneko batezbesteko gastua, norakoa dela medio, Vitoria/Gasteizko 335 euroetatik Bizkaiko hiriburuko ia bikoitzera, 739 eurotara, doa.

Bilboko eta Donostia- San Sebastianeko turistak kenduta, beste gastu guztiak pertsonako batezbesteko gastuaren azpitik daude.



Interurteko, pertsonako batezbesteko gastuaren eboluzioa Bilboko norako turistikoarentzat positiboa izan da, %6,3ko hazkunde batekin, Donostia/San Sebastianena %6,8koa eta Barnealdearena %14,8koa, Vitoria/Gasteizeko aldiz, negatiboa izan da %0,6ko beherakada batekin eta baita Euskal Kostaldearena ere %8,9ko beherakadarekin.

6. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEEN GASTUAK

Txangozaleen definizio bera dela eta, ostatu –gaurik egiten ez duten bisitariak direla esaten den honetan, eguneko batezbesteko gastua pertsonako batezbesteko gastuaren berdina da, eguneko gastua lortzeko pertsonako gastua ostatu-gauekin zatitzen baita. Txangozaleen egonaldiak ordu batzuetakoak direnez, 1ekin zatitu beharko genuke, emaitza gastu berdina izanik.

Atal honetan, Euskadira datozen txangozaleen gastu totala eta pertsonako batezbesteko gastua aztertuko dira.

6.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Euskadin atzerriko txangozaleek egindako gastua 758 milioi eta erdi eurokoa da. Aurreko eragiketarekin alderatuz %7,7ko gorakada bat suposatzen du, aurreko bi urteetako beherakada puskatzen du, 140 milioi euroko beherakada bat pilatzen zutenak. Aurtengo berreskuraketak 54 milioi euro suposatzen ditu 2013arekin alderatuz.

2011ean Euskal Herrian atzerriko txangozaleen gastuaren maximo historikoa lortu zen, 843 milioi eta erdi eurorekin.

Pertsonako batezbesteko gastuak gastu osoaren patroia jarraitzen du eta aurten, %10,4ko gorakada bat egon da pertsonako gastuan, 2013arekin konparatuz, 81,03 eurotan kokatuz.

2011ean pertsonako gastua %12,7 bat igo zen, 2012an behera joan zen, %9,4 bat eta 2013an %6,2. Pertsonako gastuak interurteko aldaketa konstanteak erakusten ditu, gorakada eta beherakadekin azken bost urteetan.





6.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoaren banaketa. 2014. urtea

Txangozaleen gastuaren banaketan, turisten gastuen banaketan baino kontzeptu gutxiagok esku hartzen dute. Txangozaleek ez dute pakete turistikoan gasturik, ezta ostatuan, ez elikagaietan ere, hauen barruan norakoan daukaten ostatuan erabiliko diren elikagaiak sartzen direlarik, eta txangozaleek ez dute norakoan ostaturik hartzen.



Txangozaleen gastu osoari gehien ekartzen dion kontzeptua txango eta beste batzuetan egiten dena da, totalaren %56 batekin (424.462.35 euro), aurreko urtearekin alderatuz %5,8ko hazkunde batekin.

Bigarren postuan norakoan erabilitako garraioan egindako gastua dago (gastu totalaren %27,9) 211.440.683 eurorekin, 2014ean %8,4ko atzerapen batekin.

Hirugarren postuan, jatetxe, taberna eta kafetegietan egindako gastua dago (guztiaren %13,9 batekin), 105.313.380 euro suposatzen dituztelarik, eta aurreko urtean baino %66,2 gehiagorekin.

Laugarren eta azkenik joan-etorriko garraioan egindako gastua egongo litzake, honek, gastu guztiaren %2,3 bakarrik irudikatzen duelarik (17.212.147 euro), %95,2ko gorakada batekin. Gastua hau ain txikia da, etortzen diren txangozale gehienak errepidez Euskadira, eta bereziki Gipuzkoara, etortzen diren frantsesak direlako, eta hauek bere ibilgailu pribatua erabiltzen dutelako.

6.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, hilabeteko. Urteko bilakaera 2010 – 2014

2014ean hilabeteko txangozaleen gastu totalak, urtarrileko 39,5 milioi euroetatik abuztuko 139,2 milioi euroetara doaz.

Urtarrilak gastu totalaren %5,2 bat irudikatzen du eta inteurteko %5,6ko beherakada batekin. Azken bost urteetan hilabete honetan egon den gasturik altuena 2011ean izan zen 52,2 milioi eurorekin.

2012ko otsaila azken bost urteetako altuena bezala kokatzen da, 48,1 milioi euroko gastuarekin, eta aurten%12,6 bat jeisten da, 41,5 milioi euroko gastu batekin. Hilabete honetk gastu totalaren %5,5 irudikatzen du.

Martxoak gastu totalaren %5,6 bat irudikatzen du, 42,4 milioi eurorekin eta %22,1ko berakada handi batekin (aurreko urtean igo zen portzentai berdina). 2013ko gastua, azken bost urteetako martxoko gasturik onena bezala kokatzen da 54,5 milioi eurorekin.

Apirilak gastua %6,9 bat igo du aurreko urteari begira, 52,4 milioi euroak lortuz, gastu osoaren %6,9 irudikatzen duelarik. Kota altuena 2011ean lortzen du 53,4 milioirekin.

Maiatzak gastu osoaren %7,5 a irudikatzen du 57 milioi eurorekin eta interurteko %12,4ko beherakada batekin. Hilabete honetan egin diren gastu altuenak 2011ean izan ziren, 94,6 milioi eurorekin, aurtengoen ia bikoitza baina gehiago.

Ekainak, %10eko ekarpen batekin, %41,7ko interurteko gorakada garrantzitsu bat jasaten du, 75,7 milioi eurtara igoaz, azken urteetako emaitzarik onenak lortuaz.

Gastu osoa / Gasto Total



Uztailak gastu osoaren %11,3 bat irudikatzen du, 85,6 milioi eurorekin eta %5,6ko gorakada batekin aurreko urtearekin konparatuz, gastuaren emaitza onenak lortu dituen urtea 2011 izan zelarik, 105,3 milioirekin.

Abuztua da gastu osoaren portzentai handia jasotzen duen hilabetea (%18,4), aipatutako 139,2 milioi eurorekin eta %46,7ko gorakada garrantzitsu batekin aurreko urtearekin alderatuz eta gastu altuena lortu duen urtea bezala kokatzen da.

Irailak gastu osoaren %7,8 bat irudikatzen du 58,9 milioi eurorekin eta %2,3ko atzerapen batekin. 2010ean izan zen hilabete honen urterik onena, 75,1 milioi eurorekin.

Urriak gastua osoaren %7,9 bat irudikatzen du 59,8 milioi eurorekin, eta interurteko %10,5ko hazkunde batekin, 2011 izanik gastu gehiengokoa 72,7 milioi eurorekin.

Azaroak gastu osoaren %6,9 irudikatzen du 52,7 milioi eurorekin eta %5,6ko hazkunde batekin 2013rekin alderatuz eta azken urteetako gasturik altuena lortzen du.

Urteko azkeneko hilabetea, abendua, gastuaren %7,1 batekoa da 53,8 milioi eurorekin eta %19,8ko beherakadarekin. 2012. urtean, azken bost urteetako gasturik altuena lortu zen, 73,2 milioi euro.

Txangozaleen pertsonako batezbesteko gastuak gertu dauden balio marra batzuk aurkezten ditu, azken urteetan elkarri lotzen direnak, maiatzan eta abuztuan izan ezik, aldaketa gehien dituzten hilabeteak direlarik.



2010ean maiatzeko 90,86 eurotatik hasita, 2011ean pertsonako gastua ikaragarri igotzen da 130,39 euroetaraino, 2012an %35 bat jeisteko 84,80 eurotaraino, 2013 %21,6 jeisten jarraitzeko 66,48 eurotaraino eta azkenik 2014ean %12,9 igotzeko pertsonako 75,02 eurotaraino.

Abuztua da aipagarria den beste hilabetea, 2010ean pertsonako gastua 65,23 eurotan zegoen, 2011ean igo egin zen 84,26 euroetara iritsiz (%29,2 bat), 2012an 68,64 eurotara jeitsi zen, %18,5eko atzerapenarekin, 2013an berriz ere %4,7 bat atzera egiten du, 65,42 euroak lortuz eta azkenik 2014ean, %63,3ko hazkunde handi bat jasaten du, 106,85 euroak lortuz.

Aipatutako hilabeteez gain, 2014ean, batezbesteko gastuaren interurteko aldaketak positiboak izan dira, apirilean %0,2ko hazkunde batekin, ekainan %37,2rekin, uztailan %21,6rekin eta urrian %13,1eko hazkundearekin eta aldaketak negatiboak izan dira urtarrilan %1,9ko beherapen batekin, otsailan %16,6 batekin, martxoan %22,9 batekin, irailan %1,4 batekin, azaroan %2,4 batekin eta abenduan %16,1eko beherapen batekin.

6.4.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, sarbidearen arabera. Urteko bilakaera 2010–2014

Sarbidearen aldetik, errepide bidez datozen txangozaleen gastuak, gastu totalaren %98,1 bat suposatzen du. Aire bidezko txangozaleek gastu totalaren %0,7 bat bakarrik irudikatzen dute, eta itsas bidetik datozenak %1,2 bat.



Errepide bidezko gastuak %7,0ko aldaketa positibo bat izan du, 2012an hasitako joerari balazta jarrita.

Aire bidezko sarbidea erabiltzen dutenen gastua %1,9 jeitsi da azken urtean eta itsas bidekoena %166 ikaragarri bat igo da, hala ere gastu hauek batera %1,9 bat bakarrik irudikatzen dute gastuaren osotasunean, beraz hauen aldaketak ez dira erabakigarriak.

Errepide bidez datozen txangozaleen, pertsonako batezbesteko gastua, aurten 79,81 eurotan igo da, aurreko urtean baino %9,9 gehiago.



Aire bidez datozenen personako gastua aurten 252,69 eurotara jeitsi da, 2013arekin alderatuz %17,0, eta itsas bidezkoena %10,1 jeitsi da ere, 454,77 eurotaraino. Urte hau izanik azken bost urteetako pertsonako gastu altuena izan duena. Gastu hauek kopuru garrantzitsu bat irudikatzen dute, aipatu den bezala, txangozale kopuru handi bat irudikatzen dute, 15 milioi euro baino gutxiagoko gastu total bat eragiten dutelarik.

6.5.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Frantziko jatorria duen txangozaletasunak, txangozaleen gastuaren %90,8 bat eragiten du, hortaz, joera ebolutiboak erabat zehazten ditu. Aurreko urtearekin alderatuz, %7,5 bat igo da, 48 milioi euro galduaz.



Txangozale frantsesen izaerak, eskualdeko erlazio bat erakusten du, nazioartekoa baino.

Ekarpenean hurrengo merkatua portugaldarra da, 13,7 milioi eurorekin, eta lehengo urtean baino %33,4 batekin.

Gainerako Europako txangozaleen multzoak eragindako gastua 13,3 milioi eurotara iritsi da, interurteko %22,7ko beherakada batekin.

Munduko gainontzeko herrialdeek %9,9ko gorakada bat jasan dute, 8,5 milioi eurotan kokatuz eta ingelesen gastuak %45,5 bat igo dira, 8,1 milioi eurotaraino. Urrunago belgikarrak daude, 7,4 milioi eurorekin eta %29,8ko igoerarekin, holandarrak urrutiago aurkitzen dira 6,2 milioi eurorekin eta %7,3ko beherakadarekin, alemaniarrak 5,6 milioirekin eta %3,9ko igoerarekin, iparamerikarrak 3,8 milioi eurorekin eta %145,9ko hazkundearekin eta gainontzeko herrialdeak 2,6 milioitik beherako emaitzekin aurkitzen dira.

Pertsonako gastua txangozaleetan 81,03 eurotan kokatzen da, aurreko urtean lortutakoa baina %10,4 gehiago.

Urruneko txangozaletasunak pertsonako gastu handiagoa ekartzen du, mugaren gertutasunagatik datozenena baino. Gastu hau txangoan Euskadin egindako gastuarekin bat dator. Osatzen duten balio nagusiak, garraioa, mantenua eta aisiak eragindako beste gastuenak dira. Zenbateko baxua daukate ostatuko gastuak ez dituztelako barneratzen eta garraioa gehienetan ibilgaiu propioarekin egiten dutelako.



Frantziako biztanleek batezbestekoaren azpitik dagoen gastu bat daukate (77,66 euro) eta 2013 urtean baino %10,4 gehiago.

Gainerako Europako merkatua ezik, pertsonako 143,95 euroko gastua aurkezten duena eta %20,1eko

beherapena, eta Munduko beste Herrialdeetako merkatua, 314,38 euroko batezbesteko gastua eta %23,9ko beherapena duena, gainontzeko merkatu guztiak bere pertsonako gastua hobetu egiten dute.

Merkatu ingeleseko txangozaletasunak, pertsonako 191,32 euroko gastua lortzen du, %38,3ko hazkunde batekin, merkatu alemaniarrarena 120,07 eurokoa izan da %3,1eko hazkunde batekin, merkatu italiarrarena 149,57 eurokoa eta %35eko hazkundearekin, merkatu portugaldarrena 85,67 eurokoa eta %29ko hazkundearekin, merkatu belgikarrarena 136,12 eurokoa eta %45,5eko hazkundea, merkatu holandarrarena 122,10 eurorekin eta %1,8, merkatu iberoamerikarra 279,83 eurorekin eta %11,7ko hazkundearekin eta merkatu iparamerikarrarena 574,39 eurokoa eta %54,9ko hazkundea batekin.

6.6.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera 2010 – 2014

Beste arrazoiak 510,2 milioi eurorekin (interurteko %40,3ko galera batekin) eta arrazoi pertsonalak, 36,6 milioi eurorekin eta %9,5eko hazkunde batekin (guztira 546,8 milioi euro), txangozeleen gastuaren hornitzaile nagusiak dira, bertan "erosketak" arrazoia barneratuta dagoelarik. Biak gastu osoaren %72,1 bat ekartzen dute, azken urteetan asko hazi den pisua.

Aisiak txangozaleen gastuaren %24,1 bat suposatzen du, aurten %27,7 bat igo delarik, salerosketak %3,7, %15,2ko beherakada baatekin, eta ikasleak %0,2rekin gastuaren eta %17,8ko beherakada batekin, egitura osatzen dute.

Txangozaleen pertsonako gastuak, 2014ean, aurreko urtearekin konparatuz, positiboan aldatzen dira.

Arrazoi pertsonalen batezbesteko gastuak (66,86 €) eta beste arrazoiegatik egiten diren gastuak (92,96 €) batera aztertzean, 90,59 euroko bateratutako pertsonako gastu bat lortzen da, interurteko %10,5eko hazkunde batekin. Aisiaren pertsonako gastua %15,8 bat jeisten da 63,61 eurorarte, lanarena %5 63,52 eurotaraino eta ikasketena, %36,9 igo da, 77,67 € pertsonakoraino.





6.7.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, bisitaren maiztasunaren arabera. . Urteko bilakaera 2010 – 2014

Gastu gehien daukaten txangozaleak hilabetero bere bisita errepikatzen dutenak dira. 2014ean 114,8 milioi euro utzi zituzten

Astean behin datozenak 95,2 milioi gastua egiten dute, eta egunero datozenak gastua nabarmenki jeisten dute 20,8 milioietaraino.

Maiztasun handiarekin datozen txangozale hauek gastu nabarmen bat biltzen dute, 230,8 milioi euro baino gehiagokoa.



Hiruhilero etortzen diren txangozaleek 70 milioi eta erdi euro baina gehiago gastatzen dituzte, urtean bitan etortzen direnek 50,7 milioi, urtean behin etortzen direnek 54,1 milioi baino gutxiago eta maiztasun baxuagoarekin datozenek 92,4 milioi euro.

Pertsonako batezbesteko gastuek, bisiten maiztasun ezberdinen arabera,ez dituzte aldaketa handiak erakusten, 2011. urtean izan ezik, non hiruilabetean behin eta hilabetean behin etortzen diren txangozaleek pertsonako gastuan tontor bat aurkezten duten, 109,32 euro eta 101,57 euro hurrenez hurren, serieen egonkortasuna hausten dutelarik.

2014ean, pertsonako gehien gastatzen duten txangozaleak hilabetean behin datozenak dira, 87,15 €-rekin eta interurteko %3,0ko beherapenarekin. Egunero etortzen direnak %1,8 bat igotzen dira, 34,59 eurorarte, astean behin egiten dutenak %6,2 jeisten dira, hiru hilabetean behien egiten dutenak %2,6 jeisten dira eta seihilabetean behin datozenak %0,4 jeisten dira eta urtean behin etortzen direnak %13,2 igotzen dira eta maiztasun gutxiagorekin datozenak %11,2 bat igotzen dira ere.



6.8.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, norako Lurralde Historikoaren arabera. 2014. urtea

Norako Lurralde Historikoari begiratuz, Euskadi bisitatzen duten atzerriko txangozaleak Gipuzkoara etortzen dira ia osotasunean, 729,2 milioiko gastu bat eginez eta txangozaleen gastu osoaren %96,1 bat suposatzen dutelarik eta interurteko %7,5eko hazkunde batekin. Bizkaiara etortzea aukeratzen dutenek, 27,9 milioi gastatzen dituzte eta gastu osoaren %3,7 bat irudikatzen dute eta interurteko %30,3ko hazkunde bat daukate. Arabak milioi bat euro baino gutxiagoko txangozale gastu bat lortzen du, gastu totalaren %0,2 eta interurteko %68,1eko beherapen batekin.





Arabako txangozaleen pertsonako batezbesteko gastua 77,18 eurokoa da, interurteko %41,9ko beherapen batekin, Gipuzkoako txangozaleek pertsonako 79,86 euroko gastua eta %10eko hazkundea eta bizkaikoek, 131,92 eurokoa eta interurteko %36,7ko hazkundea.

6.9.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, norako turistikoaren arabera. 2014. urtea

Txangozaleen gastu totalak norako turistikoaren arabera aztertzean, ikusten da, %75,1 Euskal Kostaldean pilatzen dela, 569,5 eurorekin, Irun eta Hondarribia, mugako herriak, multzo hontan sartzen baitira, txangozale frantsesen herririk gustokoenak bai erosketetarako bai aisirako.





Donostia/San Sebastian txangozale frantsesek aukeratutako beste norakoetako bat da, 150,5 milioi euroko gastuarekin, totalaren %19,8a.

7. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTEN BATEZBESTEKO EGONALDIA

Adierazle turistiko bezala batezbesteko egonaldiak duen garrantzia dela eta, aurreko atalean beharrezko datuak ez edukitzeagatik ezin izan denez egonaldi honen azterketa sakon bat egin, orain da, mikro datuekin, txostenean agertzen diren gainontzeko aldagaiekin, batezbesteko egonaldiaren aldagai hau ustia daitekeen momentua.

Aurkezten diren grafikei esker, emaitzen ulerpena eta azterketa ikusi ditzazkegu, emaitza aipagarrienak bakarrik deskribatuko direlarik, eta interurteko aldaketen informazioa emango delarik.

7.1.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi 2010 –2014

Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia azken bost urteetan 3,6 eta 4,1 ostatu-gauen inguruan dabil, aurten izanik azken bost urteetako ostatu gau gutxienekoa, %1,3ko beherakada batekin 2013rekin alderatuz, bigarren hamarrekoiei bakarrik eragiten dielarik.



Estatuan batezbesteko egonaldiak Euskadikoen bikoitza dira eta aurten batezbesteko egonaldia ez da aldatu 2013ari begira.

Euskadi eta Estatua bisitatzen dutenen egonaldien batezbestekoaren iraupenean dauden desberdintasun handiak, norakoari begiratuz turistak duten jokabide ezberdina erakusten du. Euskadin bisitak motzagoak dira, eta Estatuan luzeagoak, Mediterraneoan egiten diren oporraldi luzeek eraginda, Balear eta Kanariar Uharteetan, batik bat.

7.2.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, hilabeteko. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2014. urtea

2014ean Euskadin turisten egonaldiaren batezbestekoa 3 ostatu gauen inguruan dabil urteko hilabete gehienetan, urtarrila, maiatza eta abuztuan izan ezik, 4 eta 4,3 ostatu gauetara igotzen delarik. Gorakada hau gabon garaiari eta udarari dagokio. Estatuan hilabeteen serie honek Euskadiko joeeraren antzeko bat mantentzen du gora beheren aldetik, nahiz eta kasu honetan hilabeteen arteko aldea handiagoa den.

Euskadiko batezbesteko egonaldiaren interurteko aldaketek beherakada handi batzuk erakusten dituzte, %10etik %19ra, uztaila eta benduan. Martxoa, apirila, ekaina, iraila eta urrian beherakada %10etik behera kokatzen da, eta egonaldiak goraka egin duen hilabete bakarrak urtarrila (%18,8) hazkundearekin, otsaila (%5,5) batekin, maiatza (%16,4), abuztua (%8) eta azaroa (%9,3) dira.



7.3.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, sarbidearen arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2014. urtea

Errepide bidezko turisten batezbesteko egonaldia Euskadin, %1,4 bat igo da aurten, aireportuan %8,7 jeitsi da eta itsas bidean %21,2.

Euskadin, sarbideen arabera egiten diren ostatu-gauen artean desberdintasun handiak daude, Estatuan, ordea, ezberdintasun hauek minimoak dira.

Euskadi eta Estatuaren arteko alde handiena errepidean ematen da, 6 ostatu-gauko aldea dagoelarik.

Bestalde, sarbidearen arabera, batezbesteko egonaldiak Estatuan 7,6 eta 8,9 ostatu-gau artean daude.



7.4.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2014. urtea

Bizilekuaren arabera egonaldia aztertzerakoan, Euskadi eta Estatuaren arteko ezberdintasunak herrialde konkretu batzuetan txikiagoak direla ikusten da, batez ere, mugako bizilagunak diren portugaldarrak, Euskadira batezbesteko 3 ostatu-gau egitera etortzen dira eta Estatura 4,6ra igotzen dira. Alde handiena iparamerikarren kasuan ematen da, Euskadin 4,7 ostatu-gau egiten dira, Estatuan aldiz 12,9 ostatu gaura igotzen direlarik.



Euskadi bisitatzen duten turisten batezbesteko egonaldien interurteko aldaketak %33,8 jeitsi dira iberoamerikarren kasuan, %21,8 portugaldarren kasuan, %18,6 iparamerikarren kasuan, %16,3 munduko beste herrialdeetakoen kasuan, %13,7 italiarren kasuan, %5,6 belgikarren kasuan, %4,7 holandarren kasuan eta %1,6 alemaniarren kasuan. Beren batezbesteko egonaldia igo duten turistak, Gainerako Europako biztanleak %15,5 batean, inegelesak %11,7 batean, frantsesen batazbeseteko egonaldiak %1,4 batean, izan dira.

7.5.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2014. urtea

Lanagatik edo salerosketengatik etortzen diren turisten batezbesteko egonaldiek, Euskadin eta Estatuan ez dituzte ezberdintasun handiak.

Ikasketengatik datozen turisten artean da alde handiena aurkitzen den multzoan

Euskadira datozen turisten egonaldiaren interurteko hazkundea, zehaztu gabeko arrazoiengatik etortzen direnen artean (%24,9) eta arrazoi pertsonalengatik (%8,4) etortzen direnen artean bakarrik eman da. Aisiagatik etortzen direnen batezbesteko egonaldia %2,6 batean jeitsi da, lanagatik datozenena %11,7 bat, ikasleena %12,8 bat jeitsi da.



7.6.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2014. urtea.

Batezbesteko egonaldia, egonaldiaren iraupenaren araberan aztertzean, logikoki batezbestekoak atxiki egiten dira, eta Euskadin eta Estatuan ez dira ain beste desberdintasun azaltzen.

Luzera gehieneko estratuetan, 16 ostatu-gau bitartekoak, Euskadin Estatuan baino batezbesteko egonaldi altuagoak ematen ditu.



16tik 30 ostatu-gau bitarteko zatian, Euskadi eta Estatuaren artean 2,5 ostatu gaueko aurkitzen dugu, Euskadiren alde. 30 ostatu-gau baino gehiagoko tartean, aldea 13,5 ostatu-gaukoa da Euskadiren alde.

Euskadiko batezbesteko egonaldien interurteko aldaketak 2tik 3ra ostatu gauko tartean %0,5 igo da, 4tik 7rako tartean %0,8, 8tik 15era bitartekoa da %0,9 igo da, 16tik 30era bitarteko turisten tartean %1,4 igo da, eta interurteko hazkundea jeitsi den estratu bakarra 30etik gorakoa izan da, bere ostatu-gauak %6 batean jeitisi dituelarik.

7.7.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2014. urtea

Erabilitako ostatu motaren arabera, alokairuzko etxebizitzetan, Euskadi, Estatuko zenbakietatik gertu aurkitzen da, 2,1 ostatu-gau atzetik bakarrik kokatzen baita

Kanpinean da diferentzia gehien aurkitzen dugun multzoa, 9 ostatu-gauekin.



Interurteko aldaketa esanguratsuena, alokairuzko etxebizitzen %18,7ko beherakada da. Batezbesteko egonaldiak gora egin duen ostatu motak hauek dira, kanpina %5,2, berezko etxebizitzak %4,2, lagunen etxebizitzak %0,8 eta beste ostatu motak %0,1 bat igo direlarik. Hoteletan batezbesteko egonaldia ez da aldatu.

7.8.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa - Euskadi. 2014. urtea

Bidaiaren antolaketaren arabera, Euskadi eta Estatuaren arteko ezberdintasunak berriz ere handiak dira, egonaldien batezbestekoen gainean.

Estatuan batezbesteko egonaldia, 8,0 eta 9,2 ostatu-gauen artean dago (1,2 ostatu-gauko aldea) eta Euskadi, 3,1 eta 3,6 ostatu-gau artean dago (ostatu-gau erdiaren aldea).

Euskadi eta Estatuaren batezbesteko egonaldien aldea 5 eta 6 ostatu-gauekoa da gutxi gora-behera, Estatuaren alde.

Pakete turistikorik erabiltzen ez duten Euskadiko turisten batezbesteko egonaldia %1 jeitsi da aurreko urtearekin alderatuz eta erabiltzen duten turistena proportzio handiagoan jeitsi da, %5,8.



7.9.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, norako Lurralde Historikoaren arabera. 2014. urtea

Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia aztertzean, Bizkaian egonaldi luzeenak daudela ikusi dezakegu, hiru Lurraldeetako %2,1ko interurteko jeitsiera bat jasanda ere.

Gipuzkoako batezbesteko egonaldia aurten igo egin da %3,6 bat.

Araban, 3,4ko batezbesteko egonaldiak %15,9ko beherapen bat jasan du 2013 urtearekin alderatuz.



7.10.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, norako turistikoaren arabera. 2014. urtea

Vitoria/Gasteizeko turisten batezbesteko egonaldia azken urtean jeitsi egin da %16,9 bat.

Bilbo norakoan, 2013arekin alderatuz, %1,5 bat igo da.

Donostia/San Sebastianeko egonaldiak aurten %0,6 batean jeitsi dira.

Euskal Kostaldeko batezbesteko egonaldiak %10,7 batean jeitsi dira.

Euskadiko Barnealdeko batezbesteko egonaldiak %22,7 bat igo dira.

Arabar Errioxako batezbesteko egonaldiaren gainean, kontuan hartu behar da informazio honek daukan laginaren tamaina, ez dena adierazgarria (urria da), eta nahi dena baino akats indize handiago bat jaurtitzen duena.



8. EUSKADI NORAKO NAGUSI BEZALA BISITATZEN DUTEN ATZERRIKO BISITARIAK (TURISTAK ETA TXANGOZALEAK) ETA BISITARIEN GASTUAK, SEXUAREN ARABERA

Txosten honen aurkezpenean aipatu den bezala, bisitari, turista eta txangozaleak sexuaren arabera zein jokaera dauzkaten aurkeztuko da azken hiru ataletan.

Euskal Herriaren barruan norako aldagai hau bere azterketarako ez dagoenez eskuragarri, Euskadi norako nagusi bezala hartzen duten turista atzerritarren aldagaia aztertuko dugu.

Aldea, Estatura datozen turisten artean Euskadin ostatu-gau gehien igarotzen dituzten turistak kontuan hartzen direla da. Adibidez, bisitari batek Asturiasen 7 ostatu-gau egiten ditu eta 3 Euskadin, bere norako nagusia Asturias denez Euskadin egindako hiru ostatu-gauak eta gastuak ez dira kontuan hartzen. Euskadiko norakoaz hitz egitean aldiz, hiru ostatu-gauetako gastu hauek azterketan parte hartuko lukete.

Alde honek turistengan bakarrik du eragina, beraz bisitarien multzo osoaren gainean ere, hauek turisten eta txangozaleen batuketa baitira.

Euskadi norako nagusitzat duten bisitari guztiak ondoko grafikan aurkezten dira.

2010an norako nagusiak norakoak baino 501.850 bisitari gutxiago ditu, 2011ean 427.429 gutxiagoko aldea, 2012an 393.706 bisitari gutxiagoko aldea eta 2013an 432.668 bisitari gutxiagoko norako nagusian eta 2014ean norako nagusian 544.177 bisitari gutxiagoko aldea dago.



8.1.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitariak (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. Urteko bilakaera 2010-2014

Azken bost urteetan gizonezko bidaiarien pixua emakumezko bidaiarien aurrean pixkanaka igotzen joan da 2011 urterarte eta 2012tik 2014era aldea txikiagotzen joan da, baina kopuru txikietan. 2010ean bisitarien %59,6 gizonak ziren, 2011ean %61,1, 2012an %60,8, 2013an %60,5 eta 2014ean %60,3.

Aurten egon den interurteko hazkundea 122.554 gizon gutxiagokoa izan da (%1,8) eta 39.565 emakume gutxiago (%0,9).

Azken bosturtekoan izan den batezbesteko banaketa %60,5 gizon eta %39,5 emakumeetakoa izan da.





8.2.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitariak (turistak eta txangozaleak) hilabeteko, sexuaren arabera. 2014. urtea

2014. urtean bidaia egiteko aukeratzen den hilabeteari buruz, emakume eta gizonen arteko proportzioen aldaketak oso txikiak dira normalean. Aipatu daiteke uda sasoian, uztaila, abuztua, iraila eta baita urrian ere, emakumeen proportzioa urteko batezbestekoaren gainetik jartzen dela.



8.3.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitariak (turistak eta txangozaleak), bidaiari motaren eta sexuaren arabera. 2014. urtea

Atzerriko bi bisitari motak, sexuaren arabera alderatzean, txangozaleen kolektiboaren artean aldea handiagoa dela nabaritzen da, gizonezko txangozaleen kopurua emakume txangozaleen gainetik dagoelarik

Gizonezko turistek jasandako interurteko aldaketa %6,6ko gorakada bat izan da, emakumeena berriz proportzio handiagoan izan da, %6,8koa.

Hala ere, txangozaleen interurteko aldaketa negatiboa izan da, emakumeak %2,1 bat eta gizonezkoak %3,1 bat jeisten direlarik.



8.4.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitariak (turistak eta txangozaleak), sarbidearen eta sexuaren arabera. 2014. urtea

Errepide bidez datozen bisitarien banaketa sexuaren arabera, urteko batezbestekoaren gainetik kokatzen da, gizonezkoen pisua hiru dezima emakumezkoena baino handiagoa delarik.

Gainerako sarbideen kasuan bi sexuen kopuruak gerturatuz doaz, nahiz eta gizonezkoen nagusitasunak jarraitu.

Hala ere, errepide bidez datozen emakumeak %94,9 dira beste sarbideen aurrean eta gizonezkoak %96,2.

Interurteko aldaketak, joera adierazten duena, errepide bidez datozen emakumeak %1,7 bat jeitsi direla adierazten du, 4.122.417 emakumeetara iritsiz, gizonezkoak aldiz, %2,3 bat jeitsi direla, 6.330.586raino.



Aire bidean hazkundeak handiagoak izan dira (emakumeen kasuan), baina bidaiari bolumen txikiagoa irudikatzen dute. Aire bidez datozen emakumeak %21,5 hazi dira eta gizonezkoak %15,2, 204.110 emakume eta 235.542 gizonetara iritsiz.

Itsas bidean, emakumeak %25,9 jeitsi ziren 15.351ra iritsiz eta gizonak gutxiago jeitsi dira, %24,5, 16.739 direlarik.

8.5.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitariak (turistak eta txangozaleak), bizilekuaren eta sexuaren arabera. 2014. urtea

Euskadira, norako nagusi bezala etortzen diren emakumeen %90,5 a Frantzian bizi dira, gizonen %90,0 a bezala. Horregatik gainerako bizilekuetan ematen diren sexuaren araberako aldeak ez dira ain garrantzitsuak.



Adibidezi iparameriketan bizi direnak, sexuaren araberako banaketa berdintsua daukate, %51,3 emakume eta %48,7 gizon, 12.609 emakume eta 11.977 gizon, Frantsesak 3.927.731 emakume eta 5.923.165gizon direlarik.

Frantziako biztanleen interurteko beherapena, %1,9koa izan da emakumeentzat eta %2,4koa gizonentzat.

Emakumezko eta gizonezko bisitarien artean alde gehien erakusten duen herrialdea bizilaguna da, Portugal, 194.544 bidaiarirekin, hauetatik 152.430 gizonak (%78,4) eta 42.114 emakumeak direlarik (%21,6).

8.6.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitariak (turistak eta txangozaleak), bisitaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2014. urtea

Bisitaren arrazoia sexuaren arabera aztertzean, ezberdintasun handiak agertzen dira arrazoi konkretu batzuetan.

Lehenik, Euskadi opor eta aisiagatik bisitatzen dutenen artean, sexuen arteko aldea urteko batezbestekoaren azpitik dago, Gizonak 2.247.727 eta emakumeak 1.631.368, interurteko %8,1eko hazkunde batekin emakumeak eta %10,0ko hazkunde handiagoa gizonezkoak.



Lanagatik datozen bisitariak, gaur egun sexuen arteko alde handia erakusten jarraitzen dute. Emakumeek interurteko %18,2ko beherapen batekin, lanagatik datozen bisitari guztien %19,4 bakarrik

irudikatzen dute (127.348 emakume), gizonek, azken urtean %11,1 bat jeitsi arren, proportzio txikiagoan egin dute eta oraindik %80,6 bat irudikatzen dute, 528.136 bisitari.

Ikasketengatik datozen bisitariek sexu berdinatasunera gehien urbiltzen direnak dira. Egoera hau, bisitari guztien %0,3 bat bakarrik irudikatzen duena, aurten gizonenen %13,7ko beherapenagatik eta emakumeen %26,1ko beherakadagatik, eraginda ikusi da.

Arrazoi pertsonalak eta beste arrazoiak, batera aztertu behar direnak, "erosketak" arrazoia bietan aipatzen delako, batezbestekoaren antzerako banaketa bat daukate, %59,6 bisitari gizon eta %40,4 emakume.

Emakumeen interurteko aldaketa arrazoi pertsonalengatik, %35,4 bat jeisten da, beste arrazoiengatik aldiz, igo egiten da %2,1 batean, guztira 2.567.971 emakume direlarik. Arrazoi pertsonalengatik etortzen diren gizonak %39,6 jeisten dira eta beste arrazoiengatik etortzen direnak ordea, %1,4 igo, 3.787.996 gizonezko guztira.

8.7.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitarien gastua (turistak eta txangozaleak), sexuaren arabera. Urteko bilakaera 2010-2014

Sexuaren arabera bisitarien gastu osoak, bidaiarien artean baino diferentzia gutxiago aurkezten ditu. Gastuaren egiturak, gizonezkoetan gastu handiagoa aurkezten du emakumezkoetan baino, %58,3 bat gizonen gastua delarik eta %41,7 emakumeena.





Azken bosturtekoan emakumeen gastua hazitzen joan da 700,1 milioi eta erdi euroko gastua lortzeraino, interurteko %13,7ko hazkunde batekin, 2013arekin alderatuz. Gizonen gastu totalak 2012an atzerapen bat jasan zuen eta 2013an %0,7ko beherakada batekin 2012arekin alderauz. Azkenik, 2014ean %7,3 bat berreskuratu da 2013arekin konparatuz, 979 milioi eta erdi euroko gastuarekin.

Eguneko batezbesteko gastuak ere aldeak ditu sexuaren arabera. Azken bost urteetako alde handienak, 2010ean eman ziren, non gizonek eguneko emakumeek baino 14,30 euro gehiago gastatzen zituzten. Alde hauek murrizten joan dira, gaur egun, aldea 1,24 eurokoa da, gizonezko eguneko batezbesteko gastuaren alde.





Pertsonako batezbesteko gastuan, 2011ean di bi sexuen batezbesteko gastuaren artean alde handiena aurkitzen dugun urtea, gizonek emakumeak 9,38 eurotan gaindituz. Hortik aurrera aldeak nabarmenki murrizten dira, eta azken bi urteetan joera aldatu egiten da, emakumeen pertsonako gastua gizonezkoa baino ia 4 euro baino gehiagokoa delarik 2013an eta 12,43 euro 2014ean.

Emakumeen pertsonako batezbesteko gastua, 2013rekin alderatuz, %14,7 igo da, eta azken urteetako balio maximoan kokatzen da. Bere aldetik, gizonezkoek %9,3 bat irabazten dute eta azken bost urteetako bere balio maximoa lortzen dute.

8.8.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitarien gastuaren banaketa (turistak eta txangozaleak), sexuaren arabera. 2014.

Bisitarien gastuaren banaketak sexuaren arabera, egiturazko jokaera antzeko bat mantentzen du, baina ñabardura gutxi batzuekin.

Gizonezkoek gastuaren gehiengoa txangoetan eta besteetan eta ondoren garraioan erabiltzen dute (joan-etorrikoa eta norakoa).

Emakumeek txangoetan erabiltzen dute gastu gehiena (gizonek baino 0,1 puntu portzentual gutxiago), garraio gastuek jarraituz (3 puntu portzentual gizonen azpitik).

Hirugarren postuan jatetxe, taberna eta kafetegietan egiten den gastua dago, non gizonak emakumeak baino dezima bat gehiago gastatzen duten portzentualki.



Ostatuko gastuetan, emakumeak, gizonak baino, 1,7 hamarren gehiago erabiltzen ditu portzentualki. Pakete turistikoaren erabileran, emakumeak gizonek baino 1,1 dezima gehiago erabiltzen dituzte.

Azkenik, elikagaien gastuaren gainean, berdin gertatzen dela esan daiteke, emakumea izanik 4 hamarren gehiagoko gastua egiten duena.

9. EUSKADI NORAKO NAGUSI BEZALA BISITATZEN DUTEN ATZERRIKO TURISTEN ETA TURISTEN GASTUAK, SEXUAREN ARABERA

Bisitariekin bezala, azken bost urteetan, norako nagusi bezala Euskal Herria bisitatzen duten turista kopuru osoa erakusten da.

Norako eta norako nagusiaren arteko ezberdintasunak turista kopuru osari eragiten dionez, eta ondorioz bisitariei, hemen, turisten arteko ezberdintasunak aurkezten dira berriz ere, nahiz eta bisitarienen berdinak izan.

2010ean norako eta norako nagusiaren arteko aldea, norako nagusiak 501.850 turista gutxiagokoa dituela da, 2011ean 427.429 gutxiago, 2012an 393.706 turista gutxiago, 2013an aldea 432.668 turista gutxiagokoa da eta 2014ean aldea 544.177 bisitari gutxiagokoa da norako nagusian.



9.1.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak sexuaren arabera. Urteko bilakaera 2010-2014

Turisten banaketak, sexuaren arabera, bisitarietan baino diferentzia handiagoa aurkezten du, gizonetan emakumezkoetan baino proportzio handiagoan.

Azken bost urteeteako batezbestekoak, 2010etik 2014era banaketa metatua %60,6 delarik gizonentzat eta %39,4 emakumeentzat.

2014ean gizonen interurteko hazkundea %6,6koa izan da, eta emakumeena %6,8koa.

Aipatu beharra dago, aurten, 2013arekin batera, izan dela gizonezko turisten eta emakumezko turisten arteko aldea gutxiagotzen den urtea.

2010etik 2012ra gizonen eta emakumeen arteko aldea urtero handiagotzen joan da.

Balio absolutoetan, bi sexuetako turisten arteko aldea aurten, 285.257 gizon emakume baino gehiagokoa izan da. Alde handiena 2012an eman zen 326.108 gizon emakume baino gehiagorekin.





9.2.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak hilabeteko, sexuaren arabera.2014. urtea

2014. urteko hilabeteetan zehar turistek, sexuaren arabera, izandako jokaera aztertzean, ez da patroirik iragartzen duen daturik ikusten. Urria, ekaina eta urtarrila dira gizon eta emakumeen arteko proportzioan, hurbiltasun bat ikusten dugun hilabeteak.



9.3.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak, sarbidearen eta sexuaren arabera. 2014. urtea

Errepidean da ezberdintasunak areagotzen diren sarbidea, turista emakumeen kasuan %68,7 bat irudikatzen du eta gizonezkoen kasuan %75,2.

Aire bidean, bisitariekin gertatzen zenaren alderantzizkoa gertatzen da, turisten artean garrantzi handiagoa duelarik, emakumeek %30,6 lortuz eta gizonek %24,0.

Itsas bidea %0,7ko pisuekin, bai gizon bai emakumeen artean, ez da aipagarria.



Errepideak, alde gehienak markatzen dituen sarbidea, aurten interurteko %4,4 bat igo da gizonezko turistetan eta emakumezko turistetan %1,6, guztira 695.907 gizon eta 439.614 emakumerekin.

Aire bidean ezberdintasunak hurbiltzen joaten dira, 53 - 47ko banaketa batekin gutxi gora-behera, 2014ean emakumeen erakuslea %21,7n zegoelarik eta gizonena %14,7 jeistean, 222.535 gizon eta 196.074 emakume.

9.4.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak, bizilekuaren eta sexuaren arabera. 2014. urtea

Turisten %63,0a Frantzian bizi dira, eta hauek dira sexuaren arabera batezbesteko banaketa adierazten dutenak, gizonezko %61,1 eta emakumezko %38,9an banatzen direlarik.

Bigarren postuan Gainerako Europan bizi diren turistak daude, turisten %7,0 batekin, eta %52 gizon eta %48 emakumeen arteko banaketa bat dute.

%50eko proportzio batera gehien gerturatzen diren turistak iparamerikarrak dira, gizonak %47,6 (9.372) eta emakumeak %52,4 (10.301) direlarik. Holandarrak %52,0 gizonak (16.611) eta %48,0 emakumeak (15.303). Bi herrialde hauetako turistak, turista kopuru osoaren %1,3 eta %2,0 irudikatzen dute, hurrenez hurren.



9.5.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak, bisitaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2014. urtea

Aisiagatik etortzen dira turista gehienak (%64,6) eta hemen da sexuaren arabera alde gutxien aurkitzen dugun multzoa. %54,9 gizon (555.058), %9,8ko interurteko hazkundearekin, eta %45,1 emakume (456.068), eta %7,5eko hazkundearekin, dira.

Lanaren arrazoiak, %14,0ko pisu batekin, gizonen eta emakumeen artean diferentzia esanguratsuak erakusten ditu. 179.445 gizon 39.354 emakumeren aurrean, nahiz eta aurten lanaren arrazoiagatik datozen gizonak igo egin diren %5,0 batean eta emakumeak %5,2ean igo diren.



Zerbitzu pertsonalengatik eta beste arrazoiengatik datozen turistak, bateratuta, turista guztien %20,4 irudikatzen dute, eta 181.345 gizon eta 138.555 emakume dira. (%56,7 gizon eta %43,3 emakume).

9.6.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak, egonaldiaren iraupenaren eta sexuaren arabera. 2014. urtea

Egonaldirik irudikatuenak 4 ostatu-gau baino gutxiagokoak dira (%62,7), eta emakume eta gizonen arteko banaketa, %62,4 gizon eta %37,6 emakumekoa da. Desproportzio handienak dituztenak dira.

Hurrengo egonaldirik esanguratsuena 4tik 7ra bitarteko ostatu-gau egiten dituztenen turisten multzoari dagokio (%25,2) emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak urteko batezbestekoaren azpitik daudelarik.

8tik 15era bitarteko ostatu-gauak, turisten %8,4a irudikatzen dutenak, bidezko banaketa bat dutela esan daiteke, %53,3 gizonezko turista eta %46,7 emakumezko turista.



Egonaldi luzeagoko turistak %1,2 irudikatzen dute, banaketa proportzional batera gerturatzen diren gehienak dira, banaketa proportzional batekin, %49,2 gizon turista eta %50,8 emakume turistarekin.

9.7.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak, ostatu motaren eta sexuaren arabera. 2014. urtea

Erabilitako ostatu motaren gainean, hotela, turisten %58 batek aukeratzen du. Ostatu mota honetan, gizonezkoak dira gehiengoa (534.531 gizon 373.671 emakumeren aurrean).



Gizon emakumeen proportzioari begira, azpitik gehien aldentzen den ostatu mota, beste ostatu motena da, turisten %10,8 batekin, gizonezko turisten erabileraren nagusitasuna erakutsiz (116.800 gizon 51.585 emakumeren aurrean).

9.8.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak, bidaiaren antolaketaren eta sexuaren arabera. 2014. urtea

Pakete turistiko bere bidaia antolatzeko erabiltzen ez duten turistek %96,8a irudikatzen dute, eta hauetan gizonen nagusitasun bat dago (897.296) emakumeen aurrean (617.664), 59-41eko erlazio batekin.



Sexuaren arabera, emakumeak garrantzi handiagoa hartzen duen multzoa, bere bidaia pakete turistikoarekin antolatzen duten turistena da, 22.437 emakume 28.081 turista gizonen aurrean.

Pakete turistiko erabiltzen duten emakumeak, interurteko %8,8 bat jeitsi diren bakarrak dira. Bidaia antolatzeko pakete turistikoa erabiltzen ez duten emakumeak, 2013arekin alderatuz, %7,5 igo dira.

Pakete turistiko gabe bidaiatzen duten gizonak aurten %5,8 igo dira, pakete turistikoa bidaiatzeko erabiltzen dutenak berriz %42,5.

9.9.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turisten gastua, sexuaren arabera. Urteko bilakaera 2010-2014





Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turisten gastuak, sexuen artean patroi berdina jarraitzen du. Azken bost urteetan, turisten gastuaren %58,6 a gizonei dagokie eta %41,4 emakumeei.

Gizonezkoen gastuaren interurteko hazkundea 2014ean, %11,9koa izan da eta emakumeena %18,6koa.

Euskadira etortzen diren atzerriko turisten batezbesteko gastuaren eboluzioak modu ezberdinean jokatzen du gizonezkoen gastuari edo emakumezkoenari dagokionean.



Azken urteetan gizonen eguneko gastuak goraka doan lerro zuzen bat marrazten du, 2010eko batezbesteko gastuko 112,26 eurotatik, aurtengo 127,44 eurotara. Aurtengo hazkundea %6,5 batekoa da.

Aitzitik, emakumeen eguneko gastuak joera aldagarriago bat erakusten du, 2011ean gastua igo eta 2012an jeisteko, 2013an berriz igoera handi bat edukitzeko, %16,5 bat 113,60 eurotara iritsiz eta azkenik 2014ean berriz ere %6,5 bat igotzen bukatzeko.

Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turisten pertsonako batezbesteko gastuak azken bost urteetan, sexuaren arabera aztertzean, eguneko batezbesteko gastuarenak baino ezberdinatasun garrantzitsuagoak erakusten ditu.



2010ean, gizonen gastua pixka bat jeisten da eta emakumeena igo egiten da gizonezkoenaren gainetik kokatu arte, 62,38ko aldea markatuz. 2011ean bien pertsonako gastuak behera doaz, baina proportzio ezberdinean, gastuen arteko 26,74 euroko alde batekin, emakumeen alde. 2012ean pertsonako gastua gizonen artean %2,7 igotzen da eta %2,6 emakumeen artean, gizonen pertosnako gastua 528,33 eurotan kokatuz, emakumeen pertsonako batezbesteko gastuaren 27,11 euro beherago, hau 555,44 euroko delarik, 2013an, gizonen gastua %1 igotzen da eta emakumeena %2,2, pertsonako batezbesteko gastuaren arteko aldea 34,10 eurotan, emakumeen alde kokatuz. Azkenik, 2014ean, gizonen gastua %4,9an igotzen da eta emakumeena %11n, pertsonako batezbesteko gastuaren aldea 70,33 eurotan kokatuz, emakumeen alde.

9.10.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turisten gastuaren banaketa, sexuaren arabera. 2014. urtea

Gastuaren kontzeptuen banaketak gizon eta emakumeen artean, egitura ezberdinak erakusten ditu, ezberdintasun portzentual txikiekin, balio absolutoetan ezberdintasunak handiagoak direlarik, gastu totalak bien artean banatzen direlako.

Garraioan gizonek egindako gastuak, gastu totalaren, %31,9 irudikatzen du, 165 milioi eta erdiko gastua sortuz, emakumeen %29,2arekin alderatuz, 117,7 milioi euro (gizonezkoek baino 47,3 milioi euro gutxiago).

Bigarren postuan ostatuaren gastua dago, gizonak %24,0 batekin, 124,2 milioi eurorekin eta emakumeak %24,9 batekin, 100,6 milioi euro (23,6 milioi euro gutxiago gizonezkoek baino).



Hirugarren postuan jatetxe, taberna eta kafetegietan egindako gastua dago, gizonen %17,3ko gastua irudikatzen duena 89,8 milioi eurorekin, eta emakumeen gastuaren %16,5a, 66,4 milioi eurorekin (23,4 milioi eurogutxiago gizonezkoek baino).

Laugarren postua txangoetan eta beste gastuetan aurkitzen da, gizonen %11,7 batekin eta 60,6 milioi eurorekin, eta emakumeen %13,2 batekin eta 53,4 milioi eurorekin (7,2 milioi euro gutxiago gizonezkoek baino).

Bostgarren postuan pakete turistikoan egindako gastua dago, gizonen %9,3 eta 48,3 milioirekin, eta emakumeen %10,3 eta 41,7 milioi eurorekin (6,6 milioi euro gizonezkoen azpitik).

Azkenik elikagaietan egindako gastua dago, gizonen %5,7 eta 29,6 milioi eta erdirekin, eta emakumeen %5,8 eta 23,5 milioi eurorekin (6,1 milioi euro eta erdi gutxiago gizonezkoek baino).

10. EUSKADI NORAKO NAGUSI BEZALA BISITATZEN DUTEN ATZERRIKO TXANGOZALEEN ETA TXANGOZALEEN GASTUAK, SEXUAREN ARABERA

Aurrerago aipatu den bezala, norako eta norako nagusiaren arteko ezberdintasunak ez du txangozaleengan eraginik, hauek norako bakar bat adierazten baitute informazio atzematearen eragiketan.

Berriz ere, azken bost urteetako txangozaleen kopuru osoa grafikan aurkezten da, dagokion atalean behin eta berriz ez begiratzeagatik, atal honetako kalkulo edo zifraren batean kopuru osoaren zenbakia behar bagenu



10.1.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleak sexuaren arabera. Urteko bilakaera 2010-2014

2010ean turisten banaketa sexuaren arabera, 59 gizon eta 41 emakumekoa zen, 2011ean desproportzio handiena lortzen du 60,9-39,1ekin, 2012an 3 dezimatan bakarrik jeisten den aldea eta 2013an bat gehiagotan (60,7 gizon 39,3 emakumeren aurrean). 2014ean berriz ere 3 dezimatan jeisten da (60,4 gizon 39,6 emakumeren aurrean), aurten gizonezko txangozaleak %3,1 eta emakumezkoak %2,1 jeitsi ondoren.

Azken bost urteetako batezbesteko proportzioa, gizonak %60,5 eta emakumeak %39,5 izan da.





Balio absolutoetan emakumezko txangozaleen eta gizonezko txangozaleen artean dauden ezberdintasuak, gizonen alde daude azken urteetan. 2010ean, gizon eta emakumeen arteko aldea, 1.615.559 gizon gehiagokoa, 2011ean, 2.138.526 gizon gehiagorekin ibilbide berdina mantentzen da. 2012an ezberdintasuna jeitsi egiten da, 2.071.405 gizon gehiagotara, 2013an, aldea 2.055.463 gizon txangozale emakume baino gehiagotara jeisten da eta aurten, aldea berriz ere alde hau murriztu egiten da 1.955.722 gizon emakume txangozale baino daudelarik.

10.2.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleak hilabeteko, sexuaren arabera. 2014. urtea

Hilabeteko banaketari begira, gizonezko txangozaleak uztaila, abuztua eta irailan jeitsi egiten dira, emakumeen aurrean, berdintasuna inoiz ez dutelarik lortzen. Gizon txangozaleak emakume txangozaleak baina gehiago izaten jarraitzen dute. Hilabeteko banaketak ez du informazio aldetik datu argigarririk edo adierazgarririk ekartzen



10.3.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleak, sarbidearen eta sexuaren arabera. 2014. urtea

Txangozaleen %99,6ak errepidea erabiltzen du sarbide bezala. Horregatik, txangozaleen banaketa sexuaren arabera aztertzean, arreta erakartzen duen sarbide bakarra da, besteak ez dutelarik garrantzia handirik.

Errepide bidez etortzen diren txangozaleen artean %60,5 gizonak dira, 5.634.678, eta emakumeak gainontzeko %39,5, 3.682.813 emakume txangozale direlarik.



Aurtengo datu hauek, emakumeen %2,1ko beherakada baten ondoren lortu dira, eta gizonezkoen %3,1ko beherakada baten ondoren.

10.4.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleak, bizilekuaren eta sexuaren arabera. 2014. urtea

Txangozaleak bizilekuaren arabera aztertzen direnean, sarbideekin gertatzen den bezala, hauen %94,7 a Frantziakoak direla, eta bigarren Portugaldarrak %1,7 batekin (herrialde bizilagunak), ikusi daiteke. Batera, txangozale guztien %96,4a irudikatzen dute, gainerako jatorrizko herrialdeek ez dutelarik sexuaren aldagaiaren jokaerarekiko eztabaidaezineko daturik ekartzen.



Izan ere, ondoko grafikan, ez da Ipar Ameriketako, Iberoameriketako eta Holandako txangozaleen daturik ere agertzen, ez direlako lagin minimo batera iristen emaitza fidagarriak jaurti ahal izateko.

Frantzian bizi diren txangozaleen banaketa sexuaren arabera, 2014ko banaketa adierazten duena da ere bai. %60,0 gizon %40 emakumeren aurrean (5.320.656 gizon eta 3.544.722 emakume). Frantziako emakume txangozaleak, lehengo urtearekin alderatuz %2 bat jeitsi dira, eta gizonak %3 bat.

Txangozale portugaldarrek ezberdintasun handiagoa mantentzen dute, %81,3 gizon, %18,7 emakumeren aurrean.

10.5.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleak, bisitaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2014. urtea



Aisiaren arrazoiagatik, gizon eta emakume txangozaleen arteko banaketa, gehien gerturatzen dena da, beste edozein arrazoiagatik baino gehiago, 1.692.669 gizon 1.175.301 emakumeren aurrean. Aisiak txangozaleen %30,6 a irudikatzen du.

Lanaren arrazoia txangozaleen %4,7ko irudikapen batekin, 348.692 gizon eta 87.994 emakumeren artean banatzen da.

Txangozaleen ilkasketen arrazoiak ez dauka beharrezkoa den lagin baserik.

Arrazoi pertsonalengatik eta beste arrazoiengatik datozen txangozaleak, txangozaletasun guztiaren %64,5 bat irudikatzen dute, 3.606.651 gizon (%59,8) eta 2.429.426 emakume (%40,2).

10.6.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleen gastua, sexuaren arabera. Urteko bilakaera 2010-2014

Turistekin gertatzen denaren aldera, txangozaleen artean sexuaren banaketak gastu osoaren arabera, ezberdintasun handiagoak erakusten ditu.





Gizonezko txangozaleen gastu totala, 2011ean 136 milioitan igotzen da, 2012an 66 milioi jeisten da, 2013an 26 millioitan jeisten da (%5,4) ia 450 milioietan mantenduz eta aurten %2,6 bat igotzen da 461 milioi euroak lortuaz. Gizonezko txangozaleen gastuaren kota altuena 2011koa izan zen 541 milioi eta erdi eurorekin.

Emakumezko txangozaleen gastu totala 2009tik 2011ra igotzen joan da, 2011ean 49 milioi eurotan igo zen eta 2012an 15 milioi euro jeitsiz, 2013an 11 milioi (%3,7), 275 milio eta erdietatik pixka bat gorago kokatuz eta 2014ean 21,2 milioi eurotan igo da, 296,8 milioi eurotan kokatuz.

Gizonezko eta emakumezko txangozaleen gastuaren aldeak urteen joanean aldatzen joan dira, gizonen gastua handituz. 2010ean gizonek emakumeek baino 152 milioi eta erdi gehiago, 2011ean gizonek emakumeek baino 240 milioi euro gehiago, 2012an gizonek emakumeek baino 189 milioi eta erdi gehiago, 2013an gizonek berriz ere emakumeek baino 174 milioi gehiago gastatzen dituzte eta aurten gizonek emakumeek baino 164,9 milioi euro gehiago gastatzen dituzte berriz ere.

Txangozaleen pertsonako batezbeseteko gastuak gizonezkoetan handiagoak izateko jokaera erakusten dute, nahiz eta azken urteetan emakumeen pertsonako batezbesteko gastuak oso gertu egon.

2011ean, txangozaleen pertsonako gastuan alde handiena dagoen urtea, 12 eurogehiago emakumeek baino.



10.7.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleen gastuaren banaketa, sexuaren arabera. 2014. urtea



Berriz ere, gastu totalaren banaketak gizon eta emakumeen artean, proportzionaltasun berdina mantentzen du, aldaketa txiki batzuekin.

Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten txangozaleen gastu handienak, txango eta besteetan egiten dena, gizonezko txangozaleen gastu totalaren %54,7 bat irudikatzen du, 252,5 milioi eurorekin. Emakumeen kasuan, gastu honek %57,3 bat irudikatzen du, 170,1 milioi eurorekin (gizonetan baino 82,4 milioi euro gutxiago).

Garrantzian bigarrena garraioan egindako gastua da (joan-etorrikoa eta norakoa), gizonen kasuan %31,5 irudikatzen duelarik 145,3 milioi eurorekin, eta emakumeen kasuan %28,1 bat 83,4 milioi eurorekin (81,9 milioi euro gutxiago).

Azkenik, jatetxe, taberna eta kafetegietan egindako gastuak, gizonezko txangozaleen gastu totalaren %13,6 irudikatzen du 63 milioi eurorekin, emakumezko txangozaleen %9,1aren aurrean, 42,3 milioi euro (gizonezkoen baino 20,7 milioi eta erdi euro gutxiago).

BASQUE TOUR

turismoaren
euskal agentzia
agencia vasca
de turismo



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Herri-baltzua
EUSKO JAURLARITZA

Sociedad Pública del
GOBIERNO VASCO